



Argitaratzailea:

Gernika-Lumoko Euskara Zerbitzua eta Hezkuntza Saila

Laguntzaileak:

Barrutialde Institutua

Gernika-Lumoko Institutua

Mertzede Ikastetxea

San Fidel Ikastola

Seber Altube Ikastola

Portadaren egilea:

Maitane Acevedo Albizu (DBH4. mailako ikaslea)

Babesleak:

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila (HPS)

Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila

(Euskara Zuzendaritza)

Inprimaketa:

LIZASO GRAFIKAK (Zornotza)

2017ko edizioa.

HITZAURREA

Sarritan esaten dugu euskararen ezagutza areagotuz doala, baina argi eduki behar da hizkuntza barru-barrutik bizi izaten ikasten ez bada, hankamotz gerta daitekeela ezagutze hori.

Horrekin lotuta, ezin dugu ukatu ikasketak ondo burutzeko irakurketa eta idazketa direla tresnarik garrantzitsuenak, ondo ulertu eta ondo adierazitakoa ez delako inoiz ahazten. Ikastolan eta ikastetxean lantzen diren idazlanek zelako garrantzia daukaten ikusi, eta horietako batzuk liburu landu eta txukunean jasotzen direla ikusteak, lagundu egingo die ikasleei eta gurasoei hizkuntza emozioaren bidetik bizi izaten. Emozio horrek ekarriko du euskara gure bizitzan errotzea.

Adiskideok, “hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek erabiltzen ez dutelako baino” eta ehun urte barru honelako ekintzak oroitza pen hutsa izan ez daitezen osatzen dugu bilduma hau, belaunaldiz belaunaldiko katea eten ez dadin.



Marisa Aldamizetxebarria
EUSKARA ZINEGOTZIA

AURKIBIDEA

IZENA	maila	IDAZLANA	orr.
June Zameza Asurmendi	DBH 1.	LURRETIK ARISERA	1
Gorka Aldana Aldekoa	DBH 1.	ALDATU EZIN DUGUN ERREALITATEA	3
Naroa Alzibar Barrueta	DBH 1.	MARIA ETA ANA	6
Maren Duñabeitia Uribe	DBH 2.	EZ DUT NIRE BIZITZA GUSTUKO	9
Itsaso Olea Urionabarrenetxea	DBH 2.	GEURE HABIA	11
Mikel Pinedo Barandika	DBH 2.	ERROMAKO EGUNEROKOA	14
Manex Vallejo Arginzoniz	DBH 2.	LAUTADATIK KANPO	17
Maria Armaolea Elexgarai	DBH 2.	GAUEKO OROITZAPENAK	20
Koldobika Puente Frias	DBH 2.	MUNDUA UTZITA, DATORKIZUNA EZIN JAKIN	24
Uxue Vallejo Termiño	DBH 2.	EGIPTO, PIRAMIDEAK BAINO GEHIAGO	28
Maidier Aberasturi Arruti	DBH 3.	INOIZ EZ ETSI!	30
Aitor Jauregi Gezuraga	DBH 3.	BIZITZAREN GORA BEHERAK	32
Maite Etxebarria Delgado	DBH 3.	IHES	35
Naroa Arandia Kaltzakorta	DBH 3.	PARKEKO BIHOTZA	39
Eneko Duñabeitia Madariaga	DBH 3.	AZKEN OIHUA	44
Irantzu Idoiaga Zelaia	DBH 4.	ILUNTASUNAREN EDERTASUNA	47
Aitor Asturias Ajuria	DBH 4.	IDEIA	49
Ane Martin Matilla	DBH 4.	NERABEEN ARTEKO KONTUAK	52
Aitor Rodriguez Labaka	DBH 4.	IGNAZIO NEUREA DA	55
Lierni Gregorio Zabala	DBH 4.	BESTE EGUN BAT	59
Nagore Bermeosolo Saitua	DBH 4.	BAKARDADEA	62
Izaskun Izagirre Urizar	BATX 1.	ERRAUTSETATIK ITXAROPENERA	64
Garazi Foruria Naberan	BATX 1.	ISTILUA	67
Jon Santa Maria (testua)			
Amurrio Fernandez (irudiak)	BATX 1.	IHESA	71
Amaia Iruskieta Bilbao	BATX 1.	SAREAN	79
Imanol Ziluaga Esteban	BATX 2.	GAUAK ZIRAUEN ARTEAN	83
Naia Ellis Luzarraga	BATX 2.	GERRAKO HIZKUNTZAN	86
Ainara Olea Urionabarrenetxea	BATX 2.	AMETSIK GABEKO BIZIA	91
Naia Gerekiz Uriarte	BATX 2.	BIZITZA	94
Markel Monge Mintegia	BATX 2.	SUDAN MAITEA	97
Aitor Goenaga Lasa	HHI/EPA	GURE BIXENTE	102
Kerman Alvarez Azueta	HHI/EPA	KAIARRIXA UHARTEA	104



XVI. IDAZLAN

DBH-BATXILERGOA
GERNIKA-LUMO
2017

KOADERNOA



June Zameza Asurmendi

DBH 1. maila

“Lagunekin egotea gustatzen zait. Baita irakurtzea ere.
Irakurtzeak asko laguntzen du”

LURRETIK ARISERA

Kaixo, ni Ane naiz, eta behin batean gertatutakoa kontatuko dizuet. Bi mila eta hamaseiko abenduaren 20a zen. Estralurtar baten gutun bat jaso nuen, gutunak hau esaten zuen:

Kaixo Ane:

Etorkizunetik deitzen dizun neska estralurtar bat naiz. Zu, Lurplanetan zaude; ni, zugandik 80 milioi km-tara nago, Aris deitzen den planeta sekretu batean.

Esan behar dizudana da, zu bizi zaren planeta guztiko gizakiak hiltzeko arriskuan zaudetela eta Lurra hemendik aste betera lehertu egingo dela. Nire planetan 3 pertsona baino ez garela bizi, eta laster Jupiterrera joan behar dugula. Horregatik, gure planeta, Lurreko gizaki guztiei emango dizuegu. Arisek 17 kontinente ditu, eta 9 ozeano. Etxeetan ez duzu jatekorik egin behar, botoi bati ukitu eta zuzenean aterako da janaria makinatik.

Hemen, etxeak egiteko, ``etxe berria nahi dut`` esan behar da, eta zerutik aterako da etxea, etxe guztiek igerilekua, frontoia... dute.

Ni, Ariseko arduraduna naiz. Eta orain, hona zatoztenean, arduraduna zu izatea gustatuko litzaidake. Mesedez, etorri ona, hemen zoriontsuago biziko zarete, eta ez da inor hilko.

Arisera heltzeko, 3 suziri erraldoi iritsiko dira, bat Madrilera, beste bat New Yorkera eta azkena, Pekinera.

Planeta Eguzki-Sistematik hainbat km-tara dago, zehazki, Neptunotik 100 km-tara.

Suziri barrura sartzeko pasahitza 412 da. Mesedez, mundu guztiari jakinarazi hau.

Ondo pasa Arisen:

Estralurtarrak

Ni, gutun hau irakurri nuenean, oso triste jarri nintzen, gure etxea utzi behar genuelako. Familia guztietako pertsona baten telefono zenbakia aurkitu eta horrela jakinarazi nien bidaiaz. Hainbat galdera egin zizkidaten, oso harrituta gelditu ziren eta.

Hurrengo astea heltzean denok geunden urduri beste planeta batera joan behar genuelako. Batzuk, Lurrean gelditzea erabaki zuten ez zutelako planeta berririk nahi eta beldurra zutelako. Horregatik, pertsona batzuk ez joatea erabaki zuten. Ni saiatu nintzen denak konbentzitzen, baina alferrik izan zen, bertan gelditu ziren.

Heldu ziren suziriak, pasahitza sartu, eta... BUM!!!

Hamar segundotan iritsi ginen Arisera. Harrigarria zen. Etxeak zelan egin eta beste hainbat gauza azaldu eta denak hasi ziren etxeak egiten. Familia bakoitzak etxe erraldoi bat zuen, ezin zutelako gehiago eduki. Halako batean, norbaitek diruaren argazkia zuen botoi bat ukitu zuen, eta berehala hasi ziren bileteak zerutik behera jaisten. Dirua ez zen amaitzen. Jendeak hainbat gauza erosi zituen. Halako batean, konturatu ginen, dirua behar dugunean, botoi hura ukitu behar genuela eta gelditzeko, berriz ere ukitu behar geniola botoi hari. Janaria oso gozoa zen.

Etxeak ikusgarriak ziren, igerileku erraldoiak, zinemak, lorategi izugarriak, etxeak garbitzen zituen robotak... Dena zegoen eginda, botoiak ukitu eta dena prest! Gela guztietan zegoen zerbait harrigarria. Ohe handiak, izugarrizko armairuak arropa politekin beteak... ez zegoen ezer txarrik bertan bizitzeko.

Denok geunden zoriontsu Arisen, nahi genuen guztia erosi ahal genuelako eta baita ez zelako inor hiltzen ez gaixotzen. Ez zegoen sendagairik, baina denok geunden osasuntsu, zahar zein gazte.

Eta ni ere, oso pozik nengoen arduradun bezala.

Baina poztasun hori guztia, laster bukatu zen, amak esnatzeko deitu zidanean eta eskolara joan behar nuela jakin nuenean. Eta amets bat zela konturatu nintzenean.





Gorka Aldana Aldekoa

DBH 1. maila

“Lema Futbolean jolastea eta lagunekin egotea gustatzen zait”

ALDATU EZIN DUGUN ERREALITATEA

- Marcos! Marcos! Izartu zaitez! Joan egin behar gara oraintxe bertan!
- Baina, ama! Oraindik goizaldeko laurak dira...
- Ez zait axola! Mugi! Joan egin behar gara eta.
- Baina jantzi beharko naiz, ezta?
- Ez! Horrela joan beharko duzu.

Eskailerak jaitsi eta hor ikusi nuen aita anaia txikiarekin eskuetan. Etxetik irten ginen eta Libiako kostalderantz abiatu ginen. Korrikan hasi ginen presa asko baikenuen. Kostaldean, ehunka pertsona zeuden. Ez nuen ezer ulertzen. Orduan, gomazko itsasontzi bat ikusi nuen hurbiltzen eta hurbiltzerakoan, amak keinuen bidez, hurbiltzeko esan zidan. Txalupara igotzeko esan zigun gizon batek eta horrelaxe egin genuen.



Denok igo ondoren, gizon horrek, txalupak zuen motortxoa piztu zuen eta mugitzen hasi ginen. Amari begiratu eta hau galdetu nion:

— Zergatik gaude hemen?

— Ez duzu ulertuko.

— Ama, mesedez, zergatik gaude hemen?

— Ez duzula ulertuko!

— Ama, nagusia naiz, ulertuko dut.

— Ongi da, kontatuko dizut.

— Eskerrik asko, ama.

— Itsasontzi honetan, Mediterraneo Itsasoa zeharkatuko dugu bizitza hobeago baten bila.

— Eta zer dago Mediterraneo Itsasoaren beste aldean?

— Europa dago, lekuri onena da bizitzeko. Hor ur asko dago, etxe politak eta lana egiteagatik asko ordaintzen dizute.

— Oso pozik nago eta oso urduri ere bai Europara heltzeko.

Nire ingurura begiratu eta ehunka pertsona ikusi nituen txalupan.

— Ama, zenbat kostatu zaizu bidaia?

— Daukagun dena saldu behar izan dugu bidaia ordaintzeko.

Ordu bat geroago, txalupa gidatzen zuen pertsonak hurrengo hau oihukatu zuen:

— Gasolina barik geratu gara!

Hori esaterakoan, lehen zegoen isiltasuna iskanbilan bihurtu zuen. Denok geunden beldurrez beteta eta nire aurpegitik izerdi tantak erortzen zeudela sentitu nuen.

Egunak pasatu ziren eta ez ginen lekutik mugitu, gainera, gosez geunden janari guztia bukatu zelako. Urarekin, kontu berdina eta, horrez gain, gauak oso hotzak ziren eta ez genuen ia ezer gure gorputza estaltzeko. Nire ondoan zegoen gizon bat gaixorik jarri eta... denbora gutxira hil zen. Orduan, egun batean, itsasontzi erraldoi bat ikusi genuen denok oihukatzen hasi ginen. Itsasontzia hurbildu zen eta pertsona batzuk txalupetan etorri ziren eta lasai egoteko esaten zuten. Lehenengo emakumeak eta haurrak eramane zituzten itsasontzira eta gero, gizonak!

Han hurrengoak esan ziguten:

— Gu zuen salbatzaileak gara eta Europara eramango zaituztegu. Behar dituzuen elikagaiak emango dizkizuegu.

Europara heltzerakoan ez zen guk pentsatutakoa. Guztiz ezberdina zen. Ez da leku hain ona bizitzeko, ur asko dago baina oso garestia da eta ezin dugu ordaindu. Gainera, gurasoek ez dute gustuko lanik topatu. Eta topatzen dituzten lanak gainontzekoek nahi ez dituztenak dira. Beste arazo bat ere badugu: jende askok ez duela nahi bere herrialdean etorkinak egotea, beldurra dutelako beraien lana kenduko ote dieten. Bestalde, anaia eta biok oraindik ez gara joan eskolara gurasoek dirurik ez daukatelako. Azkenean, hau da aldatu ezin dugun errealitatea; han edo hemen bizimodu antzekoa.



Naroa Alzibar Barrueta

DBH 1. maila

“Asteburuetan lagunekin geratzea gogoko dut”

MARIA ETA ANA

1950. urtean, mendi artean galdutako herrixka bateko baserrian oso familia pobrea bizi zen. Gurasoak eta bost neba-arreba ziren, eta gazteenak, Mariak, 8 urte zituen. Baserrian, behi bat zuten eta haren esnea salduz lortzen zuten dirua. Bestalde, herrian bazegoen alkate aberats bat. Hura alarguna zen eta hamar urteko alaba bat zuen: Ana.

Herrian ez zegoen ez ospitalerik ez medikurik; beraz, medikuak herrira heltzeko ordu bete eta laurden tardatzen zuen. Alkatearen alaba, Ana, gaixorik zegoen. Ez zen oso gaixotasun larria, baina medikua astean bi aldiz etortzen zen Ana bisitatzerara.

Maria egun batean oso gaizki sentitu zen, hori dela eta, bere gurasoak oso kezkatuta zeuden eta erabaki zuten alboko herriko medikoarengana eramatea; hortaz, etxetik astoa eta gurdia hartu eta abiatu egin ziren. Hurbileneko herrira heltzeko ordu bat eta laurden behar ziren.

Herrira heldu bezain laster, medikoarengana joan ziren. Medikuak esan zien gurasoei Mariak oso gaixotasun larria zuela eta tratamendua oso garestia izango zela. Horren ondorioz, familiak bere diru iturri bakarra zena saldu behar izan zuen.

Alkatearen alaba ere gaixorik zegoen eta, horren ondorioz, ezin zen etxetik irten. Anak egun osoa jarduten zuen leihotik begira eta beti ikusten zuen gurdi bat herrira jaisten. Medikua bere etxera joan zenean, galdetu zion nortzuk ziren. Hark erantzun zion neska hura Maria deitzen zela, 8 urte zituela, oso gaixotasun larria zuela eta haren familia oso pobrea zela. Gaineratu zion tratamendua ordaintzeko behia saldu behar izan zutela. Hori entzutean Anak pena handia sentitu zuen eta osasun zaintzaileari diru apur bat eman zion Mariaren tratamendurako. Medikua

asko poztu zen eta, Anari eskerrak eman ondoren, bere kontsultara joan zen. Heldu bezain laster, atearen aurrean Mariaren gurasoak zeuden oso larri. Sendagileak, kezkatuta, zer gertatzen zitzaien galdetu zien eta gurasoek erantzun zioten Maria ez zegoela hobetzen tratamenduarekin. Josu, medikua, orduan asko larritu zen, tratamendu hura oso ona zelako. Jarraian Mariaren familiaren baserrira joan zen eta, neska oso txarto zegoela ikusi ondoren, gurasoei esan zien berak ezin zuela ezer egin eta Estatu Batuetako ospitale batera joan behar izango zutela, han medikuntza askoz aurreratuago zegoen-eta.

Mariaren familiak ez zuen dirurik Estatu Batuetara joateko; beraz, ez zekiten zer egin. Geroago Josu alkatearen etxera joan zen Ana ikustera. Nahiz eta gero eta hobeto zegoen, oraindik ezin zen etxetik irten. Medikuek, ohi bezala, Mariaren egoera kontatu zion, baita tratamenduak ez ziola ezer egiten ere; horrez gain, esan zion Estatu Batuetara joan behar zutela, baina horretarako ez zutela dirurik.

Anak egoera bere aitari kontatu zion eta erabaki zuten herritar guztien artean dirua lortzea. Denbora apurka aurrera zihoan eta Maria gero eta txarrago zegoen.

Aste batzuetara herritarrek diru nahikoa lortu zuten Mariak eta bere amak Estatu Batuetara bidaiatzearren.

Hara heldu bezain laster, ospitalera joan ziren. Medikuek analisiak egiten egon ziren jakiteko zer gaixotasun mota zuen. Gau oso batez Maria ospitalean geratu behar izan zen.

Bere ama oso larrituta zegoen eta gau osoan ez zuen ia lorik egin. Goizean esnatu bezain laster, jantzi eta segituan joan zen ospitalera Mariarengana. Medikuek berri txar bat zuten Mariaren amarentzat. Gazteak leuzemia izeneko minbizi mota bat zuen. Baserritarren emaztea oso triste jarri zen eta negarrez hasi zen. Mariak bere ama negarrez ikustean, zergatik zegoen horrela galdetu zion, baina bere amak ez zion erantzun.

Medikuek esan zion Mariaren amari gaixotasun hura sendatzeko forma bat zegoela, norbaitek hezur muina eman behar zion, baina pertsona bi horiek bateragarriak izan behar zuten; beraz, hori jakiteko odol proba batzuk egin behar zizkieten.

Umearen amak segituan bere burua eskaini zuen, baina probak egin eta gero negatibo eman zuten. Biak etxera itzuli ziren. Familiakoei ere probak egin zizkieten, baina negatibo eman zuten.

Baserritarrek alkateari esatea erabaki zuten ea herriko norbaitek bere burua eskaintzen zuen probak egiteko. Handik aste batera hamabi pertsona zeuden prest, baina, zoritxarrez, denek eman zuten negatibo. Ana, horretaz jabetu zenean, aitari esan zion bera prest zegoela probak egiteko, baina bere aitak debekatu egin zion.

Hurrengo egunean medikua Anarengana joan zen esanez guztiz sendatuta zegoela eta jada kalera irten ahal zela. Bera asko poztu zen arren, Mariarengatik pena handia sentitu zuen; orduan, medikuari galdetu zion ea proba horiek egin ahal zituen eta medikuak baietz esan.

Probak egin ondoren, Anak positibo eman zuen, baina ez zekien aitari nola esan aurretik debekatu egin ziolako.

Aita etxera heldu bezain laster, gazteak esan zion jada sendatuta zegoela, odol probak egin zituela eta positibo eman zuela; beraz, bere hezur muina eman nahi ziola Mariari. Hori entzun bezain laster, aita haserretu egin zen eta Ana gelara bota zuen.

Hurrengo goizean Anak aitari azaldu zion Maria zortzi urteko neskatila bat zela, oso familia pobre batekoa, eta beraien diru iturri bakarra saldu behar izan zutela bere tratamendurako, baina funtzionatu ez zuenez, Mariak txarrera egin zuela eta Estatu Batuetako mediku batengana joan behar izan zutela. Han esan ziotela konpatiblea zen norbaitek bere hezur muina emanez gero sendatuko zela eta aurkeztu ziren guztietatik bera zela Mariaren moduko odola zuen bakarra.

Hori entzutean, alkatea Mariaren familiarekin harremanetan jarri zen eta esan zien Ana prest zegoela bere hezur muina emateko. Mariaren familia asko poztu zen eta Anari eskerrak eman zizkioten.

Hurrengo astean Ana, alkatea, Maria eta bere ama Estatu Batuetara joan ziren.

Heldu eta hurrengo egunean ospitalera joan ziren. Operatu ondoren, medikuek esan zieten operazioa ondo irten zela eta biak zeudela ondo. Hala ere, Mariak egun batzuetan bertan geratu behar zuen; beraz, Ana, alkatea eta baserritarraren emaztea berarekin geratu ziren.

Etxera heldu zirenean, Maria eta Ana oso lagun onak egin ziren eta beti egoten ziren elkarrekin.



Maren Duñabeitia Uribe

DBH 2. maila

“Denborak bere bidea jarraitzen du, etengabe”

EZ DUT NIRE BIZITZA GUSTUKO

Nire izena Sirhan da, “otso” esan nahi du. Afrikako herrialde batean bizi naiz, Afrikako Ekialdean kokatuta dagoen batean, Abiyanen hain zuzen. Lehen esan dudan bezala nire izena Sirhan da eta 12 urte ditut. Ez naiz familia txiro batean bizi, ez, nire familia pobreziatik urrunduta dago, gu ez gara aberats-aberatsak baina nahiko diru daukagu. Gure familian 8 gara; ama, aita, eta 6 neba-arreba, nagusia Iana da eta 20 urte ditu, jarraian Keshia 16 urtekoa, ondoren Daye 14 urtekoa, ni beren ostean, eta gero Duma 10 urtekoa eta azkenik Annara txikia 8 urtekoa. Iana mutil aberats batekin dago ezkontuta, aitak derrigortuta, bai hala da, gure etxean aitak agintzen du.

Nik amets bat daukat, ni bezalako ume batentzat pixka bat lortezina, baina egun batean egi bihurtzeko esperantza daukat. Aberatsa izatea aspergarria da, ez duzu lagunik, ez zara ikastolara joaten, irakasleak datoz klaseak ematera... Niri ez zait bat ere gustatzen, nik beste umeak bezala bizi nahi dut, nire logelako leihotik ikusten ditudan umeak bezala, alai, libre, arratsalde guztia kalean jolasten eman, ikastolara joan, amak egindako ogitarteko gozoa patio orduan jan, hondarrean jolastu eraikinak eraikitzea, edozer garelako imitatuz jolastu... Baina hori guztia amets bat besterik ez da, gauza lortezin bat, baina bene-benetan nahi dudan gauza bat da eta ez egun guztia etxean eman, nire gurasoak ez didatelako kalera irteten uzten. Beraiek esaten dute kalean gaixotasunak bakarrik daudela eta oso arriskutsua dela bertara irtetea, baina nik ez dut uste horrela, ez dute beste umeengan hurbiltzea nahi, kaleko bizitzatik urrunduta nahi naute. Nire aitak ikasketak hori guztia baino garrantzitsuagoak direla esaten dit, baina nire ustez dibertsio pixka bat ere eduki beharko genuke umeek. 18 urte betetzeko nahia daukat, behingoz etxetik joateko eta libre izateko, nik nahi dudan guztia egiteko, mundua ezagutzeko, jendea ezagutzeko. Esan bezala aberatsa izatea ez da dibertigarria, nire gurasoak nahi ditudan gauza guztiak eta gehiago eroste dizkidate baina ez daukat norekin konpartitu edo norekin jolasterik.

Egun batean nire aita herrira joan zen eta nire aukera zela ohartu nintzen, herria ezagutzeko, jendea urretik ikusteko behingoz, baina saila izango zen aita konbentzitzea. Aita konbentzitu nuen, eta herrira joan ginen biok, aitaren lagun baten etxera. Aitaren laguna ez zen gure bezalakoa, txiroa zen, ez zuen diru askorik, niri gaztea iruditu zitzaidan, 33 urtekoa baitzen eta gaixorik zegoen. Lau seme-alaba zituen eta bat nire adinekoa zen, bere aurpegia ezaguna egiten zitzaidan, noizbait ikusi izan banu bezala eta bai ala zen, egun batean nire logelako leihotik ikusi nuen norbaitengandik ihesean, baina ikusi nuen lehenengo aldian alai zegoela zirudien, baina gaur ez zen beste eguneko aurpegi berdina ez, edo nire ustea bakarrik izan zen. Bere aita gaixorik zegoelako zen? Ala beste arrazoi batzuentatik? Baina nolakoa naizen, noski bere aitarengatik izango zela. Bere izena Bayi zen, oso argala eta alaia zen nire ustez, ile ederra zuen, marroia eta luzea, begi berde ederrak zituen, ederra zen. Momentu hartan maitemindu egin nintzela uste nuen, baina zer diot? Ni ez naiz inoiz maitemindu, ez dakit maitemintzea zer den. Bere aita gaixorik zegoen, eta bere ama etxeko-lanak egiten, hori egiten baitzuen egunero, umea zaintzeaz gain.

Aitaren lagunak dena kontatu zion aitari, nola gaixotasunaren ondorioz lana utzi behar izan zuen eta orain ez zeukatela dirurik ezertarako, ez familia mantentzeko, ez etxea ordaintzeko, ez umeen ikastola ordaintzeko. Abiyan herriko alde txiroan geunden, baina ala ere jendea alai ikusten nuen beraien bizitza latzetan, umeak jolasten, eta gurasoak beraien artean hizketan. Beraien etxeak ez ziren gauza handirik, baina zerbait zuten. Momentu hartan konturatu nintzen jendeak laguntza behar zuela, laguntza asko, batzuentzako hil ala biziko gauza baitzen eta. Bayi niregana hurbildu zen eta dena azaldu zidan, beraientzat dirua ez zela garrantzitsuena, herriko alde horretan bizi ziren guztientzako ere ez, familia eta maitasun pixka bat baizik, niretzako ere ez zen dirua garrantzitsuena, berdin pentsatzen al genuen? Nik eta denak? Bertan bizitzeko jaioa nagoela pentsatzen dut orain.

Berak erakutsi zidan txiro izatea zer den, zenbat sufritu behar den, janaria lortzeko batzuetan lapurtu egin behar zutela, jendeongandik ihes egitea batzuetan dibertigarria zela azaldu zidan, baina beste batzuetan zigorra edukitzen zenuela. Bayik dena erakutsi eta azaldu zidan, zortea nuela esan zidan, baina nik ez nuen horrela pentsatzen. Kaleko gaixotasun arriskutsuentatik babestuta nagoela esan zidan, beraien eguneroko bizitza erakutsi zidan... eta hainbat gauza. Hori guztia ikustean, jendeak oso gaizki pasatzen duela ohartu nintzen, txiroa izatea ez zela dibertigarria, baina nire ustez aberatsa izatea ere ez. Berari gustatuko zitzaioela nire moduan bizitzea, benetan nire moduan? Lagunik gabe? Kalera irten gabe? Bai ez zitzaiokeela gustatuko, libre izan nahiko zuen. Beraien eguneroko bizitza ikusten pena sartu zitzaidan, oso gaizki pasatzen baitzuten. Momentu hartan ohartu nintzen, bakoitzak daukagunarekin pozik bizi behar dugula, jende asko dagoela gu baino txarrago bizitzen, bizitza latzagoa zutela, hori guztia berak erakutsi zidan, Bayik, inoiz ahaztuko ez dudana gauza bat.

Denbora joan ahala, nagusi egin nintzen, nire aita Bayiren aita sendatu, eta beraien familia txirotasunetik atera zuen. Dayi nitaz maitemindu eta ezkondu egin nintzen berarekin, aitaren baimenik gabe, pozik bizi izan ginen, nire neba-arrebei ere ondo joan zitzaien dena, baina nire aita dirua banatu behar zuenez, nire neba-arrebetariko inor ez da aberatsa, baina txiroa ere ez, pozik gaude dugunarekin, eta pozik jarraituko dugu. Nork esango zuen behin etxetik irtetean, hau guztia gertatuko zenik, neskabila eder hori ezagutuko nuenik, nire pentsamenduak guztiz aldatuko zituenik, nork? Baliteke zuei noizbait hori gertatzea, ez?



Itsaso Olea Urionabarrenetxea

DBH 2. maila

“Lagunekin ibiltzea eta bidaiatzea atsegin dut”

GEURE HABIA

Ipar haizeak indarrez astintzen ditu geure etxe inguruko pinu eta arteak. Giro eskasa dago hemen; etxera bidean noa korrika. Gogoz jo dut etxeko atea, euri tanta lodi eta hotz haiek gehiago busti ez nazaten.

Faltan botatzen nuen beheko suaren inguruan jarri eta kontutxoak kontatuz familiarekin orduak eta orduak igarotzea. Azken aldian, ez baitut arnasa hartzeko astirik ere izan. Baina orain bai, orain heldu da horrenbeste itxaroten nuen oporraldia. Negu gorrian gaude, haize bolada hotzak eta elur euria dira nagusi hemen.

Enara naiz, geure etarteko sabaian beraien habietan elkarren alboan epel-epeletan dauden txoritxo zuri beltzak bezala. Bost urte besterik ez zaizkit falta adinez nagusia izateko. Geure habian bizi naiz, etarteko enaratxoak bizi diren bezala, pozarren, ama, aita eta neure neba txikiarekin, Jonekin. Mapetan ikusi ez daitekeen herri txiki baina eder honetan, Nabarnizen.

Sekula nire bizian burutik kenduko ez dudana eguna, zoritxarra geure habiara sartu zena eta geure amatxo eraman zuena. Neguko astelehen euritsu hartan, baserrian baturiko barazki eta fruituak Gernikako azokara eramateko bidean zihoala, izugarrizko kamioi batek amatxoren kotxe gorri txikitxo bat zatitu eta beheko errekarara jaurti zuen, umeek jolasteko erabiltzen duten baloi bat bezala. Berri txarra eman zigutenean, negar batean hasi nintzen. Eta nola ez, aitatxo eta nebatxo gaixoak...lur jota. Buru makur geratu ziren ondorengo hilabeteetan. Orain, geure habian, enaratxo bat falta da, ez gaude denok elkarrekin.

“Ez daude! Joan egin dira!”-esan du Jonek oihuka. Gora begiratzean nabaritu dut habia hutsik dagoela. Eta enarak? Orduan Jonek esan dit: “amatxorekin batera joan dira.” Nire masailetan behera negar malko sendo bat erori zait bat batean. Hainbeste maite nituen enaratxoek utzi egin gaituzte."Lasai, Enara, bueltatuko dira egunen baten" esan dit berehala. Marka da gero, denak gaizki irten beharra. Baina bueno, horrelakoa da bizitza, batzuetan ona eta besteetan txarra, horixe pentsatuz egiten dut aurrera.

Hilabeteak joan, hilabeteak etorri, geure betiko martxara ohitu gara. Utzi gintuztenak geure bihotzean ditugula, aurrera egiten gabilta. Gaur ere Miren etorri zaigu, aitaren lankide eta lagun mina. Oso emakume dotore eta alaia da Miren. Aurpegian masail batetik besterainoko irribarre bat duelarik, beti guri irri bat ateratzeko prest. Miren geure bigarren ama da.

Etxerako lanak egin, ikasi beharrekoak ikasi eta Iluntzarrera joan naiz haize fresko pixka bat hartzera. Buruko minez ahaztu eta hain politak diren geure bazterrak ikustera: Arratzu, Gernika, Aulesti, Lekeitio eta Urdaibai ere. Munduko lekurik ederrenei begiratzuz. Eta azken aldiotako zoritxarrak alde batera utziz, etorkizunean pentsatzen hasi naiz. Aspaldion ez dut neuri buruzko hausnarketa sakonik egin.

Erlojuaren orratz txikiak bira oso bat eman duela konturatu naizenean, etxera abiatzeko ordua dela pentsatu dut. Aita eta Jon zain edukiko ditut. Lasai-lasai etxerantz bidean noala, burura etorri zait neguko egun hotz eta euritsu hura, bide berberetik, arineketan etxera bidean joan nintzenekoa. Baina oraingo honetan, etxera sartu eta sutondoan ez dago inor, denak isil-isilik daude, gure habia ez da lehen bezalakoa. Amatxok izugarrizko zuloa utzi du habian.

Gaurkoan ere, Miren etxera etorri zaigu eta, nola ez, bere irribarre erraldoiarekin, guztioi itsatsi zaigu. Arazoak ahaztu eta aste berezi bat igaroko dugula esan dit! Hau emakumea.....zer ote dakar gaurkoan ere! Eta bat-batean hauxe esan digu "Goixan kanariazera bakaziño eder bazuk alkarregaz pasetan!" Aitak begiratu egin dit keinu eginez. Aldi batez, burura etorri zaidan izpia ezabatu eta Mireni besarkada eta musu pare bat eman dizkiot.

Hau poza, maletan zer sartu ere ez dakidala nago. Arropak, argazki kamera,sandalia berriak, toalla... Begiak itxi eta ireki orduko aireportuan gaude laurok, pozak zoratzen, zoroak ematen dugu. Kontuan jausi orduko Kanariar Irletan gaude, Tenerifen hain zuzen ere. Leku ikusgarria benetan. Eta zein bizkor pasatzen diren orduak gustuko tokian, konpainia onenean!

Azken eguna dugu gaurkoan hemen, egia esan txunditurik nago ikusi dudanarekin. Zer eta nire aita Mirenekin! Ezin dut sinetsi, honek amets bat dirudi. Laurok Tenerifen. Paradisuan nago. Eta Euskal Herria baino toki hoberik inon egon ez arren, aste pare bat tokiz aldatzeak ere merezi du. Miren eta aita elkar musukatzen ikusi nituen. Hori ikustean, tximeletak sentitu nituen neure barnean.

Heldu gara mapetan agertzen ez den herri txikitxora. Autoko leihotik burua atera, eta hantxe non ikusten dudan geure baserri ederra. Kanariar Irlak paregabeak izan arren, konturatu naiz ez dagoela geure bazterrak baino leku politagorik!

Maletak autotik atera eta etxera sartzeaz gaude. Halako batean, soinu txiki hauek antzeman ditut geure etartean, Txio Txio Txio!!!! Arineketan, ziztu bizian, etartera hurbildu naiz eta gora begiratzean non ikusi ditudan faltan hainbeste izan nituen geure enaratxoak ! Hau poza! Ezin sinisturik nago, nola aldatu daitezkeen aste gutxian.

Azken aldi honetan, nahiz eta hainbat gertaerek geure bizia hankaz gora jarri, denborak erakutsi digu arazoak konponduz aurrera egiten.

Baina nola botatzen ditudan faltan ama, aita, Jon nebatxoa, eta ni lasai-lasai sutondoan inongo buruko minik gabe, epel-epeletan, inongo kezkarik gabe egoten gineneko uneak, gure etarteko sabaian dauden enaren moduan, GEURE HABIAN!





Mikel Pinedo Barandika

DBH 2. maila

“Musikarekin asko gozatzen dut”

ERROMAKO EGUNEROKOA

Larunbata, abuztuak 15: Bidaia

Bilbotik Fiumicino-Leonardo da Vinci aireportura heldu gara. Aireportua herritik urrun dago. Beraz, garraio garestia eta luzea da. Guk Leonardo Express trena hartu dugu. Geldialdirik gabe, 35 minuturen buruan, Erroman (Terminin) erdigunean izan gara eta zuzenean hotelera joan gara. Oso ausartak izan gara eta oinez abiatu gara, hamar minutu zirela pentsatu dugulako, baina... Galdu egin gara eta, beraz, pentsatu dugu metroa hartu behar genuela.

Maletak gelan utzi eta pizza bat jatera joan gara

Igandea, abuztuak 16: Ibilbidea: hirigune historikoan

Guk bai zorte hona! Zerua lainotuta eta euria, eta gu ... aterkirik gabe! Baina metroa hartu eta Erroma ikustera joan gara.

Lehenengo, Piazza Navonara joan gara. Piazza Navona plaza obalatua da eta bertan iturri bat dago; lau ibai (Nilo, Danubio, Ganges eta Rio de la plata) adierazten dituen.

Geroago Panteoia ikustera joan gara. Ondoen kontserbatuta dagoena, Erromako monumentu bat da. Harrigarriena bere kupula ikustea da eta nola sartzen den argia bere 9 metroko zulotik.

Atsedena hartu eta gero, pasta jatera trattoria batera joan gara. Postre modura izozki denda batera joan gara. Izozi bat lortzeko denbora pila bat egon behar izan gara ilaran.

Bagoaz hurrengo plazara.

Hurrengo plazak Fontana di Trevi du izena: nahiz eta konpontzen egon, guk txanpona bota dugu sorbaldaren gainetik eta iturrian sartu. Bueltatuko nintzateke bertara...

Gero, Piazza di Espagnara joan gara. Itsasontzi itxurako iturri bat dago. Argazki ugari atera ditugu.

Piazza del Popolara joan gara. Plaza handi bat da eta obelisko bat dauka plazaren erdi-erdian.

Atsedena hartu eta afaria Piazza del Popolon egin dugu eta gero hotelera joan gara.

Astelehena, abuztuak 17: Ibilbidea: Antzinako Erroma eta Trastevere

Goizean goizetik Erromatako Forora joan gara. Ez zegoen jende askorik eta oso ondo ibili gara; Arco di Tito, Saturnoren Templua ikusten, baina eguerdi partera jendez betetzen hasi da. Orduan Coliseorantz hurbiltzen hasi gara. Nahiz eta sarrerak eduki, bi orduko ilara itxaron behar izan dugu sartzeko.

Gladiadoreek borrokan egiten zuten lekua izugarritzkoa da!

Foroan atzeko aldean Circo Massimo ikusi dugu.

Koliseoa eta Roman Foroa bisitatzea oso nekagarria da; batez ere, asko ibili behar delako eta bero asko egiten duelako udan.

Egunero bezala trattoria batera joan gara jatera.

Arratsaldean, Trastevere auzora joan gara. Erromako auzorik enblematikoen da, eta bertakoak, asteburuetan, afaltzera joaten dira.

Zerbait zaila denez garraio publikoak hara iristea, ibiltzen joan gara Erromaz disfrutatuz. Bidean, Bocca de la Verita dago. Kondairak dioenez, gezurak esaten badituzu, eskua ahoan sartzen diozunean jan egingo dizu.

Gero Trasteveren eliza bat ikusi dugu, eta kalerik kale ibili gara, erosketa batzuk eginez. Neka neka eginda, taxi bat hartu dugu hoteleraino.

Asteartea, abuztuak 18: Sistina Kapera eta Vatikanoko Museoak bisita

Sarrerak internetetik hartuta eduki genituen, baina, halan ere, goizeko zortzietarako Vatikanon egon gara. Ezin da Erromatik alde egin Kapera Sixtina ikusi barik. Museoan obra ugari daude.

Bazkaldu ostean San Pedro basilikara joan gara. Ordu bi egon gara ilaran eta hirurak inguruan sartu gara eta den-dena ikusi dugu.

Geroago, kupulara igo gara. A zelako altuera! Ematen du plastikozko herri txikia dela Erroma.

Oso ondo pasatu dut Erroman, oso gustura egon naiz, baina bihar Toscanarantz joango gara.





Manex Vallejo Arginzoniz
DBH 2. maila

“Gaur egun 3D inprimagailuekin edozer sor daiteke”

LAUTADATIK KANPO

Esfera horrek egunen batean dimentsio altuagoetara bidaiatu nahiko luke.

Barkatu, non nengoen? Ah egia! Bazen behin paperezko orri baten zegoen mundua, mundu horretako biztanleak altuera eta sakonera bakarrik ikusi ahal zituzten, poligonoak ziren eta bizitza ona zuten. Emakume politenak triangeluak ziren, aldeak nire ustez, eta gizon politenak hexagonoak baina oso ondo zaindu behar zen norbera hexagonoa izateko.

Bi dimentsiotan ez zegoen kirola egiteko aukera askorik: kirol bakarrak “Ice Hockey”-en antzeko kirol bat eta “Laban Guda” izeneko beste bat. Bigarren hau guretzako txapen jolasaren antzerakoa zen: lehenengo poligonoak abiadura hartu eta bigarrena jotzen zuen, eta honek hirugarrena eta horrela bost jokalaria mugitu arte. Lehenengo jokalaria soilik mugi zitekeen eta jokoaren helburua kolpe kopuru gutxienekin helmugara heltzea zen. Horretarako etsaia zirikatu ahal zen. Alde gehien zituzten poligonoak onenak ziren kolpeak era berdintsuagoetan hartzen zituztelako angelu guztietatik.

Bi dimentsiotako dantzak oso politak ziren, batez ere dantzariak poligonoak zirelako. Kaleidoskopioa ohiko dantza bat zen, non poligonoak ispiluz beteriko gela batean sartzen baitziren eta dantza simetrikoak egiten zituzten. Ispiluetan betirainoko poligonoak ikusten ziren, batera dantza egiten, eta musikaren erritmoa jarraitzen. Baina zoritxarrez jende askok ez zuen dantza honen edertasuna ikusten, bakarrik irudipen handia zutenak.



Egun batean karratu baten etxean hutsetik zirkulu bat agertu zen, gero eta handiagoa egiten zen eta handia egin zenean gero eta txikiagoa. Benetan esfera bat zen orria zeharkatzen baina karratuak zirkulu baten bezala ikusten zuen, orrian zegoen zatia bakarrik ikusten zuelako. Karratua harrituta geratu zen, nola zen hori posible? Amets bat zirudien.

Orduan esferak dimentsio altuago batera eramango zuela esan zion, hirugarren dimentsiora.

Baina karratuak dimentsio altuagoen existentzia ukatzen zuen, eta hori ezinezkoa zela uste zuen. Orduan esferak orritik atera zuen karratua. Karratuak oso biziki erreakzionatu zuen, esperientzia hori ezin zuen ulertu eta. Karratuak ezin zuen ikusten zegoena sinetsi, handik dena ikusten zen: etxeen barrua, haien barruko poligonoak eta, arraroa zen arren, bere lagunak barruak ere! Handik kaleidoskopio dantzak benetako kaleidoskopioa zirudien, orduan karratuak ulertu zuen honen benetako edertasuna: betirako poligonoak batera musikaren erritmora mugitzen. Benetan zoragarria zen.

Orduan karratuak esferari bere lagunak zirikatatu nahi zituela esan zion baina bera ezin zen handiagotu eta txikiagotu, esferaren bezala, hortaz, esferak kubo bihurtu zuen karratua eta honek puntarekin zeharkatu zuen orria. Hango poligonoek triangelu bat hutsetik agertzen ikusi zutenean benetan harrituta geratu ziren eta kuboak barrezka hasi zen. Baina laster deitu zioten poliziari eta iskanbila itzela sortu zen. Zorionez kuboak laster joan zen eta apur bat errudun sentitzen zen arren bizkor pasatu zitzaion.

Esferak kuboari esan zion hirugarren dimentsioan dagoen askatasunarekin esperimentatzeko, orain askoz askeagoa zen eta, kuboak biraka hasi zen, posizio posible guztiak frogatu zituen; lehengo askatasunaren aldean jarrita hori benetako askatasuna zen. Lehen modu batean soilik bira zitekeen, baina orain bi modu berri zituen eta hauek nahasita askoz ere gehiago. Esferak orduan inoiz ahaztuko ez zuen irakaspena eman zion: zure askatasun maila zuk jartzen duzu, benetan bakarrik ahalko zenuke orritik atera eta kubo bihurtu. Baina ez zenuen inoiz pentsatu, ezta saiatu ere.



Orain hirugarren dimentsioa ulertzen duzula, zeu bakarrik aska zaitezke matrize honetatik, eta aske sentitu.

Orduan kuboak esfera dimentsio altuagoetara eraman zezakeen galdetu zion: eta laugarren dimentsioa? Eta bosgarrena? 1., 2. eta 3. dimentsioak bazeuden, agian nahi bezainbeste dimentsio zeuden.

Baina esferak dimentsio altuagoen existentzia ukatzen zuen eta tristerik kuboak karratu bihurtu eta bere orrira bueltatu zuen.

Esferak, orain arte berezia sentitzen zenak, dimentsio altuagoez hitz egitean bere ahalera zalantzan jarri zuen eta oso triste sentitu zen. Orduan pentsatzen geratu zen eta karratuari egin ziona lau dimentsiotako esfera batek egin ziezaiokeen berari.

Esfera horrek egunen batean dimentsio altuagoetara bidaiatu nahiko luke. Laugarren dimentsiora irtetea eta honen natura ulertzea. Baina hori gertatu arte hiru dimentsio aspergarrietan bizi beharko da.





Maria Armaolea Elexgarai

DBH 2. maila

“Jadanik, haurtzaroko bide honetatik ez dabil inor, ilunabarra izan ezik”

GAUEKO OROITZAPENAK

Zerua haserre dago; hodeiez egindako olatuz beteriko itsasoa dirudi. Ilunabarrak karriketako ertz ilunen barrenean galdu ditu eguzki-izpiak. Kale-argiak zingira beltzetako ipurtargiak dira, azken argi-izpien iturri. Etxeetako leihatiletan, argi epelean mugitzen diren itzalek familia zoriontsuen afaria erakusten dute. Abesti bateko notak balira bezala, pausuka jausten diren teilatueta itoginak, lurzoruko putzuetan desagertzen dira. Zurezko bankuak auzoko zaindari dira, oroiminez begiratzen dituzte inguruneak, norbait jesartzeko itxaropenez. Lumoko altueratik mundua nire eskuetan dudala sentitzen dut. Gernikak zerumugan galtzen den izarrez jositako maindirea dirudi. Txikia naiz: nire oinek ez dute lurra ukitzen, zintzilika daude airean aurrera



atzera mugituz; nire haurtzarotik banatzen nauten sokak apurtu dituzte, ahaztutakoa astinduz, gogoratzen hasi naizen arte:

- Markel! Ez ahaztu hamaiketakoa hartzea. Sagar bat sartu dizut motxilan -musu bat eman zidan bekokian- Tira! Joan zaitez bizkor, lagunek alde egingo dizute-eta!

Buruan nituen amaren hitzak. Lagunei buruz hitz egiten zidanean ilea tente jartzen zitzaidan. Ez nituen asko, egia esanda. Ahaztu nahian, bidean irakurtzen hasi nintzen hormonei buruzko liburu bat. Goiz hartan erositakoa zen gure auzoko liburudendan, amari ezer esan gabe. Ez nuen kezkatu nahi, baina nire altuerak oso urduri jartzen ninduen, eta ea hasiko nintzen jakin nahi nuen. Liburuko aurkibidea irakurtzen nengoela...

- Ia hemen... hormonak, elikadura, kirola...hemen! Altuera!- jauzi egin nuen emozioz, baina aldi berean zerbaitekin estropezu egitea suertatu zitzaidan. Mikel zen, institutuko mutilik altuena, pausu batez elefanteak izutzen zituen.

- Zertan ari zara, ume moko hori? Ez al dakizu aurrera begiratzen?

- Ba...barkatu. Nahi gabe izan da -kontu hori amaitutzat emanda, aurrera jarraitu nuen-.

- Zu! Nora zoaz? Etor zaitez hona eta emadazu liburua! -begirada maltzur bat bota zidan, ondo baino hobeto baitzekien zer zen liburu hura-.

Beldurturik nengoenek, liburua eman nion, inori ez erakusteko eskatuz. Kokolo samarra izan nintzen hori esaterakoan, eta ideia paregabea eskaini nion Mikeli.

Jatordua heltzerakoan, Mikelek institutuko ikasle guztiak elkartu zituen. Mahai gainean zutundu zen eta hitzaldi bat ematera joango balitz bezala, bere burua aurkezten hasi zen:

- Denok dakizuenez, Mikel naiz, futbol taldeko kapitaina eta...-hizketan jarraitu baino lehen, niri begiratu zidan-. Baina gaur ez nator nor naizen azaltzeko, gaur, Markel dugu batzarreko protagonista.

Bere hitzak entzuterakoan kikilduta geratu nintzen, ezustean harrapatutako kideen begirada soinean nuela.

- Lotsati hutsa denez, nik neuk kontatuko dizuet bere sekretutxoak -geldiune bat egin zuen, nire sufrimendu aurpegian erreparatzeko-. Beno...Markel oso baxua da, baina hori ez da sekretua, denok dakigu-eta! -barrez lehertu ziren bera eta bere lekaioak-.

Markelen iraina ikaskideen barre algaren arrazoi zenez, Mikelek gogotsu segitu zuen:

- Eta gaur goizean ikusi dudanez...berak ere badaki, arkatx baten ondoan txiki geratzen dela! -berriz ere barreak nagusitu ziren jantokian-. Hona hemen bere liburu magikoa: *Nerabeen gora beherak!* -liburua utzi zien bere inguruko gazteei, eta zurrumurruak jendetzaren artean zabaltzen hasi zirenean, Mikelen zainak bozkario sentimenduak barreiatu zituen. Bazirudien nire sufrimenduaz ikaragarri gozatzen zuela-.

Alde egin nahi nuen berehala. Ez nuen indarrik ezta gogorik beraien jokoan parte hartzeko. Motxila soinean jarri eta inori begietara begiratu gabe, ate aurrean zeuden eskaileretarantz abiatu nintzenean, hamaiketako sagarra erori zitzaidan lurrera.

- Tori. Ez ezazu jaramonik egin Mikelen hitzei -Lu Txing makurturik zegoen, sagarra eskuan zuela. Gaua bezain ile beltza sorbalden gainetik erortzen zitzaion eta elurra bezain zuria eta garbia zen aurpegiko azala estaltzen zuen, keinu lotsati bat agerian utziz-.
- Eskerrik asko, Lu -sagarra eskuetatik kendu nion, irribarre zintzo batekin eskerrak ematen nizkion bitartean-.

Hala ere, Luri nire erantzuna ez zitzaion nahikoa iruditu. Eskailera zaharretako egurraren karraskak nire nahigabea islatzen zuen. Pausu gogorrez zapaltzen nituen eskaileretako mailak, barruan gordeta nuen mina kanporatzeko. Gero eta gorago nindoan, eta noizbehinka beheko solairuari so egiten nion. Bihozmina eragin zidan dena atzean utzi nuela egiaztatzeak, eta estutasun sentipenak alde egin zuen. Eraikuntzaren goialdean, aire librean zegoen teilatu laua ikusi nuen. Krabelinen lorontzi gorri eta urdinak zeuden atzeko adreiluzko horman eskegita; urrunetik margo tantak ziruditen kolorezko ukitua ematen ziotenak tokiari. Isiltasuna zen nagusi solairu hartan; zuhaitzetan estalpetzen ziren txolarreen kantuak ziren ingurunea apaintzen zuten doinu bakarra. Behealdean, mendialdeko padura begizta zitekeen: paisaia zuriz margotzen zuten zuhaitzez estalirik zegoen. Gereziondoek lurzoruko hodeiak ziruditen, kotoi puzka erraldoiak elkarren ondoan jarrita. Goxotasunez janzten zituzten mendiak eta lasaitasun usaina jariatzen zuten airean. Turkesa leun batez koloreztatutako eserleketan eseri nintzen, begiak zarratu eta...

- Markel?-ahots hura ezaguna egin zitzaidan.
- Berriz ere zu? -Lu Txing ikusi nuenean, saihestezina izan zen irriño egitea. Neska atsegina zen dudarik gabe, gau eta egun aritzen zen jendeari bost axola zitzaien bidegabekeriei konponbidea bilatzen-.
- Eskaileretan sagarra erori zaizu berriz ere -eskuan zuen sagar eder bat erakutsi zidan, gorri distiratsudun fruitu ezin hobea-.

Hura ez zen nire sagarra. Motxilan nuen nirea oraindik, baina oso itxura ona zuenez, haginkada bat eman nion gozoki natural hari, zaporea guztiz dastatu nahian. Baina ahoan mingainarekin dantzan zebilen zati hari ez nion gustu onik hartu: gogorregia zen eta ez zuen ur kantitate nahikorik. Lu Ching aurrean nuen, nire keinuak behatzen, sagarra gustuko ez nuela jakingo balu bezala.

- Nire amonak dioenez, askotan, sagarrik galantenak, gorrienak, ederrenak, barruko gogortasuna ezkutatzen duten azalez estalita daude. Berarekin fruitu-dendara noanean, bazter batean ezkutaturiko sagar berde horixkak hartzen ditugu, sarritan orban marroiak dituztenak. Dendariek ez dituzte inoiz erakusleihoan jartzen, pertsonok begiekin epaitzen ditugulako: bai sagarrak, baita gizakiak ere. Baina sagarraren mamia, ez da azalaren araberakoa. Amonak eta biok hartzen ditugun fruitu hori eta marroixkak, gozoak eta freskagarriak dira. Pertsonekin ere berdina gertatzen da: itxura dugu barnean ezkutatzen dugunaren estalki, batzuek urrezko estalkia dute, gure begiak asetzen dituen geruza, eta horren arabera jokutzen dugu haiekin -hitz egiteari utzi zion eta nigana gehiago hurbildu zen-.
- Eta gure estalkia itxura dela diozu? -jakinguraz galdetu nion bere erantzunaren zain-.

- Batzuetan bai, baina ez beti. Gure estalkia, gu benetan garena ezkutatzen duen gezurra izan daiteke -une batez eten txiki bat egin eta paisaia miresgarriari erreparatu zion hizketan jarraitu aurretik-. Begira ezazu... Mikel haurra zenean, mutiko jatorra zen, baina arrazoi batengatik, nerabezarora heltzerakoan, guztiz aldatu zen. Beldur da: bere izaeraren parte den zerbait erakustearen beldur. Besteek zer esango duten pentsatzean, koldarkeriak bereganatu egiten du gauzak dauden bezala jarrai dezaten. Ez dio aurre egiten ausardiaz jokatzuz, nahiago du zu zirikatu indartsu sentitzeko eta bere beldurra ezkutatzeke -begirada sarkorra luzatu zidan-.

Nik ere hala egin nuen, eta bere begi beltzetan nire isla ikustean, ez nuen sumatu minutu batzuk arinago ikusten nuen “arazoa”.

Harrezkero, urteak aurrera joan ahala, heldutasuna etorri zitzaidan. Altuerari dagokionez ez nuen nabaritu aldaketarik, baina mundua behatzeko erabiltzen nituen betaurrekoak berriak ziren.

.....

Pausu batek, iraganeko irudiak berriz ere nahasi dizkit eta gaurko egunera bueltan ekarri nau.

Besarkada batek sama inguratzen didala sentitu dut. Buelta erdi eman eta musu bat jaso dut ezpainetan.

Nire ondoan jesartzean, berehala bota diot zoriontsu:
- Zugar pentsatzen ari nintzen, Mikel.



Koldobika Puente Frias

DBH 2. maila

“Orotariko kirolak egitea gustuko dut eta nire denbora librean mendian arnasa sakon hartzea”

MUNDUA UTZITA, DATORKIZUNA EZIN JAKIN

Galduta nengoen, ez neukan zereginik, nireak egin zuen. Segika neuzkan bizpahiru lagun eta kale kantoi batetara iristen ari ginen poliki-poliki. Pauso bakoitzeko arriskutik geroz eta hurbilago nengoen eta azkenean “zart!” alde batetik eta “zart!” bestetik, jo eta han utzi ninduten lurrean botata, ezer egin ezinik. Etxera itzultzerakoan, hausnarketa sakon baten ondoren konturatu nintzen niri bullying-a egiten ari zirela.

Hurrengo egunean, ikastolara joan nintzen, han gure ametsak zein ziren galdetu ziguten eta nire txanda iristean, nik nire ametsak asmakaria izatea eta hegan egin ahal izatea zirela erantzun nuen; orduantxe denak barre algaraka hasi ziren, ni horrek ez ninduen harritu. Ni benetan harritu ninduen andereñoa ere barrezka hasi zela izan zen. Etsita nengoen, denak nire bizkar barrezka zebiltzan eta ez nekien zer egin, lotsa gorriturik nengoen.

Etxera itzultzerakoan pentsatzen jarri nintzen, ea zer zuen txarrik asmakari izateak edo hegan egin ahal izateak. Tira, niri horrek ez zidan axola, nire ametsak horiek ziren eta ziur nengoen egia bihurtu zitezkeela.

Egunero-egunero neuzkan atzetik zenbait lagun, haiek harrapariak eta ni harrapakina banintz bezala. Baina nik ez nuen amore ematen, banekielako nire etorkizuna askoz hobea izango zela, nire ametsak bete zitezkeelako.

Denbora joan, denbora etorri, 16 urte bete nituen eta irrikan nengoen ikastola uzteko, alde batetik, batxilergoan lagun berriak egingo nituelako, eta beste alde batetik, nire ametsa egia bihurtzeko pauso handi bat izan zitekelako. Nik, ikasgai modura, marrazketa tekniko, teknologia eta matematika aukeratu nituen.

Lehenengo eguna iritsi zen, irrikan nengoen geroa aurkitzeko eta iragana guztiz ahazteko. Institutuan sartu bezain laster, jendea agurtzen hasi nintzen txirrina jotzera arte eta orduantxe gure geletara eraman gintuzten irakasleek. Gero, gelakideok elkar ezagutu genuen eta ni batzuen lagun egin nintzen. Klaseak bukatutakoan, etxera jo nuen eta segituan gure lehen azterketarako ikasteari ekin nion, buru-belarri. Ikasturtean zehar ez nuen arazorik izan inorekin eta pozarren nengoen horrekin, oso nota onak atera nituen eta jada pentsatuta neukan gutxi gora-behera nire etorkizuna.

Batxilergoko lehen hiruhilekoa amaitu zen eta kurtsoko lehen oporrak jasotzeko garaia zen. Elurra ari zuen eta ume guztiak kalean zebiltzan lerarekin ederki pasatzen. Geroxeago, elurra hasi zuen mara-mara eta aterpera joan behar izan nuen, ez hozteko. Aterpe hartan, hiruzpalau lagun aurkitzen ziren eta jolas batekin zebiltzan, grabitatearen aurkako jolas batekin alegia, tramankuluaren azpian eskua jarritz gero, gorantz egiten zuen. Ondoren, ea tramankulu hori non erosi zuten galdetu nien eta haiek “Juguetos”-en erosi zutela erantzun zidaten. Burutazio ederra otu zitzaidan benetan.

Olentzeroren egunerako jolas hura eskatu nuen eta azkenean erosi egin zidaten tematu egin nintzelako eta nahiko nota onak atera nituelako. Opari hura ireki bezain laster hasi nintzen ikertzen, ea zerez eginga zegoen ikusteko. Gailu horren barnean, gauza arraro bat zegoen, zilindro formakoa. Hori zen nire ametsa egia bihurtzeko behar nuen gakoa, baina arazo bat zegoen. Arazoa, horrelako lau beharko nituela zen eta bat baino ez neukala, momentuz.

Oporrak amaitzear zeuden eta nire urtebetetze eguna heltzear, hala ere, ez nuen utzi ahaztuta ametsaren kontu hori. Hortaz, gurasoei grabitatearen aurkako beste jolas bat eskatzea otu zitzaidan eta azkenean hala egin nuen, baina lehenengo tramankulu hura apurtu egin zela esan nuen.

Nire urtebetetze eguna iritsi zen eta nire eskari hari baietza eman zioten, baina baldintza bakar batekin. Baldintza hori zera zen, jada heldu bilakatzen ari nintzenez eta urtebete barru 18 urte beteko nituenez, nik neuk erosi beharko nituela gainontzeko opariak. Tira, nik baldintza horri ez nion kasu askorik egin, baina onartu egin nuen.

Ez nuen uste batxilergoa hain zaila izango zenik; horren ondorioz ikasketetan zentratu behar izan nintzen eta ametsaren kontu hori alde batera utzi, gogoz kontra bazen ere.

Denboraren poderioz konturatu nintzen, hoberena nire ametsa egia bihurtzeko behar nituen beste bi gailu haiek erosteko dirua aurrezten hastea izango zela, 100€ hain zuzen ere. Horrela, ez nuen utzi beharko alde batera ametsaren kontu hori.

Denbora arin igaro zen eta konturatu orduko batxilergoa utzi behar izan nuen. Laurogei euro neuzkan aurreztuta dagoeneko. Dudatan nengoen, ez nekien zer egin, buruko mina neukan, zenbat ahalegin ezertarako. Ez nekien zer aukeratu, unibertsitatara joan ala ez, unibertsitatara banindoan gauza asko ikasiko nituen eta ez nuen edukiko

denborarik nire gauzetarako, baina joan ezean ez nuke zipitzik ere ikasiko, gauza interesgarriak jakiteko aukera galduz eta munduko denbora guztia edukiko nuke edozertarako. Azkenean, zama guzti hori gainetik kenduz unibertsitatera joatea erabaki nuen.

Kosta egin zitzaidan pixka bat aukeratzen zer karrera egin nezakeen eta azkenean “Ingeniería en Construcción” aukeratzea bururatu zitzaidan. Ez zen prezio handikoa eta, gainera, ondo zetorkidan, nire ametsa aurrera eramateko.

Unibertsitatean ez nuen arazo handirik izan ikaskideekin eta ikasketekin gutxiago oraindik. Behin, proiektu interesgarri bat suertatu zitzaigun. Mundu mailako txapelketa batetara aurkeztar geunden, hunkigarria zen, sinestezina benetan, harrigarria. Hura zen nire aukera, bakarkako txapelketa zen gainera, ezin nuen sinetsi. Berri hura jaso orduko hasi nintzen lanean, materiala eskura neukan dagoeneko, grabitatearen aurkako beste bi gailu haiek erostea besterik ez zitzaidan falta, dirua soberan bainuen.

Erosi bezain laster lanean hasi nintzen buru belarri. Lehenik, gailu haiei zilindro itxurako gauza hori kendu, gero hanketan eta eskuetan itsatsi, ondoren horien azpian burdinazko xafla bat jarri zintzilik eta azkenik jolasa piztu eta konturatu orduko hegan egitea lortu nuen. Hori lortu ondoren, lekuz mugitu nahi baduzu mugitu burdinazko xafla alde batera edo bestera eta norabidez aldatuko zara.

Tira, dena prest zegoen lehiaketarako, izenaren faltan nengoen, hori zen falta zitzaidan gauza bakarra. Nire asmakizun berria airean ibiltzeko zen, hegan egiteko, beraz, “aero-gailua” izenez deitzea erabaki nuen. Denbora asko falta zen lehiaketarako eta amaitzeko, ukitu batzuk egitea erabaki nuen, apainketak edo horrelako gauzak.

Egun handi hura iristear zegoen eta ni irrika bizi az itotzear. Urduri egon nintzen egun guztian zehar, baita gauzez ere eta ezin izan nuen lorik egin. Lehiaketa Madrilen zen, beraz, trena hartu beharko nuen lehiaketara aurkezteko. Azkenik, egun handia iritsi zen, hunkigarria benetan. Hoberena, asmakizuna aurkeztu baino lehen, probatzea izango zela pentsatu nuen eta... hara! nire ametsa bete zen azkenean, lortu nuen nik nahi zuena kostata izan bazen ere. Tira, horren guztiaren ostean, arineketan tren geltokira abiatu nintzen. Han trena hartu eta hiru orduko bidaiaren ostean, Madrilera heldu ginen.

Bostehun bat lagun aurkeztu ziren lehiaketara, ni barne. Bizpahiru ordu igaro genituen asmakizunak aurkezten eta azkenean heldu zen denok desiratzen genuen une hunkigarria, sari-banaketa hain zuzen ere. Denok geunden hika-mika, eszenatokian andere bat agertu zen arte. Momentu hartan isiltasuna izan zen nagusi, ez zen ezer entzuten, leihoetatik sartzen zen haizearen oihartzunaz gain. Geroxeago, Andre hark sariak banatzeari ekin zion, maila asko zeuden, gaztetxoek mailatik helduen mailaraino. Ni helduen mailan nengoen eta horren ondorioz, oso urduri jarri nintzen. Azkenik, nire mailako sariak banatzen hasi zen, ezin nion urduritasunari eutsi, emozionatuta nengoen. Lehenik, hirugarren saria eman zuen, gero bigarrena, ez nuen nire izenik entzuten eta burumakur geratzen ari nintzen, goibeltzen ari nintzen. Baina, bat batean burua altxatu zitzaidan, Lurra meteorito erraldoi batetik salbatuko balitz bezala. Nire izena esan ez zuen ba, lehenengo saria lortu nuen! Sinistu ezinik nengoen oraindik, lehenengo saria, benetan. Segituan, eszenatokira igo nintzen eta saria jaso bezain laster, pozaren pozez,

malkoak erori zitzaizkidan. Momentu hartan hitz gabe geratu nintzen, mihia katuak jan balit bezala.

Etxera itzultzerakoan, gertatutako guztia kontatu nien gurasoei, mundu mailako lehiaketa batean lehenengo geratu nintzela, alegia. Hasieran ez zidaten sinetsi, baina “Nobel Saria” erakusterakoan bai, zur eta lur geratu baitziren.

Unibertsitateko ikasketak amaitu nituenean, lanbide bat aukeratzen hasi behar izan nuen eta hausnarketa sakon baten ostean, asmakari izatea pentsatu nuen, aldi berean enpresa bat sortuz, baina horretarako dirua beharko nuen eta nire lehen asmakizuna salgai jartzea bururatu zitzaidan, “aero-gailua”. Bi asteren buruan, izugarrizko arrakasta lortu zuen eta dirutza handia lortu nuen. Diru horrekin, enpresaren plana martxan jarri nuen. Enpresa, jendeak proposatutako ideietan oinarritzen zen, hots, norbaitek asmakizun bat proposatu eta guk sortu egin beharko egin genuen. Behin, denbora makina asmatzea proposatu zuten eta guk ez genien ezetzik esan, denbora asko beharko bagenuen ere. Zerbait bururatu zitzaidan. Dena sateliteekin grabatu eta, hainbat menderen ondoren, sateliteekin grabatutako leku haietara joan ahalko ginen. Enpresak itzelezko arrakasta izan zuen eta oso ezaguna izan zen munduan zehar.

Oraindik gogoan nituen jendeak nire bizkar egindako barreak. Tira, baina barre hauek norenak izan beharko zitezkeen?



Uxue Vallejo Termino

DBH 2. maila

“Barre egin gabeko egun bat, galdutako egun bat”

EGIPTO, PIRAMIDEAK BAINO GEHIAGO!

**2016ko ekainaren 5a
Bidaia hasteko prest!**

Gaur ateko txirrinak esnatu nau. Altxatu eta gero, atearen aurrean nengoela zirritutik begiratzean pakete bat ikusi dut. Pentsatu dut mezulariak prisa izango zuela zeren ez zegoen. Hartu eta etxeko sukaldera eraman dut. Hor mahai gainean utzi eta hura aztertzen hasi naiz. Segituan ikusi dut “breakable” jartzen zuen eranskailu bat. Ondoren Ingalaterratik zetorrela ohartu naiz eta urduritasunak ahal ninduenek ireki egin behar izan dut. Barruan mezu bat eta objektu bat zeuden. Lehenengo mezua irakurri dut eta hurrengo hau jartzen zuen.

“Kaixo Nagore:

Heily Black naiz, barkatu eragozpenak baina proiektu batean nago murgildurik eta niri pixka bat laguntzea gustatuko litzaidake. Apur bat azalduko dizut zeri buruz doan: Paketea duzun objektua Amon jainko egiptoarraren koroaren zati bat da eta hiru dira, baina Egipto osotik daude barreiatuta beste bi zatiak. Laguntza behar dut topatzeko eta eskuratzeko galduta dauden zatiak, uztailearen 17an ‘Egiptoko esposizioa’ hasiko delako Londreseko ‘British Museum’-ean. Mezu honekin bi txartel bidaltzen dizkizut hegazkinerako. Ekainaren 6an ez bazaudete Egiptoko aireportuan, nik bakarrik jarraituko dut espedizioa. Mesedez etorri, zuen laguntza behar dut.

Heily.”

Mezua irakurri ondoren, koroaren zatia atera dut paketetik eta begiratzen hasi naiz. Oso interesgarria iruditu zait Heilyk egindako proposamena eta horregatik onartu dut. Lagun bat behar nuenek joateko, Sarari deitu diot nirekin egiten duelako lan

Bizkaiko arkeologia zentroan. Eskea onartzen zuela esan dit eta hegaldia 17:00etan zenez 14.00etan geratu gara behar genuen guztiarekin autobus geltokian, pentsatu dugulako hobe izango zela autobusez joatea aireportura. Autobusean muntatuta geundela, koroaren zatia erakutsi diot eta harrituta geratu da.

Aireportuan txartelak fakturatu ondoren eta maletak utzi eta gero, zerbait jan dugu tabernatxoan eta bukatzean hegazkinean sartu gara. Bidaian lo egitea aukeratu dugu denbora arinago pasatzeko eta horrela gertatu da...

2016ko ekainaren 6a Egipto miresgarria!

Gaur heldu gara Egiptora. Hegazkinetik irtendakoan ikusi dugu Heily. Bere izena zuen kartel handi batekin zegoen. Berarengana hurbildu eta aurkeztu egin gara. Ez geneukanez denbora askorik, autoan sartu eta bere etxerantz abiatu gara. Bidaian gehiago azaldu digu proiektuari buruz eta gaur bertan hasiko ginela bigarren zatia topatzen esan digu.

Etxera heltzean, behar genituen gauzak hartu eta Karnakeko tenplura abiatu gara, barruan Amon-en tenplu bat dagoelako. Hantxe geundela guztia ikusten egon gara eta gehien harritu gaituena zutabeak izan dira, erraldoiak ziren! Zutabeetan hieroglifikoak agertzen zirenez, ebazten hasi gara eta batek gure arreta bereganatu du, hurrengo jartzen zuen: *“Amonen koroaren zatia lortu nahi baduzu, zutabe guztietan dauden zenbakiak aurkitu eta guztiak gehituta irteten zaizun zenbakiko zifrak gehituz, ze zutabe den jakingo duzu”*. Heilyk eta nik 35 zutabe ikusi ditugu, Sarak aldiz 34, guztiak gehituta 532 zenbakia geneukan, zifrak gehituta 9. Bederatzigarren zutabera joan gara eta guztiz aztertu ondoren irtengune bat zegoela ikusi dugu, ukitu eta barrurantz sartu da. 3 segundora koroaren zatia irten da lurreko lauza batetik. Sarak hartu du eta bestearekin jarri dugu ikusteko ahokatzten zuen eta horrela izan da. Nekatuta geundenez Heilyren etxera joan gara deskantsatzera eta lo egitera.

2016ko ekainaren 9a: Bigarren zatiaren bila!

Gaur azkeneko zatiaren bila aritu gara Hatshepsut-en tenpluan. Zulo guztietatik topatu ondoren, 2. pisuko zuloetako batean irtengune oso txiki bat ikusi dugu eta horregatik barrurantz sartu dugu baina ez zuen ezer egiten. Pentsatzen egon ondoren berriro aztertu dugu eta hauetako batean beste irtengune bat ikusi dugu, sakatu egin dugu eta ezer ere ez, horregatik biak batera sakatu ditugu baina ez! Azkenean oso etsita geundenez hormaren kontra jarri gara eta pixka bat mugitu gara, orduan, puf! Lauza batetik irten da falta zitzaigun koroaren zatia!!

Turismo pixka bat egin nahi genuen baina pentsatu dugu hobe izango zela etxera joatea, zatia seguruago egoteko eta hurrengo egunetan egitea turismoa.

2016ko ekainaren 13a: Guztia eginda eta buelta etxera!

Azken egun hauetan Sarak eta nik turismo pixka bat egin dugu, Heily zatiak garbitzen eta ondo dauden konprobatzen zegoen bitartean. Gaur Londresera joan gara Heilyrekin eta British Museum-ean utzi ditugu zatiak. Hortik Sarak eta nik hegazkin bat hartu dugu etxera bueltatzeko eta Egiptora bueltatuko ginela pentsatu dugu.



Maider Aberasturi Arruti
DBH 3. maila

“Euskara, mundua ezagutzeko beste hizkuntza bat da.
Ausart zaitez eta ikas ezazu”

INOIZ EZ ETSI!

Bertan nago nire gurpil aulkiarekin saskira korrikan, azken minutuan kanasta bat sartu ahal izateko eta partidua irabazteko, baina ez dakit garaiz iritsiko naizen...

Beno, istorio hau ez da hemendik hasten, hile batzuk atzera egin beharko genuke.

Egunero – egunero bezala gimnasioan nengoen entrenatzen zeren eta saskibaloia jokalaria bikaina nintzen eta hurrengo astean NBA ligan jokatzeko probak nituen. Nik asko exijitzen nion nire buruari zeren eta banekien denok eman ahal dugula ematen duguna baino gehiago eta nire amets bakarra NBAn jokatzeko zen eta partida irabaztea, noski.

Egunak joan egunak etorri, aste bat pasatu zen eta probak egitera joan behar nintzen. Ahal nuen guztia baino gehiago eman nuen, baina ez nekien hartuko ninduten zeren eta jokalaria bikain asko zeuden bertan. Probak egin eta gero bertako entrenatzaileak esan zidan etorkizun distiratsua nuela saskibaloian, baina horrek ez zuen esan nahi ni hartzea erabaki zutenik.

Dutxatu eta arropak aldatu ondoren, etxera joateko ordua iritsi zen. Nire ama autoan zegoen itxaroten eta korrika joan nintzen beregana. Autoan sartu eta etxerantz abiatu ginen. Etxeko bidean, nire amarekin nengoela hizketan, bat batean kamioi batek txirrista egin zuen eta gure aurka jo zen.

Gogoratzen nuen hurrengo da ospitale bateko gelan esnatu nintzela. Nire ama ondo zegoen, bakarrik golpe batzuk zituen, baina ni nahiko txarto nengoen. Buruan golpe pila bat nituen eta eskuineko oina apurtuta eta mugimendu barik neukan; ezkerrekoan berriz fraktura bat neukan. Orduan zer gertatuko zen nire etorkizun

distiratsurekin? Ahalko nuen jolastu berriz ere saskibaloira? Galdera asko nituen nire buruan zeren saskibaloia zen nire bizi guztia, baina medikuak argi utzi zidan ezin izango nuela berriz saskibaloira jolastu.

Eskuineko oinetik operatu ninduten eta femurrean burdin zati bat sartu zidaten, baina hala eta guzti ezin nuen oina mugitu, orduan nire amets bakarra hautsi egin zen. Erreabilitazioa egin behar nuen oinek zuten indarra ez galtzeko eta bertan praktketan zegoen neska gazte eta eder batek lagundu zidan. Egun asko pasatu nituen neska horrekin eta azkenean lagunak egin ginen. Nire saskibaloiko istorioa kontatu nion eta berak animatu egin ninduen bertako elbarrituen saskibaloit taldera apuntatzeko. Baina ni oso triste nengoen eta ez nuen jakin nahi ezer saskibaloitari buruz, nire saskibaloit ametsa apurtuta zegoelako.

Egunak pasatu ahala poztasun gehiagorekin nengoen eta elbarrituen saskibaloit taldera apuntatzea erabaki nuen. Berriz ere errekupeatu nituen saskibaloit jokalaria bikaina izateko esperantzak, nahiz eta gurpil aulki batean egon. Eta berriz ere maitatzen nuen saskibaloia, istripua izan baino lehen maitatzen nuen bezala.

Beno, eta hemen nago, ligako finalean gurpil aulkiarekin saskira korrika azken minutuan, baina ez dakit garaiz iritsiko naizen. Zuk zer uste duzu, garaiz iritsiko naizela eta partida irabaziko dugula ala ez? Ba bai, garaiz heldu naiz eta ligako txapeldunak gara.



Aitor Jauregi Gezuraga
DBH 3. maila

“Zoritxarretik ihesean Euskal Herrira berriro itzuli”

BIZITZAREN GORA BEHERAK

Bazen behin herri txiki bat basoz eta erreka inguratua Euskal Herriaren barnean, Urdaibairen bihotzean, Murueta deiturikoa. Bertan jende langile eta adoretua bizi zen.

1937. urtean Gernikako bonbardaketa jasan zuten. Gure protagonistak hamar urte zituen orduan.

Astelehena zen, merkatu eguna, Ramon hagineko minarekin zegoen eta bere amarekin dentistarenera joan zen Gernikara. Beldurtuta zihoan, lehen aldiz dentista bisitatzen zuelako, jakin gabe zetorrena askoz ere txarragoa izango zela.

Gernikara heldu zirenean, gertakizun latzak hasi ziren: sirena hotzak eta bonbardaketak, denak korrika noraezean...

Ramon, mutil koskorra ere arrapaladan hasi zen, noraezean, denak beldurturik zeudenez, nire aitona izango zena despistatu egin zen, amari deiadarka hasi zen baina zegoen zalapartarekin inork ezin entzun! Ezezagun batzuk hartu eta gaur egun turismo bulegoa dagoen babesleku batera eraman zuten.



Baina mutiltxoa urduri zegoen bere ama ez zuelako ikusten bertan. Babesleikutik alde egin zuen amaren bila; eskerrak ihes egin zuela! Zeren gordeleku hura bonbardatua izan zen eta bertan zegoen jende asko hil egin zen. Estu eta larri ibili zen Ramon, ikusten zituen guztiei bere amagatik galdezka.

Azkenean, Txorraburu auzotik aurkitu zuen. Muruetarantz abiatu ziren oinez. Foru aldera heldu zirenean, hildakoak ikusi zituen erreka ertzean. Triste eta beldurturik sentitu zen. Errealitatea latza zen baina aurrera egin behar. Ama hurbildu egin zen ia baten bat bizirik zegoen. Baina ez zen hala izan. Zoritxarrez hildakoen artean bere lehengusu mundakarra ikusi zuen!!! Atsekabetuta negarrari eman zion, bideari jarraitu zioten, ez baitzegoen ezer egitekorik.

Amak mutikoa eskutik gogor helduta zeraman eta etxera heldu zirenean eskua sentipen barik zeukan. Egun haietan ezbehar asko gertatu ziren, bi aldeetako soldaduak baserritik pasatzen ziren eta beraien ortuariak eta abereak hartzen zituzten baimenik gabe. Une latzak bizi zituzten sei neba-arrebek, hala ere umeak zirenez jolas tarteak ere izaten zituzten eta irudimenarekin edozer egin ahal zuten.

Gorriak ikusi zituzten, gosea ere batzuetan. Taloa eta esnea jaten zuten gehienbat; urdaiazpiko zatitxo bat edo txokolate atal bat zegoenean bolanderak botatzeko eran jartzen ziren pozaren pozez.

Oilasko ederrak hazten zituzten baina baserrian ez ziren jaten, ederrenak Santo Tomaseko azokara eramaten zituzten saltzeko, bertan lortzen zuten diru apurrarekin jantziak eta alpargatak erosten zituztelarik.

Urte gogorrak izan ziren: beste anaia bat ere jaio zen, zazpi neba-arreba eta behar izan ugari. Ramonek helduen moduan egiten zuen lan, gainera mutiletatik nagusiena zenez, baserriko lan neketsuenak ere lepoan hartu behar izan zituen.

Eskola gutxi eta lan asko. Dirua irabaztea zaila zen; urteak aurrera zihoazen baina egoera larria zen. Fabrika batzuk sortu ziren, baina diru gutxi irabazten zen. Ramonek lanari ez zion beldurrik eta Australia deituriko urruneko herrialde baten lan eskaintza ugari eta bapo ordaindua zegoenaren berri izan zuen.

1958. urtean Australiarantz abiatu zen, poltsikoak hutsik baina ilusioz beterik. Bere lehen hegaldia 29 ordukoa izan zen, 40 mila pezeta ordainduta. Australian bere koinatua zegoen lanean eta Ramoni lana aurkitzen lagundu zion bertako azukre kanabera plantazio batean.

Lan neketsua, zenbat eta kanabera gehiago ebakitzea hobe ordainduta zegoenez, Ramonek orduak ematen zituen atsedetik ere hartu gabe, azken dolarra aurreztu nahian.

Bost urte igaro zituen bertan, italiarrekin bizikidetzan. Diru mordoak egin zuenean, Euskal-Herrira bueltatu zen itsasontziz. Hilabeteko bidaia portuz portu; bost solairuko itsasontzia zen eta orduko 18 milia egiten zituen.

Bidaia luzea eta neketsua, eta zerbait egitearren orduak igarotzeko, egunero karta jokoan aritzen ziren italiarren aurka. Italiarrek beraien trikimailuak ez antzemateko,

euskaraz hitz egiten zuten, eta horrela eguneko garagardoak debalde lortzen zituzten. Sasoi hartako bost mila hogەرleko ordaindu zuen itsasontziko txartelarengatik.

Napoleseko portutik irtetzeko arazo izugarriak izan zituzten; ekaitz izugarria jasan zuten, baina kapitainak izan zuen abileziaz guzti horiek onik libratu zituzten eta Genovara heldu ziren. Bertatik irten eta bere Euskal Herri maitera heltzean, denak pozaren pozen jarri ziren.

Aurrerantzean gauzak hoberantz joan ziren, Foruko jaietan bere bizitzako emakumea ezagutu zuen, elkarrekin dantzatu zutenean bien arteko maitasuna sortu zen. Bost urte elkarrekin ezkongai ibili eta gero, ezkondu ziren eta seme alabak eduki zituzten. Ezkonduta ere, gertakari latzak ere bazeuden, baina beti aurrerantz egin zuen, lanari ekinez eta umoretsu.

Gaur egun Ramonek, nire aitonak, 89 urte ditu eta igandero, elkarrekin bazkaltzen dugunean mila kontu kontatzen dizkit. Ni harrituta geratzen naiz bere abenturak entzutean, hainbeste bizipen, denak gordeta bere oroipenean, ordenagailu txiki bat bere buruan izango balu bezala.

Urte askotan horrela jarraitzea espero dut. Karta jokoan, briskara jokatzeko, bere animaliak zaintzen, lagunak bisitatzen eta familia elkarrekin mantentzen. Denontzat bizi eredu bat izanez.



Maite Etxebarria Delgado

DBH 3. maila

“Igeri egitea gustuko dut”

IHES

Hotz nintzen. Neguko gaurik latzena zen. Ekaitzak etxe hartako leihoak laztantzen zituen eta altzariak dantza egiten zuten haizearen zoinuaz batera “fiuu, fiuu”. Lainoek gogor ateratzen zuten barruan zuten guztia: euri, elur nahiz txingorra “zarrazarra”. Egongela handia zen. Lau leiho zeuden, bakoitza horma batean. Haien zehar kanpoaldea behatzen nuen: errepide bakar bat eta basoa. Nire eskuinean, ate zahar bat zegoen, kalera zihoana. Ospa egin izan banu, hotzez hilko nintzateke. Beraz, ez nuen ihesbiderik. Itxaronaldi luzearen ondorioz, asper-asper eginda nengoen. Bat batean, bulegoko atea ireki zuen andre batek, “etorri zaitez mesedez” esanez. Altxatu, pauso pare bat eman eta gelan nengoen. Bertan, lau pertsona zeuden: gizon bat eta hiru emakume. Aulki batean eseri eta beraiek hitz egiteari itxaron nuen. Ez nengoen batere urduri, eta ez zen ohikoa, nolako egoera zen ikusita. Segundoak ordu bihurtu ziren. Nire oinetakoei begira nengoen bitartean, gizonak atea itxi eta hau esan zuen:

- Zera Mara, zuretzat momentu hau oso latza dela dakigu, baina, indartsua izan behar zara eta aurre egin behar diozu. Denbora asko itxaron ondoren, epailearen erantzuna heldu zaigu. Zure gurasoek ez zuten inongo familiarik. Orduan, pentsatu dute onena familia berri batek zu alabatzat hartzea dela, hau da, adoptatzea. Zoritxarrez, oraindik ez dago une honetan familia interesdunik. Izan ere, hiriburura bidaiatu behar izango duzu, umezurztegi batera. Han lagunak egingo dituzu eta oso ongi pasatuko duzu. Denbora joan ahala, ziur gaude familia bat egongo dela zu hartzeko prest.

Ezer esan baino lehen, neure burua aurkeztuko dut. Mara dut izena eta Kanadako iparraldean bizi naiz, “Weberville” deitutako herrixka batean. Ez naiz batere lotsatia, baizik eta denekin hitz egitea gustatzen zaion horietakoa. Ameslaria naiz eta nire ametsik handiena askatasuna izatea da. Mundu osotik lasaitasunez bidaiatzea gustatuko litzaidake. Zoritzarrez, hori ez da posible. Hamabost urte ditut eta oraindik oso gaztea naiz. Are gehiago, nire gurasoek pasa den hilean istripu bat izan zuten autoz. Ni amonaren etxean nengoen bere jaki gozo-gozoak dastatzen eta bitartean beraiek erosketak egitera joan ziren. Bueltatu zirenean, jada gaua zen eta errepidea oso gaizki zegoen. Euria “barra-barra” hasi zen. Halako batean, bidetik irten eta

Ezin dut hitzez adierazi nire gurasoenganako sentitzen nuen maitasuna. Dena den, laster gainditu nuen. Ondorioz, bakarrik bizitzen nola moldatuko nintzateke? Bazirudien umezurztegi batera eramango nindutela. Egia esan, nik ez nuen besteengandik kontrolatuta egon nahi, baizik eta librea izan eta askatasun osoa edukitzea nahi nuen. Baina, nik uste baino lehen auto batean sartu ninduten. Han hasten zen nire abentura!

Goizeko zortziak ziren. Auto beltz batean nengoen, gidari batekin. Bost orduko bidaiari ez zen txintik ere irten bere ezpagnetatik. Leihotik zehar beti ikusten nuen berbera: elurra eta basoa. Leku berdinetik mila aldiz bueltak ematen genituela zirudien. Hala ere, bat batean, “Ottawa 250 km” ikusi nuen errepidean. Denbora askotarako zela ikusita, nire mp3-a piztu eta musika entzuten hasi nintzen.

- “Mara andereñoa, esnatu, heldu gara!”- Begiak ireki, autotik irten eta eraikin galant, dotore, liraina nire muturren parean zegoen. Nire maleta gerturatu ostean, “bruum bruum”, gidariak ospa egin zuen. Harrerarantz abiatu nintzen, eskailerak igo, atea zeharkatu eta harreragilea nire zain zegoen. Nire izena esan eta uniforme urdin bat eman zidan. Honen ostean, giltz bat eman eta nire logelara lagundu zidan.

Logela nik uste nuena baino handiagoa zen. Siple xamarra zen: lau horma, ispilu bat, leiho bat, bi armairu, bi ohe. Nor izango ote zen nire logela-kidea? Nire maletatik arropa atera ahala, “tok, tok” entzun eta neska bat sartu zen. Ilehoria zen, bi mototsekin, txikia, eta irribarre batek josten zuen bere aurpegia.

- Kaixo, Irantzu naiz eta zure gelakidea naiz. Nahi duzu izan nire laguna? -itaundu zidan niregana ondoratuz-.

- Mmm... bai, bai -ez nekien zer ihardetsi, oso inozoa iruditu baitzitzaidan sartu zen lehenengo momentutik. “tirriin tirriin”

- Txirrinak jo du, bazkaltzeko ordua da, goazen, jarraitu niri -ohartarazi zidan-.

Jantokia oso handia zen. Ehunaka ume zeuden, adin ezberdinetakoak, gutxi gora behera 3 urtetik 16urte artekoak. Dena dela, leku asko zegoen oraindik. Irantzuk bere lagunez beteriko mahai batera eraman ninduen eta banan-banan aurkeztu ziren. Bata, Markel, bestea Lorea, bestea Ez nintzen berari kasu egiten egon haien barruko izaera deskribatzen hasi ziren arte. Koadrila hau oso bitxia zen: Neska-mutilek egun osoa pasatzen zuten bideojokoetara jolasten, komikiak irakurtzen eta gustu txarra zuten denetarako. Gainera, oso lotsatiak ziren eta ez ziren ikastolako beste umeekin harremanak izaten. Hollywoodeko filmetako baztertuak ziruditen. Lotsatzen hasi nintzen janaria etorri bezain laster. Mundu osoak zituen begiak nire gainean, berria nintzelako. Baina nik ez nuen nahi jende honekin egon, are gutxiago besteek ni mahai

horretan ikustea. Nik alde egin nahi nuen, edo behintzat nire pertsonalitatea duen talde batean sartu.

Zirudienez, bazkalostean atsedenaldi bat zegoen, arratsaldeko ekintzak baino lehen. Nire asmoa “popularrengana” hurbiltzea zen, baina ez nuen ideiarik Irantzu eta bere koadrila nire gainetik kentzeko. Baina nola egingo nuke, Irantzuk nire logelan lo egiten badu eta “lagunik onenak” garela uste badu? Momentu bat pentsatzen egon ahala, plan bat etorri zitzaidan burura: Irantzuri gezur bat esango nion eta haiengandik eskapatuko nintzateke.

- Irantzu, medikuarengana joan behar dut, beraz, ez naiz atsedenaldian egongo.
- Bale, ba nire lagunengana joango naiz. Agur! -atetik irten zen eta berari jarraitu nion-.

Banekien bere koadrila leku zehatz batean biltzen zela. Leku hori aurkitu eta ez nintzen hara gerturatuko. Neskaren oinetako horiak jarraitu eta eraikinaren atzeko partean ikusi nituen bere laguntxoak. Atzera egin, eta jolas tokira abiatu nintzen. Erabat galduta nengoen. Jende guztia talde txikietan antolatuta zegoen. Baina, talderik handiena, hura zen nik bilatzen nuena! Hurbiltzen hasi nintzenean, oso urduri jarri nintzen, ez nekielako beraiek zer pentsatuko zuten. Azkenean, aurkeztu egin nintzen. Ongietorria eman eta haien bizitza azaltzen hasi ziren.

Hasieran, oso jatorrak iruditu zitzaizkidan, baina, denbora joan ahala, aberaskume batzuk zirela konturatu nintzen. Hango beste neska-mutilengandik gauza txarrak esaten hasi ziren denak. Beno, denak ez, Leire izan ezik. Neska altua, azal kolore ilunarekin eta alde batean bazterturik zegoena. Berarengana hurbildu eta hitz egiten hasi ginen...

Gauzak horrela, ikaragarritzko lagunak egiten hasi ginen Leire eta ni. Bi astetara, egun guztian geunden bata bestearen ondoan. Egunero, Irantzu baino arinago altxatu eta Leireren gelara joaten nintzen bere bila. Gero, gosaria biak batera hartzen genuen, klasera joan baino lehenago. Horren ostean, mahaia binakakoak zirenez, nirekin esertzen zen irakasle aspergarrien hitzaldi luzeak entzutera. Jantokian nirekin esertzen zen eta jolas ordu guztiak nirekin gozatzen zituen. Gainera, nahigabe, arratsaldeko ekintza berdina aukeratu genituen: futbola, artea eta skate-a. Gure adiskidetasuna pertsonalitate berdina genituelako sortu zen. Leirek eraikinean gertatzen zena azaldu zidan: Jendea oso gaztetatik zetorren eta horren ondorioz, txikitatik taldeak sortzen ziren. Hala ere, bera ez zen txiki-txikitatik etorri, baizik eta nik baino urte bat gehiago zerman. Argi dago berak ez zuela asko gustatzen zitzaion talde finkorik, eta horregatik zegoen beti baztertuta. Gauzak horrela, Irantzu denaz konturatu zen eta niri hitz ez egiteari eutsi zion. Dena den, ez zidan ardura, nik ez nuelako bere lagunekin ezta berarekin egon nahi.

Leirek sekretu bat kontatu zidan. Urte bat baino gehiago zerman bertan. Momentu hau orain dela askotatik itxaroten zegoen. Handik alde egin nahi zuen. Ez ninduen harritu hori niri kontatu izanak, berak bazenekiela nik ere ihes egin nahi nuela. Bere logela korridoreko azkena zen, eta larrialdietarako ate bat zuen. Bertan, eraikin guztiaren mapa zegoen. Mapa horretan oso ongi bereizten zen umezurztegitik alde egiteko aukera: Larrialdiko atea bultzatu, eskaileretatik behera abiatu, kalera irten eta... Nolanahi ere, oraindik ez geunden oso prest erabaki bat hartzeko. Bistan zegoen joan egingo ginela, baina ez genuen dena pentsatuta.

Egunak joan egunak etorri, leku hartaz nazkatuta amaitu genuen. Irantzuren koadrilak aurpegi txarrarekin begiratzen zigun eta popularrek ez zidaten hitzik ere esan aurkeztu nintzen egunetik. Leirek eta nik dena ondo antolatu eta hurrengo gauean egingo genuela erabaki genuen.

Gaua etorri zen, nire motxilan bizirik irauteko behar nuen guztia sartu eta korridorera abiatu nintzen. Leireren logelan “tok, tok, tok” suabe batzuk egin eta jarraian atea ireki zen. Bere lo aurpegiak barregura handia eman zidan, baina normala zen, gaueko ordu haietan. Kontu handiz, larrialdietako atea sakatu eta eskaileretatik behera joan ginen ahal genuen zarata gutxien eginez. Nire gorputza dardarka zegoen, oso urduri bainengoen. Leire nire aurretik zebiltzan, berak hobeto ezagutzen zuelako dena. Kaleko atea bultzatu, eta lorategia ikusten genuen. Dena oso ilun zegoen. Eraikinak ez zuen ia argirik. Baina, Leire prest etorri zen eta esku-argi bat ekarri zuen. Zoritzarrez, ez zidan ni argiztatzen, beraz, kontuz ibili behar nintzen. Lorategia zeharkatuz, lurreko makil, belar eta oztopoek nire bidea apurtzen zuten.

Bat batean, “zaaazt” putzu batean irristatu eta lurrean amaitu nuen. Zuhaitz bateko sustraiek nire hankan zauri bat margotu zuten. Ikaragarrizko mina eman zidan, baina nire salbatzaileak esku-argia ahoan jarri eta bere besoez estali ninduen. Heroi bat bezala eraman ninduen aurretiaz pentsatuta zuen irtenbidera.

Ni ez nintzen ohartu ere egin, erdi zorabiatuta nengoelako. Handik ihes egin, bai, baina, zer egingo genuen orain?



Naroa Arandia Kaltzakorta

DBH 3. maila

“Dantza egitea oso gogoko dut”

PARKEKO BIHOTZA

Zeru iluneko izar argitsuak nola begiratzen ninduten nabaritzen nuen, gaueko haize-kirri fin eta hotzak ilea orrazten zidan une berean. Gaueko hamar eta erdiak inguru izango ziren, kaleak hutsik eta ilun zeuden baina ez nuen etxera itzultzeko presarik, bai ordea amak, aurreko egunetan herrian izandako lapurreten ondorioz. Etxera hurbiltzen nengoela zerbait entzun nuen bidetik gertuko zuhaixken atzetik; pertsona baten ahotsa iruditu zitzaidan, baina ezer entzun ez banu bezala egin eta aurrerantz jarraitu nuen urratsa luzatuz. Segundo batzuetara, berriz ere soinu bat entzun nuen. Oraingoan atzera begiratu eta pertsona baten silueta ikusi nuen nigana arrapaladan hurbiltzen, zerbait eskuan zeramala, baina ilun zegoenez ezin izan nuen zer zen bereizi.

Ni berehala etxerantz korrika hasi nintzen atzera begiratu gabe. Behin eta berriro “itxaron” hitza errepikatzen zuen, baina ni, ikaratuta, gero eta bizkorrago korrika hasi nintzen, azkenik etxera heltzea lortu nuenera arte. Lasterka atea giltzarekin itxi eta gurasoengana hurbildu nintzen. Hori da gau hartatik gogoratzen dudana azkenengo gauza...

- Pi Pi Pi Pi -kolpe zakar batez itzali nuen iratzargailua-

Ohean nuen bero eta goxotasuna utzi eta jaiki beharra nuen. Nagiak kendu, etxeko zapatila erosoak jarri eta bainugelarantz abiatu nintzen. Baina egunero bezala atea itxita aurkitu nuen eta bestaldean, nola ez, nire ahizpa, Ane zegoen. Nire ahizpa ni baino 4 urte nagusiagoa da, hau da 17 urte ditu. Egia esan, ez gara, gure artean, oso ondo konpontzen eta ia ez dugu hitz egiten. Beti dago bere itxurarekin arduratuta, ilea apaindu gabe duela, aurpegian grano bat atera zaiola, ezpainetako berria behar duela... Ezin dut jasan horrela jartzen denean. Ezagutzen gaituzten guztiek esaten dute, ez dugula ahizpen antzik, oso ezberdinak garelako, baina modu guztietara. Ane beti dotore-

dotore janzten da, ni aldiz arropa erosoekin janzten naiz, asko arduratu gabe, adibidez. Hariarekin jarraituz. Bainugelako atea indarrez kolpekatu nuen. Baina inork ez zuen erantzun, ondorioz, berriz ere kolpekatu nuen:

- Zer nahi duzu orain Haizea? Berriz ere molestutzen?- esan zidan Anek-.
- Zer diozu? Ordu erdi zoaz eta bainugela barruan. Zenbat denbora behar duzu?
- Ez dakit ba, gutxi gora behera beste ordu erdi. -Barre egin zuen. Nik haserretuta ostiko bat eman nion ateari, futbol baloi bati ostikoa emango banio bezala eta arineketen jaitsi nintzen beheko solairura. Sukaldean aita aurkitu nuen gosaria prestatzen- .
- Egunon!- Esan zidan alaitasunez-.
- Egunon aita -erantzun nion nik. Pare bat tostada goxo-goxo jan eta gelarantz abiatu nintzen berriz ere-.

Hortzak garbitu, aurkitu nituen lehenengo jertsea eta prakak jantzi eta ikastolako motxila preparatu nuen. Matematikako liburua, ingeleseko koadernoa, estutxea... Dena prest, gauzatxo bat bakarrik falta zitzaidan. Mahaira hurbildu nintzen, baina ez nuen aurkitu, nire sakelako kutuna non ote zegoen galdetu nion nire buruari. Larritu egin nintzen, zer da nerabe bat bere sakelako telefonoa gabe? Alabaina, ikastolan mugikorra beharko ez nuenez, etxera itzultzerakoan bilatzea erabaki nuen. Etxea utziz, ikastolarako bidea hartu nuen.

Bidean nire lagun Nilerekin elkartu nintzen. Korrikan irten zen bere etxetik, motxila lepoan zintzilik zuela, etxeko atea erdi zabalik utziz. Biak batera ikastolarantz abiatu ginen.

.....

- TIRRRRIINNN - jo zuen ikastolako txirrinak; denak tximistak baino bizkorrago irten ginen ikasgelatik, kartzelatik irtengo bagina bezala. Nile eta biok batera geunden eta ikastolatik irten ginenean Nileren ama ikusi genuen kotxean, zain-.
- Beno Haizea joan beharra dut, ama zain dut eta. Nahi duzu nonbaitera eramatea?
- Ez, mila esker. Parkera hurbilduko naiz paseo bat ematera. Gero arte!- erantzun nion-.
- Agur!

Agurtu eta gero parkerantz abiatu nintzen. Bidean atzo gauean izandako gertaera ez-ohikoak gogoratzen nengoen. Zer nahiko zuen pertsona hark? Bueltak eta bueltak ematen nizkion buruan. Niri segika ibili ote zen?

Parkera heldu nintzenean, banku batean eseri nintzen, motxilatik liburu bat atera eta irakurtzen hasi nintzen, txorien kantu gozoa entzuten nuen bitartean. Denboratxo bat igaro ondoren, eguzkiaren argia berehala desagertzen zela ikusi nuen, gaua iritsiko balitz bezala. Burua altxatu nuen, norbait zegoen nire aurrean. Edadeko andre beltzaran bat zen, arropa zikin eta apurtuekin jantzita. Ilea laburra eta zurixka zuen, zaindu gabea. Itxura eskasa zuen. Liburua itxi nuen berehala, andre hura nor zen jakiteko jakin-minarekin. Bat-batean andreak zerbait atera zuen poltsikotik. Baina, baina nola demontre zeukan andre hark nire sakelakoa?

- Kaixo, tori, zeurea dela uste dut, atzo zinematik irten zinenean, erori egin zitzaizun, eta ez zinen konturatu, lurretik batu eta zuri eramatea erabaki nuen, baina zu korrika hasi zinen ikusi ninduzunean. Zuri sakelakoa itzultzeko asmoarekin korrika hasi nintzen ni ere, zeure atzetik. Izan ere ez nuen lortu zure sakelakoa bueltatzea -telefonoa eskura eman zidan-.

- Eskerrik asko andrea, bada atzo... zera, ikaratu egin nintzen. Eskerrik asko ekartzearren -barre egin zuen-.

- Ez naiz harritzen, hori entzuteaz -esan zuen barre artean-. Gauza galduen bulegora eramateko izan naiz, baina urrunetik ikusi zaitut eta ekartzea erabaki dut. Egunero nago parke honetan bueltaka, ez daukat zer egin eta.

Berriz ere eskerrak eman nizkion irribarretsu.

- Eser naiteke? Maria dut izena -buruarekin baiezko seinalea egin nion-. Zein liburu da hori? -galdetu zidan-.

- 'Joseren kasu berezia' izenekoa, ez dakit ezagutuko duzun.

- Bai ezagutzen dut, bada gaztetan ni idazlea nintzen, liburuak oso gustuko nituen, egunero nengoen libururen bat irakurtzen, egun batean....

Horrela bere gaztetako ikasketei buruzko istorio interesgarri eta barregarri bat kontatu zidan.

Egun hartatik aurrera, parkera hurbiltzen ginen bakoitzean, andre harekin topatzen ginen. Beti izaten zuen istorioren bat egiazkoa zein berak asmatutakoa, bertan geunden ume zein gazteok ondo pasatzeko. Sarritan joaten ginen poz-pozik Nile eta biok, baita herriko asko ere, Mariaren kontakizun erakargarriak entzutera.

Hilabeteak igaro ziren, urte bat ere. Mariaren oso lagun egin ginen, familiakoak bezalaxe. Baina Otsailaren 26ko arratsalde hartan zerbait aldatu egin zen. Arratsalde hartan parkera heldu ginenean ez genuen Maria aurkitu, parkeari pare bat buelta eman genizkion eta ez genuen aurkitu; banekien zer edo zer gertatu zitzaiola. Mariak ez zuen inoiz huts egingo.

Etxera arrapaladan itzuli ginen, triste geunden. Mariak baten esan bezala, egunero ibiltzen zen parke hartan bueltaka, arraroa zen arratsalde hartan ez ikustea.

Nire gelara igon ginen biok, motxilak alde batera utzi eta ohe gainean eseri ginen.

- Agian betebeharren bat izango zuen - esan zuen Nilek-.

- Agian bai, ez dakit, baina horrela balitz, abisatuko zuen, ezta?

- Egia esan ez da ohikoa Mariak hutsegitea.

Trin Trin Trin Trin -Etxeko telefonoaren soinua entzun genuen bat-batean-.

- Haizea zuretzako da!

- Banoa ama -arineketan jaitsi nintzen eta telefonoa hartu-.

- Bai?

- Kaixo Haizea, Ospitaleko erizaina naiz. Sentitzen dut hau esan beharra izatea baina Mariak eskatu dit. Mariari bihotzekoak eman dio gaur goizean, eta ingresatuta dago. Zu ohartarazteko eskatu dit.
- Baina, ondo al dago? Osatuko da?
- Orain ahul dago eta oso erraza da hemendik gutxira beste bihotzeko bat jasatea; oraingoan zortea izan du baina hoberena operatzea izango da.
- Bale, milesker deitzearren.
- Ez horregatik, gero arte.

Telefonoa eskegi eta Nileri eta gurasoei dena kontatu nien. Ez genekien zer egin.

.....

Atea ireki eta, gela ilun hartara sartu ginen. Ohe gainean aurkitu genuen Maria. Irribarre ahula egin zuen, beti bezala ez zuen nahi gu triste sentitzea. Berentzako amak erosi zituen arropak eta janaria mahai gainean utzi genituen.

- Noiz operatuko zaituzte Maria? -Galdetu nion-.
- Ez naute operatuko -erantzun zuen, aurpegiko espresioa aldatu gabe-.
- Nola ezetz? Medikuek esan dute operatzen ez bazaituzte beste bihotzeko batek emango dizula! -garrasi nuen, haserre baina aldi berean triste-.
- Baina operazioa oso garestia da, ezin dut ezer egin.
- Nik lortuko dizut dirua.
- Ez Haizea, ez dago zer eginik. Ez dio axola, zahartzen nago.

Negarrez, korrika irten nintzen ospitaleko gela hartatik, nolabait diru hura lortu behar nuen kostatuta.

Berehala Nileri deitu nion eta nire etxean geratu ginen. Milaka ideia bururatu zitzaizkigun dirua lortzeko, baina gehienek ezinezkoak ziruditen. Pare bat ordu pentsatzen egon ondoren, egokiena bururatu zitzaigun. FERIA bat! Bai, horixe zen konponbiderik hoberena, erraza izango ez zen arren.

Bi astetan dena prest genuen. Amak pastelak eta magdalenak preparatuko zituen, aita musikarekin eta sarrerekin arduratuko zen, Nilek kamiseta batzuk salduko zituen, nik rastrillo bat antolatu nuen... Kartelak ere preparatu genituen feriaren berri emateko. Bertan Mariaren arazoa azaldu genuen eta ferian lortuko genuen diru guztia Mariaren operazioarentzako izango zela ere argi utzi genuen.

.....

Heldu zen eguna, jada sarrera guztiak salduak zeuden, inoiz baino pozago nengoen. Dena prest zegoen, parkea apainduta eta postu guztiak beren lekuan, baina itzaroten nuen baino postu bat gehiago zegoen. Hurbildu egin nintzen eta mailaren atzean Ane aurkitu nuen.

- Nik ere nolabait lagundu behar nuen ezta? -Esan zuen irribarretsu. Nik besarkada handi bat eman nion -kostatu zait, baina azkenean nire ileko apaingarriak eta makillajea saltzea erabaki dut-.
- Milesker Ane, ez zara damutuko, Mariak asko eskertuko dizu.

- A eta beste gauza bat, telebistara deitu dut.
- Zer?! -erantzun nion harrituta-.
- Horrela jende gehiago jabetuko da egin duzunaz.
- Eskerrik asko Ane -besarkada handiago bat eman nion-. Zuri esker Maria salbatuko dugu.
- Ez Haizea. Zuri esker salbatuko dugu -esan zuen Anek-.
- Denok prest? -oihukatu zuen aitak-. FERIA irekitzera doa!!!

.....

Egun hartan dena primeran joan zen. Feriara hurbildu zirenez gain, beste herri batzuetako diru-laguntzak jaso genituen. Mariaren operaziorako behar bezain beste diru lortu genuen denon laguntzaz, eta Maria aurrera atera genuen.

Orain, bost urte pasatu dira eta Maria umeentzako ipuin-kontalari bihurtu da, egunero umeentzako ipuin zoragarriak kontatzen ditu parkean, umeak pozik ikusteak, poztu egiten du eta. Oraindik ere Nile eta biok ere hurbiltzen gara parkera. Mariaren kontakizunak ez zuten inoiz lehenengo eguneko emozio eta interesgarritasuna galdu.

Etxean gauzak apur bat aldatu dira. Orain Ane eta biok ondo baino hobeto konpontzen gara eta ez dugu ia eztabaidan aritzen, ia. Nilek eta nik organizazio batean boluntario bezala egiten dugu lan gaixorik dauden eskaleei laguntzeko. Hori delako benetan pozten gaituena, denok dugulako ondo, osasuntsu eta pozik bizitzeko aukera; laguntza behar dutenei laguntzen diezula jakitea, dagoen sentsazio onenetarikoa delako.



Eneko Duñabeitia Madariaga

DBH 3. maila

“Pentsatu, oihukatu eta aldatu”

AZKEN OIHUA

Hegoak ditut bai, hegoak. Paper zuriez eginak. Idazlearen mahai herdoilduan jaio omen naiz, hitzez hitz esaldiak egiterakoan. Txikia naiz baina boteretsua. Kristalezko malko distiratsuez jendea blai egiteko gaitasuna dut. Hizkuntzen gorabeheren jabe naiz. Gela itxi eta ilun baten barruan nagoen basapiztia naiz, eta inork ez daki zer hondamendi sortuko ditudan irteterakoan. Istorio polit eta harrigarrien etxe naiz. Bizitza propioa dut, bihotz bat, hizkuntza bat !

- Itxi begiak eta lasaitu; gorputza dardarka utziko baitizut istorio honekin.

Negua zen bai, oso ondo gogoratzen dut, elurra ari zen kanpoaldean eta nire orrialdeak oraindik ere elurra bezain zuri zeuden hark boligrafo beltz bat hartu eta lehen orrian “Bazen behin...” esaldi mitikoa idatzi zuen arte. Momentu hartan, eskumuturra dantzan hasi zitzaion, gora eta behera ezkerretik eskumatara tinta lau eta beltz hark nire orriak bustiz.

Bazen behin Espainiako iparraldean lau ardi eta txakur bat besterik ez zeukan hainbat lagunez osaturiko familia bat. Urte latz haiek hasi berriak zeuden, izan ere sukaldeko egutegiak 1936ko martxoaren 31 ondo nabarmentzen zuen. Bai lagunok, denok “hain ondo” ezagutzen dugun Gerra Zibila bere lehenengo urratsak pausatzen hasia zen euskal lurraldean. Bi urte, zortzi hilabete eta hamabost eguneko sufrimendu konstantea martxan zegoen Espainiako iparraldearentzako batik bat.

Geldiune pentsakor bat sortu zen. Gehiago zer idatzi ez zekielakoan zegoela pentsatu nuen, baina... ez; malko distiratsu eta garden bat ikusi bainuen bere eskuin masailetik irristatzen. Ez nekien zergatik zegoen hain sentibera baina ni badaezpada ere, istorioa entzuten jarraitzeko prestatu nintzen.

Haietako bat, Esteban Urkiaga Basaraz zen. Bai, gaur egun euskaltzale, kazetari eta poeta sutsu baten modura ezagutzen dugun pertsonaia, Lauaxeta, hain zuzen ere. Gaztetan, irakurtzeari ekin zion eta txundituta bere etorkizuna oso ondo islatua nabaritu zuen.

Poesia gustatzen zitzaion, lagunekin egotea, irakurtzea... Oso pozik bizi zen bere Mungiako etxean, izan ere, bere gurasoek etxeko zati bat ostatu gisa jartzea pentsatu zuten; eta ostatura zetozen gazteekin jolasten zuen. Baina behin iluntasunez margoturiko Gerra Zibila etorri zen ostatuko ateraino. Usain txarra sumatu zion "gizon" hari, zerbait ezkutatzen zebilelakoan.

Lauaxetaren familiak bazekien laster zerbait gertatuko zela, irratia hau esan baitzuen:

- "Los franquistas han puesto un plan en marcha que consiste en desplegar tropas en el norte de Vizcaya; según ellos nos van a atacar a todos hasta que seamos españoles..."

Irratiko esaldi beldurgarri haiek entzutetik pare bat egunetara, martxoaren 31n, Durango bonbardatu zuten 336 pertsona hilik utziz. Gudariak, beraien bizitzak "oparitzen" ari ziren gure mendietako larre berdeetan, frankistak gehiegi ziren eta esfortzu handiak eginda ere, hildako gudariak egoten jarraitzen zuten.

Lauaxetak 30 urte zituen jada, ospetsu bilakatu zen; izan ere 26 urterekin bere lehen poema liburua argitaratu zuen, Federiko Gartzia Lorkaren liburu batzuk ere euskaratu zituen, antzerki gidoiak ere idatzi zituen... "Hobby" asko zituen bai, baina bera kazetaria zen. Galderak egitea, erantzunak jasotzea, elkarrizketak egitea, egunkarian edo aldizkarietan idaztea eta testuak euskaratzea gogoko zuen.

Durangon gertatu zenaren ostean, familiak ostatura jendea ez zetorrela sumatu zuen, beldurragatik edo...

Eibar izan zen hurrena, eta honen ostean Elgeta, Elorrio eta Otxandio. Gudariak ezin izan zuten gehiago eutsi, karlistek artilleria asko erabiltzen baitzuten. Gipuzkoa eta Araba, karlisten menpean zeuden; eta Bizkaia zen dianaren hurrengo puntu zehatza.

Durango eta hamaika herri gehiago "konkistatuak" zeuden, eta bai, 1937ko apirilaren 26a heldu zen. Beldurra nabaria zen Gernikako azoka egun horretan. Gure protagonista egun hartan Bilbon zegoen gerrak Durangon eragindako hondamendiei buruzko artikulu interesgarri bat idazten.

Hasperen sakon bat egin zuen. Nire orri zuriak hitzez betetzen zeuden, baina oraindik bukaera idazteko lekua neukan.

Kosnoaga mendi gainean zegoen zelatariak hegazkin hotsa sumatu zuen bere talaiaetik eta segituan bandera gorri bat astintzen hasi zen. Andra Mari elizako dorrean ere, beste zelatari bat zegoen, eta bandera gorria antzeman zuenean, kanpakiak dantzan jarri zituen. Beldurra sakabanatu zen lehen hegazkina ikusi zutenean. Kanpakiak "dindon" beldurgarriak abesten zituzten, Astrako sirenek bezalaxe. Jendea korrika hasi zen babes bila eta lehen burrunbak entzun ziren: bumh, bumh, bumh, bumh, bumh... Bata bestearen atzetik. Tratatatatat, bai metraileta hotzak ziren. Herria sutan zegoen,

jendea erdi hilik bide bazterretan, etxe eta eraikin guztiak eroriak... Hura zen tragedia, injustizia; bihotzeko mina!!. Zergatik bonbardatu herriak? Gizon batek oihukatu zuen herri osoarentzat: “itxi baketan behingoz!!, gure nortasuna ez dogu galduko eta”.

Herritarrek Gernika deituriko herri hartatik alde egin beharra izan zuten, batzuk Bilbora eta beste asko euskal lurraldeetatik kanpora. Gaua igaro ostean ere herriak sutan jarraitzen zuen, Sanjoan su erraldoia zen hura. Istorio honek, gure pertsonaiarekin ez duela loturarik esango duzue, baina oker zaudete; izan ere Lauaxeta egun hartan Gernikara abiatu zen “La petite Gironde” deituriko egunkarirako itzultzaile lanak egiten laguntzera. Bere bizitza izorratuko zion bizitzako bide txar horietako bat hartu zuen, bai.

Frankistek, herria suntsiturik zegoelako, lurretik tropak zabaldu zituzten Gernika konkistatu nahian, eta gure pertsonaia bertan zegoen. Olioia eta ura bezalakoak ziren, bera euskararen jarraitzaile sutsua, euskara hizkuntza bat bakarrik izan beharrean, nortasun agiria izatea nahi zuelako eta frankistak, berriz, euskararen kontrakoak.



Nola ez, bakardadea usaintzen zen herri hartan, Lauaxeta eta frantziar egunkariko bi kazetari zeuden frankisten tropez inguratutik. Gure kazetari ausarta, atxilotu egin zuten; bere artikuluetan ez baitzuen egia garatzen frankisten iritziz.

Egun batzuetara, gure “lau haizetara”, Lauaxeta alegia, erail zuten Gasteizen hogeita hamaika urterekin. Bere gorpua hilik zegoen, baina bere bihotza oraindik bizi-bizirik, bere poltsikoan paper hau aurkitu baitzuten:

*Enara batek bezala gastetasunak narua
eta eguak zabalik gorantza juat gogua.
Oraindik eztot il-gura bixitzau yatan leguna!
Maite dau bijotz gaxuak ene aberri kutuna.*

*Goiz eder onetan erail bear nabe
Txindor baten txintak gozotan naukela.
El naiten leyora begiok intz gabe!*

Puntu bat jarri eta kolpe gogor batez itxi ninduen, negar hotsak entzun nituen orduan; baina minutu batzuk igaro eta gero, berriro hurbildu zen. Egurrezko aulki erosoan jesarri, ni zabaldu, betiko boligrafo beltza hartu eta aurrekoaren azpian idatzi zuen “mundu honetan beti egongo dira injustiziak eta gerrak, baina bizidunen nortasuna ez da inoiz galduko”. Puntu bat jarri eta...” Istorio honek, nire aitak bizi izan zuen sufrimendua oso ondo islatzen du, eta bere omenez idatzi dut istorio injustu hau”.

Eta horrela utzi ninduen, bere mahai herdoilduaren gainean, hitz politez beteriko orri beteekin.



Irantzu Idoiaga Zelaia
DBH 4. maila

“Lagunak guk aukeratutako familia dira. Oso ondo zaindu behar ditugu”

ILUNTASUNAREN EDERTASUNA

Hemendik 5 milioi argi urtera, Lurraren antzeko planeta txiki-txiki bat zegoen, duela 10 milioi urte. Bertan, ez zegoen animaliarik; gizakiak eta landareak bakarrik bizi ziren. Landareak, bertokoen berdinak ziren, baina pertsonak... ez; guztiakitsuak ziren. Jaiotzen zirenetik hil arte, ez zuten ezer ikusten, eta beraz, ez zieten garrantzirik ematen gauza fisikoei, sentimentalei baizik. Pozik bizi ziren, haien ezjakintasun ilunean, mundua nolakoa zen jakin gabe, inor bere fisikoagatik iraindu gabe, norbere burua benetan nolakoa zen adieraziz. Baina noizbehinka, argitasuna ikusteko gogo sartzzen zitzairen, inork ez baitzuen ikusi, eta liburuetan aipatzen zena zekiten bakarrik.

Egun batean, mirari antzeko gertakizun bat egon zen. 12 urteko ume bat, Rory, koman egon zen aste batez golpe bortitz baten ondorioz, eta esnatzerakoan argia ikusten zuela aitortu zuen; bere inguruan zegoena ikusi zezakeela. Rory-ri zaila egin zitzaion argi hari ohitzera, baina ordu erdi beranduago, jada ongi ikusten zuen. Medikuek ez zuten ulertzen nola gertatu litekeen horrelako gauza bat, eta galdeketa asko egin zitzioten mutikoari, etxera joaten utzi baino lehen.

Hamabi urteko mutila, famatua egin zen planeta ñimiño guztian, gertaera harriarri harengatik.

Ospitaletik irteterakoan, Rory-ri negargura sartu zitzaion; bihotza zatitu behar zitzaiola uste zuen. Izan ere, ezin zuen sinetsi ikusten ari zen hura: etxe ia guztiak erdi apurturik zeuden, zerua gris kolorekoa zen beti, argi oso distiratsu batek begietan jotzen zion, mendiak beltz kolorekoak ziren (bi eguzkien erradiazioarekin erreta), zaborra zegoen kale guztitik zehar, ke asko zegoen edonon, paisaia oso iluna iruditu zitzaion, ez zegoen ia landararik... eta jendea... egia esan nahiko itsusia zen, kolore gris oso apalekoa. Ez zen berak imajinatzen zuen moduko mundua, eta etsiturik sentitu zen. Baina dena dela, ez zuen hitzik esan paisaiari buruz.

Egun batzuk pasatu ziren, eta orduan, Rory, irratira eramán zuten, hitzaldi bat eman zezan ikusten zuenari buruz. Gazteak, ez zekien zer egin; ez zituen denak tristatu nahi. Beraz, bururatu zitzaion bakarra egin zuen: berak imajinatzen zuen mundua deskribatu zien. Honela deskribatu zuen mundua: mende berdez josita zegoen, bai zuhaitzez bai lorez, kale garbi garbiak zeuden, etxeak oso ederrak ziren, eta zerua kolore gorri ederrekoa, haien azala kolore berdekoa zela, eta jendea oso polita, dotorea.

Irratia entzun zuten guztiak are pozago jarri ziren, haien planeta hain ederra zela pentsatuz, imajinatuz.

Rory-k horrelako hitzaldi asko ematen jarraitu zuen, gauzak imajinatzen zituen bezala deskribatuz, egia esan gabe.

Hamabost urte bete zituenean, errege izendatu zuten, pentsatzen baitzuten bera zela gizakirik jakintsuena eta onena.

Urteak pasatu ahala, Rory planeta hobetzeko aurrerapenak asmatuz joan zen, bai medikuntzan, bai komunikazioan, bai garraiobideetan. Halako batean, itsutasuna sendatzen zuen makina asmatu zuen. Baina, ez zegoen ziur denek mundu hura ikustea nahi bazuen; gezurtizat hartuko baitzuten, eta errealitatea jakin gabe pozik bizi baitziren biztanleak, fisikoa kontuan hartu gabe.

Beraz, lehenengo, bere bi lagun hoberenekin hitz egin zuen, eta haiek sendatu zituen lehenengo, ezkutuan. Hauek, paisaia ikustean, guztiz atsekabetuta geratu ziren, ez baitzen haiek imajinatzen zutena. Rory zen pertsona onataz konturatu ziren; mundu anker hartan bizi zen bakarrik, besteak imajinaziozko mundu liluragarri hartan bizi ziren bitartean.

Haien erabakia, makina existitu izan zela inori ez esatea izan zen, jendea mundu hartatik babesteko. Makina apurtu zuten.

Momentu hartan konturatu ziren hiru lagunak, iluntasuna ederra izan litekeela; batzuetan hobeto dela errealitatea zein den ez jakitea, eta pozik bizitzea. Erdaraz esaten den bezala: “ojos que no ven, corazón que no siente”.



Aitor Asturias Ajuria
DBH 4. maila

“Pentsakor nagoenean korrika egiten irtetea gustatzen zait”

IDEIA

Non daude ideiak? Ez naiz kapaz ipuin bat idazteko. Ez dut ideiarik aurkitzen inon ere ez, ezin dira erosi ezta eguneroko bizitzan aurkitu. Dena aurkitu ahal den tokian ere ez daude, liburutegian? Ez, Google izena duen internet aurkitzaile horretan ere ez. Beraz zer egin, ez baduzu doan hori, Messi-k futbolera jolasteko duena, edo Atxagak idazteko duena. Anaiari galdetu, gurasoei galdetu baina haiek beraien ideiak dira ez nireak. Originala izatean dago gakoa nire ustetan, baina nola egin ideia original bat milioika ipuinen artean? Musika jarri eta zertxobait jan, baina horrela ere ez. Nola aurkitu ukiezina den zerbait, ikusezina. Orduak eta orduak ordenagailu aurrean inspirazioa etorri zain. Jainkoari erregutu baina horrela ere ez, non dago ideia madarikatu hori?

Bai, ez naiz gai zer argudio edo gai aukeratzeko. Idatz dezaket une honetan gertatzen ari diren guda edo gatazka armatuei buruz. Adibidez Siriako ume baten ikuspuntutik bertako guda islatu. Umeak, inozentziaren arketipo bezala bertako bonbardaketa eta tragediak narratzen ditu. Baina ez, uste dut gai hau nire ikaskide askok jorratuko dutela. Eta emigrazioari buruzkoa? Neska gazte bat bere familiako aurrezki guztiak batuta pateran abiatzen da ametsaren bila, familia gosez ateratzeko nahian. Ez, gai hau ere oso jorratuta egongo da, gainera honelako ipuinek irakurlearen emozioak pizten ditu baina normalean ez du ipuinarekin hurbiltasuna aurkitzen, ez duelako bere inguruan horrelako kasurik aurkitzen.

Beraz argi dago, gure gizarteko egoera gogorak islatzeko ipuin bat egin beharko nukeela. Baina ze egoera? Agian emakumeen aurkako biolentzia salatu beharko nuke. Gure adineko gazte baten ikuspuntutik, hurbilagoa sentiarazteko, bere aitak ama eta biak jipoitzen ditu. Egun batean egoera eutsiezin bihurtzen da eta gazteak egur makila bat hartuta aita ospitalera bidaltzen du. Zer gertatzen da gero? Amaiera ona edukiko al du gazteak, eta aitak?

Idea hau alde batera utzi gabe, beste batzuk aztertzea gustatuko litzaidake. Gure gizarteko desberdintasunekin jarraituko dut. Ea, eta bulling-a? Nerabe askok eraso oso bortitzak, bai fisiko, bai ahozkoak jazaritzen dituzte eta honek askotan heldutasunera trastorno bezala heltzen dira. Bulling-a gure ikastetxeetan gertatzen ari den arazo oso larria da eta askotan irakasleek ez ikusiarena egiten dute. Baina beno, arazo hau desagertaraztea eskumena duten agintariei uzten diet, ez bainago hemen gizarteko desberdintasunak salatzeke, ipuin bat idazteko baizik.

Utz ditzagun malkotan bustitzen dizkiguten obrak eta goazen beste malko mota bat sortzen diguten ipuinetara, poztasunezkoak. Nola ez esparru honetan gehien idatzi den gaia agertzen da, amodioa. Eleberri guztiek nire ustetan amodio pittin bat izan beharko lukete. Amodioa ezinbestekoa da bizitzaz gozatzeko. Irakurle gehienak nazkatuta egongo dira gazteen arteko amodioz. Zergatik ez adineko pertsonen arteko amodiozko ipuin bat idatzi? Baina ez, tamalez originaltasuna niretzat oso garrantzitsua denez, eremu honetako ipuin asko ere idatziak daude. Baina lehen esan dudana bezala amodioa ezinbestekoa da bizitzaz gozatzeko, orduan nola egin amodiozko istorio original bat? Nekatu naiz horrelako ipuin original bat pentsatzen.

Amaitu dut lehen orrialdea eta oraindik ez dut ideiarik ere ez nondik nora joango den ipuina. Musikarekin ere nekatu naiz, berriro jan eta berriz ordenagailuaren aurrean jarri. Argudio edo gaiekin jarraituko dut. Eta zergatik ez, poztasuna sortzen diguten gaiekin. Ea, eta kirol arrakastak? Gaur egun zenbat eta zenbat umek amesten dute hurrengo Ronaldo edo Nadia Comaneci izatea? Esate baterako ume Afrikar bat futbolerako zaletasun handia duena Europara bidaiatu eta bertan izar bihurtu. Edo alderantzizkoa, Europara heldu, arrakastarik lortu ez eta egoera latzetan bizi. Ez, gai hau ere oso jorratua...

Eta zergatik ez umeentzako ipuin bat idatzi? Super-heroiekin lotutako ipuin bat non heroiak ohorez hiltzen diren eta gaizkileak barkamenik gabe. Baina ez, ipuin hauetarako heldutasun puntu batera iritsi naizela uste dut. Nola ikusten duzue hilketa eta ustezko hiltzailez beteriko ipuin bat? Esan beharra dago esparru honetan esperientzia oso handia ez dudala eta nire ustean ez litzateke nire puntu hoberenetako bat izango.

Eta lerroak eta lerroak, orduak eta orduak baina ipuinik idatzi gabe. Idatzi, ezabatu, idatzi, ezabatu, zer egin dezaket ideia madarikatu hori nire burutik pasa dadin. Pelikulak ikusten hasi naiz, ea baten batekin inspirazioa heltzen den. Gutxienez lasaiago nago derrigorrezko bi orrialdeak osatzen nagoelako. Nire neuronak errauts bihurtzeko bidean doaz. Lo ere geratu naiz letraz betetako orri hau ikusten. Baina zer nago arnasestuka bilatzen? Idea bat? Ez dakit zer den ere ez? Entziklopedian bilatu dut, “Gauza baten irudikapen abstraktu eta orokorra, gogoak edo adimenak eratua.” Adierazpen honen arabera buruan daukadan zerbaiti buruz idatzi behar dut. Orduak eta orduak kanpo gertaerei begira bat aukeratu nahian, eta hara non idatzi behar dudana nire buruan dauden nahasmenduetako bat den.

Zer daukat nik buru barnean? Hala nola. Nire izena Garikoitz da, 15 urte ditut. Ez naiz mutil oso xelebrea, lotsatia esango nuke. Ez dut lagun askorik, baina ditudanak benetan maite ditut. Nahiko itsusia naiz, baina zorionez urte bat daramat nire ametsetako neskarekin. Ikastetxeak ipuin bat idazteko agindu digu, eta ideia faltan nago. Uste dut nire istorioa idatziko dudala. Geratzen den espazio honetan? Edo beste orrialde bat hasita? Ez duzue gaur egungo gazteria ezagutzen? Hitz pare bat gehiago ez

idazteagatik hil egiten dute. Eta ni zoritxarrez gazteria honetako parte naiz, eta ez dut nahi gazte gizartea defraudatu orrialde bat gehiago idatziz. Nire gaztaroko abentura eta amodioak zuek imajinatu beharko dituzue. Nik irakurlearen ikuspuntutik nahiago nuke istorio bat imajinatu nire amaiera ez oso ona irakurri baino. Horrela mundua ederra dela pentsatzen jarrai dezakezu.

Ipuina, burumakur ideia gabe, aitari eman diot irakur dezan. Irakurri, eta erantzun du: “ideia bikaina”. Harritu egin naiz erantzunarekin, zorionez ipuin on bat idatzi dut. Newtonek kasualitatez aurkitu zuen grabitatearen legea, sagarra zuhaitzetik erori eta gero, nik ere horrela, ipuinak aurkitu nau ni. Harro, ipuin on bat idatzi dut, zergatik ez lorak bota nire buruari.



Ane Martin Matilla

DBH 4. maila

“Aske bizi, aske maita”

NERABEEN ARTEKO KONTUAK

Elene izeneko neskatila bat kaletik zihoan, lapur batzuk bere sakelako telefonoa eta dirua lapurtu nahi izan zutenean. Bere anaiaren lagun batek gertatzen ari zena ikusi zuenean, Eleneri laguntzera joan zen. Bere anaiaren laguna, Eñaut deitzen zen. Elenek eskerrak eman zizkion Eñauti eta hark esan zion, ea konpainia egin ahal zion. Elenek baietz esan zion, orduan biak batera buelta bat ematera joan ziren, eta horrela pasatu zuten eguna. Hortik aurrera lagun oso onak egin ziren.

Hiru hilabete geroago, Eñaut Eleneren etxera joaten zen ia egunero, bere anaiarekin egoteko eta Elenarekin ere, gustuko zuelako. Elenek ez zekien Eñauti bera gustatzen zitzaionik. Eñaut egunero joaten zen biekin eskolara, Eleneri lapurtzen saiatu zirenetik. Elenek 15 urte zituen, eta Eñautek eta Jonek, Elenaren anaiak, 16.

Eleneren lagun onena, Irene zen. Beti zeuden batera, baina lagun gehiago zituzten. Ireneri Eñaut gustatzen zitzaion, baina ez ziren inoiz bikote izango. Irene beti zegoen:

- Joan ahal gara zure anaiaren lagunekin, mesedez?
- Ez, ez dut nahi nire anaiarekin denbora guztian egon – Elenek -.
- Zergatik ez? Gainera Eñaut ere egongo da.
- Beno... ongi da, goazen haiekin. – Elenek -.

Biak Eñauten lagunekin joaten zirenean, Elene beti zegoen Eñautekin, horregatik batzuetan Irene jeloskor jartzen zen. Egun batean:

- Goazen dantzatzera Eñaut. Elene, zu ere bai –Irenek-.
- Ez dut gogorik –Elenek-.
- Ez zatoz? –Eñautek-.
- Ez, joan zuek nahi baduzue.
- Ez zurekin geratuko naiz ez dut gogo handirik –Eñautek-.
- Aspergarri batzuk zarete –Irenek-.

Ondoren Irene ipurdia igurtzen hasi zen gainontzeko mutilei, Eñaut berarengan arreta jar zezan. Eñautek ez zion kasurik egiten. Joni, Irene gustatzen zitzaionez berarekin egiten zuen dantza eta berdin zitzaionez Ireneri, musuren bat eman ziren.

Denbora pasatu ahala, Elenek mutil bat ezagutu zuen eta berarekin geratzen zen. Jonek, Eñauti esan zion eta Eñautek esan zuen:

- Beno denbora tarte bat utziko diot eta gero esan egingo diot sentitzen dudana.
- Ongi da, baina gurago dut zurekin egotea, mutil harekin baino.
- Lasai, utz iezazkidazu hiru aste eta ikusiko duzu zelan mutil hark utziko duen. Gainera niri dena kontatzen didanez, jakin ahal dut non geratzen diren eta non bizi den mutikoa.
- Ongi da.

Aste bat pasatu zen eta Eñautek mutiko hari joko txarrak egiten hasi zen. Adibidez; orpoa jarritz, janarian gatz asko jarritz, jipoitzen Elenerengana joan ez zedin, eta lortu egingo zuela uste zuen. Aste bat pasatakoan, mutilak utziko zuela pentsatu zuen Eñautek.

Hurrengo astean errietaren bat eduki zuten, baina Elenek ez zuen uzten. Orduan Jonek lagundu egin behar izan zion, Eleneri esanez:

- Nik uste dut mutil hori ez dela zuretzako eta nire ustez txantxetan dabilela, gutxitan ikusi zaretelako eta gainera neska batekin ikusi dut.
- Eskerrik asko aholkuagatik eta neskarena esateagatik, berarekin egingo dut berba eta utzi egingo dut.

Jonek, Eñauti esan zion, Elenek esan ziona, baina Eñautek esan zion:

- Bai! Eskerrik asko baina oraindik bera nitaz maitemintzea lortu behar dut eta, oraindik asko falta zait. Zer egin ahal dut bera nitaz maitemintzeko?
- Nire ustez, mutilarekin utziko duenez, besarkadaren bat beharko du eta barre egitea lortu ere. Zergatik ez diozu esaten, mutilarena kontatzen dizunean, ea zinemara joan nahi duen? –Jonek-.
- Ez dakit ideia ona denik. Pentsatuko du hitzordu bat dela.
- Nahi baduzu, Ireneri galdetuko diot eta horrela biak datoz. Zer iruditzen zaizu? -Jonek.
- Oso ondo, orain haien esku dago etortzea.

Arratsalde horretan Elenek mutilarekin egin zuen berba eta beraien artekoa utzi zuten. Orduan Jonek Irene zinemara gonbidatu zuen, eta Irenek Eleneri esan zionez denak joango ziren. Jonek, Eñauti sorpresa hori kontatu zion eta pozaren pozez jarri zen.

Zinemara heldu zirenean Irenek eta Jonek beste film bat aukeratu zuten. Orduan, Elene eta Eñaut beste bat ikustera joan zirenez, aprobetxatu egin behar zuen aukera hura. Denbora luzez egon zen egun horren zain.

- Hori nahi dut ikusi, zuk zein? –Elenek-.
- Niri berdin zait. Zuk nahi duzuna.

Ordaintzera joan zirenean:

- Nik ordainduko dizut, zuk filma aukeratu duzu.
- Ez dut hori onartuko.
- Bai, onartu duzu, ordaindu dudalako.
- Beno, eskerrik asko -Elenek zurigorri-.

Filma asteko zegoen eta Elenek ez zekien zergatik baina oso urduri zegoen. Eñaut, aldiz, oso pozik. Filma ikusten geunden bitartean Eñautek maniobra tipikoa egin zuen, besoa luzatu eta Eleneren sorbaldan jartzea. Elene geldi geratu zen baina, gero Eñauten sorbaldan jarri zuen burua. Filma amaitu zenean Eñautek Eleneri musu bat eman zion kopetan. Elenek tximeletak nabaritu zituen.

- Gauza bat aitortu behar dizut. Badakit oraindik denbora gutxi pasatu dela baina, gustuko zaitut.
- Benetan? -Elenek
- Bai, eta momentu magiko batean esatea nahi nuen, eta nire ustez hau izan da momentu hori.
- Nik ere berdina pentsatzen dut, baina aste bat itxaron ahal baduzu hobeto.
- Itxaron ahal dut baina, gehiago ez, mesedez. Zurekin egon nahi dut eta hori ez badut lortzen berriro saiatuko naiz, zurekin egon arte.

Aste bat pasatu eta gero, berriz elkarrekin geratu egin ziren eta oso ondo pasatu zuten, barre asko eginez eta dantza eginez. Bi aste pasatu zirenean, ezkongaiak ziren eta Jonek Irenerekin utzi zuen. Irene Elenerekin haserretu egin zen Eñautekin zegoelako. Elenek lagun bat galdu zuen baina pertsona oso on bat irabazi zuen.



Urte bat pasatu eta gero, batera segitzen zuten eta oso pozik gainera.



Aitor Rodriguez Labaka
DBH 4. maila

“Idazten eta kirolean afizionatua, baina alfertasunean profesionala”

IGNAZIO NEUREA DA!

Munduan anitz diren bezala, bazen Oihan deituriko nerabe bat. Hark, beste gazteek bezala, gogoko zuen mobilean eta ordenagailuan ibiltzea, etxean ez zuen ezertan laguntzen, eta gurasoen aholkuak ez zituen aintzakotzat hartzen. Josek eta Mariak, gurasoek, ez zekiten zer egin, askotan kentzen zioten mobila eta ordenagailua, baita interneta ere noizbait, baina hori egitean Oihan kalera irteten zen neskatan, eta berandura arte zegoen kalean; horren ostean aitita Ignazioaren etxera joaten zen lo egitera. Hurrengo egunera arte ez zen etxera itzultzen gurasoak kezkatuta utziz. Hura Ignazioarekin oso ondo konpontzen zen, beti zegoen bere ondoan eta zekien guztia berarengandik ikasi zuen, aititari ez zion ardura biloba berarenean lo egitera geratzea, baina bai arduratzen zuten gurasoekin zituen arazoek. Horregatik esaten zion gurasoei kasu egin behar zaiela eta etxean lagundu egin behar duela. Bazkalorduren ostean, aititarekin jan ostean etxera bueltatzen zen eta bere logelan geratzen zen berriro, mobila eta ordenagailua itzuli arte amak edo aitak. Oihanek interneta sare sozialetarako erabiltzen zuen, arriskuez jabetu gabe, eta edozer gauza sinesten zuen. Behin baino gehiagotan gertatu zitzaion bere telefono zenbakia webgune batean sartzea eta gero mugikorreko fakturan hilero diru gehiago kobratzea eta gurasoek mezu bat bidali arte esanez:

Euskalteleko arduradunari
2016-04-01

Kaixo, mezu hau idazten dizugu jakinarazteko, gure semeak nahi gabe webgune batean bere telefono zenbakia sartu duela eta orain gure telefono fakturan diru gehiago kobratzen ari zaretela, horregatik eskatzen dizuegu mesedez eta faborez diru hori ez kobratzea hilabete honetatik aurrera.

Eskerrik asko

Jose Akordagoitia eta Maria Arrustagoienetxea

Mezu hau bidali ondoren zure etxera mezua bat heldu behar zen, eta hortik aurrera dena normal segitzen zuen telefonoaren fakturan zure kontratuaren arabera. Horrelako gauzak gertatu zitzaizkien askotan, baina oraingo honetan gertatu zitzaiena ez zitzaien arinago gertatu.

Oraingoan gertatutakoa Oihanek ez zuen nahi inor enteratzea, eta horretarako egin behar zituen gauzak inori ezer esan gabe egin behar zituen. Oraingoan, norbait hasi zitzaion berbetan ordenagailutik, baina ez zekien nor zen. Perfileko fotoan neska eder bat agertzen zen eta sarean zituen argazkietan oso polita zirudien. Oihanek berarekin berba egiten segitu zuen, eta bere gauza pertsonal batzuk ere kontatu zizkion neskari. Baina hark ez zekiena argazkikoa ez zela benetan existitzen, eta pantailaren atzean zegoena iruzurti bat zela eta dirua eskatuko ziola. Egunak pasatzen ziren eta “txateatzen” segitzen zuten; eta gero eta gauza pertsonal gehiago kontatzen zizkioten elkarri. Oihanek azkenean telefono zenbakia bidali zion eta whatsappetik berba egiten hasi ziren. Arratsalde batean, etxea hutsik zegoela iruzurtia sartu, eta pistarik utzi gabe, 100 euro hartu zituen. Josek, konturatzean, Mariari kontatu zion diruarena, eta hark Oihani galdetu zion non zegoen. Hark ez zekien zer gertatzen ari zen, baina gurasoek uste zuten ehun euroak nerabeak zituela. Hori ez zen txarrena, horrelako gauza asko gertatzen hasi ziren beraien etxean, eta Ignazioaren etxean ere, gurasoek telefonoa hartu eta poliziari deitu zioten gertatzen ari zena kontatzeko; poliziak dena begiratu zuen baina ez zuen arrastorik aurkitu. Azkenean, iruzurtiak Oihani esan zion berak lapurtu zuela dena, eta ez zela argazkiko neska, baina norbaiti zerbait esanez gero bere aitita Ignazio hilko zuela. Oihanek hori irakurri ostean ez zekien zer egin, eta badaezpada aitona salbatzearen ez zuen ezer esan, gehien maite zuen pertsonak alde egingo zuelakoan. Gau aldera, ohean zegoela, gertatutakoaz pentsatzen ari zen. Egunero heltzen zitzaion mezua bat hari gauza bat egiteko esanez. Lehenengo mezuan, denda batera joan behar zuen, eta hantxe lapurtutako gauzak ikastolaren atzean zegoen mendiaren arbola altuenaren ondoan utzi behar zituen, bestela aitona hilik aurkituko zuen hurrengo goizean. Oihan Eroskira abiatu eta lapurtzen hasi zen, ez zituen balio handiko gauzak hartu, baina aitita bizirik aurkitzearen ordezkari gertatu zen edozer egiteko, ikastolako motxilan gorde zituen lapurtutako gauzak. Dendatik bueltaka zebilela dendari bat hurbildu zitzaion:

-Laguntzarik behar duzu, gazte? Zerbait bilatzen ari zara?

-Ez trankil, ez dut laguntzarik behar, eskerrik asko.

-Ongi da, baina zerbait behar baduzu, galdetu arazo gabe.

Oihan gutxigatik libratu zen, ia harrapatu zuen dendariak, kanpora irten baino lehen Coca-Cola bat hartu zuen eta ordaindu, disimulatzearen. Hurrengo egunean aititaren etxera joan zen eta bai, bizirik zegoen.

Bigarren mezuan kaleko jendearen diru zorroak hartu behar zituen, bost gutxienez, eta arbolararen eraman. Herrian zegoen erdiko kalera abiatu zen hantxe zegoelako aukera gehien lapurtzeko. Azkenean, ikusten zuenean pertsona bat diru zorroarekin atzeko poltsikoan edo poltsa irekita zuena, horri hartzen zion, errazago zuelako. Halako batean lagun bat aurreratu zitzaion:

- Kaixo Oihan, zelan?

- Ondo, hementxe buelta bat ematen.

- Azkenaldian ez zara internetara konektatu, zer dala eta?

- Ez dut denborarik izan, aitita gaixorik dago eta badakizu zenbat maite dudan, orduan beregana joaten naiz arratsaldean bisitan, horregatik ez naiz konektatzen.
- Bueno agur, etxera noa.
- Agur

Oraingoan ere suertea eduki zuen, ia harrapatu zuen lagunak; gauzak arbolan utzi eta etxera bueltatu zen. Oraingo honetan ere Ignazioren etxera joan zen eta bai, bizirik zegoen. Gurasoek zerbait sumatzen zuten azken aldian, semeak ez zuelako ordenagailua hartzen betiko moduan. Semeak ere bazekien gurasoek zerbait arraroa gertatzen ari zela zekitela, horregatik normalitate gehiagorekin jokatu behar zuen hurrengoan. Hirugarren mezuan urrea lapurtu behar zuen. Oihanek ez zekien nola atera urrea, horretarako aititaren etxera joan zen eta amona hilaren harribitxiak hartu zituen, hark bazekien ez zegoela ondo baina nola edo hala aitita salbatu behar zuen. Ignazioren etxetik irten eta erlojua begiratu zuen, berak bazekien aitita ordu erdi barru helduko zela etxera eta handik at egon behar zuela. Baina halako batean, aurreko eguneko laguna gerturatu zitzaion. Oraingoan ere aititarendana joan zela eta presaka zebilela esan zion gainetik kentzeko asmoz. Berdina egin zuen harribitxiekin, arbolara eraman zituen.

Aste oso bat egon zen iruzurtiarekin berba egin gabe mugikorretik, eta aste horretan buruari bueltak ematen hasi zen. Berak bazekien hoberena gurasoei zer gertatzen zen azaltzea eta poliziari abisatzea zela, baina ezin zuen nolabait aitona arriskuan jarri. “Ignazio neurea da!” esan zuen bere buruarentzat.

Azkenean, ez zuen iruzurtiaren berririk izan, ez zion barbarik egiten telefonoz ezta mezurik bidali ere. Orduan, informatikako maisuarekin egin zuen berba jolastordu batean, pribatuan noski, eta dena kontatu zion hasieratik bukaerara arte. Maisuak ezin zuen sinetsi, burutik txarto zegoela esan zion, baina dena egina zegoen, ez zegoen atzera egiteko modurik, “behin harri bat jaurtiz gero ez da bueltatzen, kasu honetan berdina, dena egina dago eta datorrena datorrela, prest nago esan zion maisuari. Maisua aho zabalik geratu zen, bazekien Oihan mutiko gogorra eta ausarta zela baina ez hainbesterako. Lehenengo ordenagailu bat hartu eta sare guztietako kontuak ondo jarri zituzten segurtasun egokiarekin. Ondoren, gurasoekin batzartu eta dena kontatu, gurasoek ere ezin izan zuten sinetsi gertatutakoa eta zer egin behar zuten galdetu zioten maisuari. Gurasoak etxera joan ziren maisuaren eskuetan dena utziz, eta noski, Oihan ikastolan geratu zen ordenagailuan maisuari laguntzen. Azkenean lortu zuten asmatzea nor zen iruzurtia eta segituan poliziari deitu zioten salaketa bat jartzeko. Poliziak, azkenean, harrapatu zuen iruzurtia eta kartzelara eraman zuten urte batzuetarako. Baina istorioa ez da hemen bukatzen. Oihaneke ere zerbait txarra egin zuen eta ordaindu egin behar zuen, epaileak esan zuen kalean lapurtzearren eta dendan ere umeen egoitzara joan behar zuela, baina kontuan izanik aitona salbatzearren egin zuela eta gauza guztiak poliziak berreskuratu zituela libre utzi zuten. Gertatutakoaren ostean Oihaneke informatikako maisuarekin ikastolan klase batzuk eman zituen sare sozialei buruz, interneteko arriskuei buruz, eta gai horri buruzko beste gauza batzuei buruz. Azkenean, Oihan nagusitu egin zen eta bere istorioa interneten publikatu zuen beste batzuek irakurtzeko, eta unibertsitatean informatikako agiria atera ondoren ikastola batzuetan eta udaletxearen hainbat egitarautan parte hartu zuen bere ezagutzak besteei partekatuz, hitzaldi guztien ostean beti esaten zuen berbera:

Jaio egiten gara, ibilbide luze bati ematen diogu hasiera. Jaiotzean denek maitatzen zaituzte, baina gero eta zaharrago txarrago, batzuek zuganako konfiantza galdu eta

beste batzuek, aldiz, irabazi. Gauzak egiten hasi eta bukatu, gauza berriak ezagutu eta egin, jendea maitatzen ere ikasten dugu eta nik aitita maite nuen, berarengandik ikasi nuen, bera zen nire ibilbideko argia, nirea zen eta horregatik maite nuen, neurea zelako. Nik gauzak lapurtu nituen aitita salbatzeko, baina lehenago aititak niri bihotza lapurtu zidan. Ignazio neurea da!





Lierni Gregorio Zabala

DBH 4. maila

“Musika alboan dudanean, ez dut triste egoteko arrazoirik”

BESTE EGUN BAT

“Bost minutu eta hurrengoa”. Hurrengoa, zein hitz arrunta, arrunta baina gupidagabea, gupidagabea eta beldurgarria. *“Lierni, bi minutu eta eszenatokira”*. Bai, konturatu zarete, hurrengoa ni naiz. Nire aurretik zihoan mutilak, Jonek, amaitu du bere emanaldia, itzel abestu du gitarrarekin batera. Txaloak. *“Aurrera Lierni”*. Bat- bateko isiltasuna, nire oihal atzetik eszenatoki erdiraino doazen pausoak baino ez dira entzuten. Pauso hauek zehatzak, irmoak izan behar zuten baina ez, pauso hauek dudatsuak dira, lotsatiak, beldurra adierazten duten pausoak. Oholtza erdian nago. *“Burua altxatu ala ez?”* da neure buruari egiten diodan galdera. Bai, altxatu dut baina, mila begi niri begira ikustean berriz jaitsi dut. Tik-tak, masailetan berotasuna sumatzen dut. Tik-tak, eskuetan izerdia. Tik-tak, hankak dardara bizian. Tik-tak, arnas erritmoak gora egin du publikoaren txutxu-mutxuekin batera. Ihes egin ala ez? Erabakia hartu baino lehen iratzargailuak izartu nau. Beste amesgaizto bat.

Apirilaren hamabiko goizeko zazpiak dira, osteguna da eta, ohikoa den bezala, ikastolara joan behar dut. Ohetik jaiki naiz, laugarren biderrez bizitako amesgaitz hura alde batera utziz. Lau gau daramatzat, bai, lau gau luze eta amaiezin egoera beldurgarri hura amesten. Hala ere, bada arrazoi bat amets horien zergatia azaltzen duena: Alai musika eskolak emanaldi bat antolatu du ostiralerako, hau da, biharko. Bertan, hainbat ikaslek antzeztuko dute. Batzuk abestu, beste hainbatek musika tresnak jo ... Ikasle horietako bat neu naiz. Pianoa joaz batera, abestu egin behar dut.

Ohartu naizenerako, gosaria ere bukatuta daukat. Ilea atondu, hortzak garbitu, ama agurtu eta autobus geltokirantz abiatu naiz. Ikastetxerako bidean ere, musika entzuten noan arren, ezin dut deskonektatu. Denbora igaro ahala, berreskuraezinak diren minutuak joan ahala, biharko ikuskizunean pentsatzean, barruan dudan beldurra apurka-apurka handitzen doa. Institutuko atera helduaz batera ohartu naiz gaurkoa egun gogorra izango dela.

Halaxe izan da bai, orain arte, gogorrenetan gogorrena. Matematiketako irakasleak ez al nau ba ordu osoa arbelean eduki! Ariketa bat amaitu eta hurrengoa hasi, bat amaitu, bat hasi. Gorroto dut arbelera irtetea. Akatsik ezin egin, letra polita egin

behar, gelako pailazoa bihur ez zaitezen brageta itxita duzula ziurtatu ... Onartu beharra daukat inoiz ez zaidala horrelakorik gertatu eta erratzea naturala dela, inor ez dela perfektua, baina horrek ez du balio nire lotsa eta erratzeari edo barregarri gelditzeari diodan beldurra deuseztatzeko. Hori gutxi balitz, euskarako saioan ozenki irakurtzea egokitu zait. Hona hemen gorroto dudan beste gauza bat. Irakasleak “hurrengo” esan eta nire txanda iritsi da. Lotsa agertu da, eta honekin batera, izerdia, dardarak eta masailetak gorri kolorea. Ahotsa nire gorputzeko zirrikiturik sakon eta ilunenean ezkutatu eta mutu utzi nau. Kostata, egokitu zaizkidan bi lerro madarikatu horiek irakurtzea lortu dut.

Musika eskolako atera heldu naiz, gaur baita emanaldi aurreko azken entsegua. Egurrezko ate erraldoia zeharkatu, harreragilea agurtu eta eskaileretan gora joan naiz. Zenbat aldiz igo ote ditut eskailera hauek? Hamabost bider lau, ez, hirurehun eta hirurogeita bost zati ... Iritsi naiz gelara, arraroa da baina, badirudi eguneko kezka guztiek alde egin dutela.

- *Kaixo Lierni!*

- *Hola* – erantzun diot irakasleari, beti bezala-.

Aurpegiarekin keinu arraro bat egin du, kezkatuta balego bezala.

- *Zer gertatzen da ba?* - galdegin dit-.

- *Ezer ere ez, nekatuta nago, besterik ez* – badakit ez duela sinetsi baina, ez daukat azalpenak emateko gogorik-.

Dena prest dagoela ikusi eta, ahotsa berotu ondoren, piano aurrean eseri naiz. Besoak luzatu ditut, hankekin batera. Arnasketa sakon bat egin dut. Beldurra? Lotsa? Non zaudete? Arrastorik ere ez. Atzamarrak piano teklen gainean jarri eta magikoak balira bezala, mugitzen hasi dira, partitura jarraituz. Automatikoki, ahotsa bere ezkutalekutik atera eta gela osoa bete du. “Step one you say we need to talk ...” Izerdia? Dardara? Non zaudete? Erantzunik ez.

Irakaslearen txaloekin batera amaitu dut entsegua. “*Zorionak Lierni, primeran egin duzu! Gorde indarrak biharko*” esan dit. Irribarre batekin erantzun diot.

“*Gorde indarrak biharko*”, berdin dio zenbat indar gordetzen dudana. Berdin dio entsegua “primeran” egin izanak. Berdin dio lotsa, beldurra, izerdia eta dardara desagertzeak, ondo baino hobeto dakit bihar berriro beraien ezkutalekuetatik aterako direla eta nik “gordetako” indar, ilusio eta segurtasun guztiak garaituko dituztela.

Afalordua da. Aitak bere patata tortilla egin du, nire gogokoena. Ahizpa txikia ari da hizketan, gaur ingeleseko azterketa egin duela ... aita ere amarekin hizketan. Bitartean, nire tortilla zatiak berdin jarraitzen du, osorik. Ama ohartu da eta zerbait gertatzen zaidan galdetu bezain pronto, goserik ez dudala erantzun diot. Mahaitik altxatu eta logelara abiatu naiz. “*Adina izango da*” zioen aitak.

Mila bider kontatu diot amari jendaurrean agertzeko dudana beldurra. Izu eszenikoa, berak dioen bezala. “*Pentsatu bakarrik zaudela*” edo “*denborarekin joango da, lasai egon*” dira bere erantzunak. Sarritan ere isilik geratzen da, nola erantzun jakingo ez balu bezala. Jada ez dut familiarekin gai honi buruz hitz egiten, zertarako? Beti erantzun berdinak jasotzeko? Lagunekin ere komentatu dut, baina kontuz, ez edozeinekin, lagun minekin bakarrik. Gauza da, axola zaie? Nori axola zaizkio nire

kezkak edota arazoak? Ez naiz arazoak dituen pertsona bakarra! Denborarekin ikasi dut buruhauste eta nekeak neure barnean gordetzen baina, baita ikasi dut, gutxika-gutxika pilatzen doazela eta noizbait eztanda egingo dutela.

Badirudi oraindik ezetz.

Gogoetak alde batera utzi ditudanerako, burkoa malkoz beteta daukat, baita logela hankaz gora ere, liburuak handik, arropak bestetik ... berdin zait. Hortzak garbitu eta berriz ohean sartu naiz.

Entzungailuak jarri eta nire playlist gogokoena martxan jartzearekin batera *“Bihar beste egun bat izango da Lierni”* esaldia ozenki esan dut, neure burua engainatzeko asmotan, baina alperrik.

Azken ahots beroketak egin eta gora. Eszenatoki atzean nago partitura eskuetan dudala. Harrigarria da zeinen ongi jotzen duen Nilek biolontxelo. *“Bost minutu eta hurrengoa”*. Ondo dakit nik hurrengoa nor den. Ikusleen txalo zaparradarekin batera berriz agertu da ahots ezagun hura *“Lierni, eszenatokira”*. Badakit jarraian zer datorren. Ibiltzen hasi naiz, lehen ziren pauso ahulak boteretsu bihurtuz. Burua tente daramat, sinestezina izan da mila begi horiek ikusterakoan nire ahoan marraztuta agertu den irribarre zabala. Piano aurrean nago. Oraindik beldurra eta bere lagunak ez dira agertu. Atzamarrak piano teklen gainean jarri eta ...

Iratzargailuak jo du. Ohetik jaiki eta komunera joan naiz. Ispilu aurrean nagoela *“Gaur beste egun bat izango da Lierni”* esan dut, beste egun bat.



Nagore Bermeosolo Saitua

DBH 4. maila

“Oso gustuko dut literatura nire irudimena erabil dezakedalako”

BAKARDADEA

Beharbada
aurreko bizitzan
oso gaizki
portatu nintzen
eta horregaitik
oraingo honetan
hementxe ari naiz
hiltzen

Nire inguruko
ume guztiekin
hitzegiten dut
goiz eta gau
eta ez da
uste duenik
bidezkoa dela
bizi hau

Oso txiki
nintzela
utzi zidaten
bertan
eta ordutik
ezin izan dut
bakardade hau
jasan

Egia esan
badut
lagun bat
edo beste
baina hemen
ez banintza
ezagutuko
nintuzke?

Norbait
gu ezagutzera
etortzen den
bakoitzean
gutariko bat
soilik
izango da zoriontsu
aurrerantzean

Bi hilabete neuzkala
utzi zuten
nire gorputz biluzia
toki hontako atarian
zapi batez
estalia
gau ilunaren
erdian

Nire oinen azpian
paper zimur bat
eta negar tanta
pila
paper hartan idatzita
“Ahal bezain laister
etorriko gara
bere bila”



Izaskun Izagirre Urizar

BATX 1. maila

“Ahaleginak egin gabe ezinezkoa da arrakasta izatea”

ERRAUTSETATIK ITXAROPENERA

Baserri zahar hartan, sugarrak ziren nagusi. Pixkanaka-pixkanaka kea zerua estaltzen hasi zen eta etxebizitza hura guztiz kiskalduta eta deseginda gelditu zen. Ilundua zen jada, baina suaren argi indartsu hura argindarra zen inguruko paisaiarentzat. Goiz hartan, poztasuna eta iskanbila agerian izan arren, momentu batetik bestera egoerak bira nabarmena eman zuela begi bistakoa zen.

Suhiltzaileek euren lana bete ostean, auzokideak hurbiltzen hasiak ziren eta kuxkuxeroenak galderak egin eta egin zebiltzan gertatutakoaren berri izateko lehenbailehen, eta biharamunean txutxu-mutxuan aritzeko. Gainontzekoak, aldiz, borondate onenarekin, laguntza eskaintzen ziguten eta euren etxeetako ateak zabaltzen zizkiguten gaua pasatzeko behintzat. Ez zen gutxiagorako ere. Bat-batean, konturatu ere egin gabe, amona, nire bi ahizpa txikiak eta laurok etxerik gabe gelditu ginen. Ez nekien gai izango ginen egoera latz hari aurre egiteko. Momentu hartan, egun nazkagarri hura ezabatzea zen nire desio bakarra.

Negar malkoek amonaren aurpegia zeharkatzen zuten. Ni neu ere guztiz hunkituta nengoen baina familia aurrera ateratzen lagundu behar nion. Ez zegoen beste aukerarik. Nork egingo zuen bestela? Hala ere, ulertzekoa zen amonaren ezinegona. Ezkondu zen egun berberetik, baserri hartan bizi izan zen; gure aitona ere hantxe ikusi zuen azkeneko aldiz. Milaka oroitzapen zituen amonak bihotzean gordeta, baina gau hartako hondamendiak, guzti-guztiak lausotu eta deuseztatu zizkion, hutsaren parera eramateraino. Bizimoduak kolpe izugarria eman berri zigun, baina, neure buruari galdera bakarra egiten nion, ”eta orain zer?”.

Urte amaiera zen, neguak bete betean harrapatu gintuen. Nabaritzen zen tenperaturen bat-bateko beherakada, sasoirik okerrera kale gorrian geratzeko. Amonaren ahizpa bati esker, gaua berotan pasatu ahal izan genuen, berak hartu

baikintuen haren etxean. Goizaldean, Inesek, ahizparik txikienak, izartu egin ninduen; izututa zegoen-eta. Nik ez nekien nola lasaitu etxeko txikiena; nire babes osoa eskaini nahi nion, baina ez nekien nola.

Argi izpi ahul batek gelako iluntasuna desagerrarazi zuen. Egia esan, ez nuen lo gehiegirik egin gau hartan; nire begi-zulo nabarmenek argi uzten zutenez. Ez nik ezta amonak ere. Goiz hartan nirekin hitz egin nahi zuela adierazi zidan. Jakin-min handiz hurreratu nintzaion eman behar zidan berriaren ikaraz. Jakinarazi zidan, bere logela zen hartan, burdinazko kutxa bat zeukala gordeta eta nik berreskuratzea nahi zuela. Ez zidan azalpen gehiagorik eman nahi izan. Oso arrisksua zen eskatzen ari zitzaidana, baserria erortzeaz baitzegoen. Zutabe haietako bat nire gainera erori eta akabo. Hala ere, kutxa haren edukia berarentzat garrantzi handikoa zela behin eta berriz errepikatu zidanez, konbentzitu egin ninduen eta bere eskaera onartu nuen.

Ez nengoen guztiz ziur ondo egin izanaz onartzean, baina nire hitza emana nuen jada. Ondo edo gaizki, gure baserrirako bidean nindoan, kirioak dantzan nituelarik. Baserriaren atzealdean ate txiki bat zegoen eta bertatik sartzea erabaki nuen, inork ni ikus ez nezan, debekatuta baitzegoen baserrira sartzea. Noizean behin, sagu txikiren baten zaratatxo entzuten zen, baina bestela isiltasuna zen jaun eta jabe. Isiltasun horrek, ni are gehiago urduritzea baino ez zuen lortzen. Hango ke usain sarkorra zela eta, ahalik eta gutxien arnasten saiatu nintzen eta nire helburua ahalik eta azkarren bete nahi nuen, handik lehenbailehen irteteko. Amonak esan bezala, bere logelarantz abiatu nintzen. Harrigarria zen, sute hark etxea nola utzi zuen ikustea. Gela hartako izkina guztietan begiratu, eta kostata baina aurkitu nuen kutxa hura. Barruan munduko altxorrik preziatuena egongo balitz bezala, bizkar-zorroan gorde, etxeari azken begirada eman eta ziztu bizian ihes egin nuen.

Lasaitu ederra hartu nuen handik metro batzuetara urruntzean. Jakin-minak gailenduta, bizkar-zorrotik atera nuen kutxa hura. Nola edo hala, zabaltzeko ahaleginak egin nituen, baina ezinezkoa zen nire asmoa betetzea. Sarraila bat zeukan erdi-erdian. Buruari bueltak eta bueltak eman ostean, amonak lepotik zintzilik giltza txiki bat zeramala gogoratu nuen. Ziurrenik, giltza hark sarrailaren zuloarekin bat egingo zuen. Dena den, nik etxera itzuli arte itxaron beharko nuen nire jakingura asetzeko. Horregatik, pausoa arindu nuen berriz ere nire etxekoekin elkartu eta misterioa argitzeko.

Amonarekin bat egin bezain laster, mahai baten inguruan elkartu ginen laurok. Amona tarte baten solasean aritu ondoren, ulertu nuen haren ezinegona. Azaldu zigun legez, gure amak eskutitz bat utzi zion gure ondotik alde egin aurretik eta burdinazko kutxa hartan zegoen gordeta. Gure amak nire ahizparik txikiena jaio bezain laster, gure bizitzetatik alde egin zuen, inolako azalpenik eman gabe. Amona eta bion artean, etxeko txikienak zaindu eta hezi genituen eta nik neuk beraien ama izan banintz bezala, eginkizun eta ardura guztiak hartu nituen neure gain. Horregatik, gaztetxo nintzenetik oso neskatila heldua izan naiz beti, ideiak garbi dituen horietakoa. Egia esan, ez nuen ulertu amaren bat-bateko ihesa eta ez nion barkatu ere egin, ez baitzidan nire hartzaroa behar bezala disfrutatzen utzi.

Antza denez, amak utzi zigun eskutitza amonak ez zigun erakutsi nahi izan, gure atsekaberako baino ez zela izango uste zuelako. Alde batetik, ulertu nezakeen amonaren erabakia, baina bestalde, nik ez nuen era berean jokatu, ez nuen hainbeste urtetan

zehar ezkutuan izango, eskutitz hartan jartzen zuena jakiteko eskubidea genuela uste bainuen.

Hala ere, irakurtzeko ordua heldu zen jada. Gutun-azala irekitzean lanak izan nituen, eskuak dardarka nituen eta. Barruan zegoen orria atera, eta ireki nuen. Ez zen oso gutun luzea baina nire zalantza guztiak argitzeko itxaropena neukan. Amaren idazkera, berehala ezagutu nuen. Dardara batek barrua astindu zidan eta ahotsa leundu ostean irakurtzeari ekin nion:

“Alaba maiteok:

Badakit gutun hau irakurri orduko, nirekin guztiz amorratuta egongo zaretela, eta arrazoi osoa duzue. Izan ere, zuen ama izanik, neure alabak alde batera utziz alde egitea barkaezina da. Baina jakin ezazue bat-batean alde egin badut, ez dela nire borondatez izan, denon onerako izango zela uste nuelako baizik. Nirekin zerikusirik ez duen hilketa baten errudun izatea leporatzen didate. Ez daukagu abokatu bat ordaintzeko txakur txikirik ere. Hemen jarraituz gero, preso hartuko naute, nahiz eta benetako erruduna aske egon. Beraz, alde egitea erabaki dut, oraindik ez dakit nire helmuga zein izango den baina urrutira joango naiz bizitzera.

Amaitzeko, gogorarazi nahi dizuet hainbeste kilometrok bereizten gaituzten arren, beti gogoan izan eta nire bihotzean eramango zaituztedala.

P.D. Egunen batean, munduan zehar dagoen txokoren baten zuekin berriro elkartzea gustatuko litzaidake eta urte hauetan galdutako harremana berreskuratzea.”

Zur eta lur gelditu nintzen irakurritakoarekin, baina une hartan, gure baserria erre bazen ere, nire amarenganako maitasuna garren artetik berpiztu zen. Izan ere, hori gertatu ezean, ez nukeen eskutitza irakurriko eta amarekiko nuen oroitzapena baserriko errautsen artean kiskalita geratuko zatekeen.

Momentu batetik bestera, bizitzarekiko ikuspuntua zeharo aldatu zitzaidan, errautsek sortutako etsipenetik itxaropenerako jauzia emanez.



Garazi Foruria Naberan

BATX 1. maila

“Bihotza bezain bero, zabalik besoak eta eskuak gorririk
ikus dezagun egia argiz beterik burua”

ISTILUA

*“Bizi naizen artean, ez ditut ahaztuko egun haietan
Nire belarriak zauritzen zituzten negar hotsak”
(Emmeline Pankhurst)*

“1913ko egunen bat.

*Lau horma honetako zulo zikinean hil behar banaiz, hala izan dadila. Baina ez naiz
joango arrastorik utzi gabe.*

*Ez dakit zenbat egun pasatu diren jada atxilotu nindutenetik, egunen kontua galdu nuen
aspaldi. Gauak zein egunak berdín dira leiho gabeko gela ilun honetan. Hasiera batean
patiora irteten uzten ninduten, aire garbia arnasteko aukera nuen behintzat. Baina
orain, egunak lastozko ohe zikin batean jarduten ditut.*

*Ez dagoenez ezer egiteko idaztera dedikatzen naiz, denbora nolanahi aprobetxatu behar
baitut. Batzuetan poesia, bestetan ipuin laburrak, manifestu bat ere idatzi dut eta orain
nire bizitza aurkeztuko dut.*

*1888ko maiatzaren 17an, Canterburyko gela bakarreko etxe txiki batean jaio nintzen.
Sei neba-arreben artean txikiena. Aita, ama, aittitte, amuma, bost seme eta alaba
bakarra gela bakar bat partekatzen. Gurasoek eta aitona-amonek sukaldean egiten
zuten lan. Guk, etxe txikiarenok, kortan. Hilda behiarekin eta Joseph astoarekin.*

*Nekazal familia soil bat ginen. Bizitza arruntekoak. Goizean goiz esnatu oilarraren
kukurrukuarekin batera, eta lanera eguzkia desagertzen hasi arte.*

*Bost urte nituela amak eta amonak gaixotasun arraro bat harrapatu zuten. Aitak eta
aitonak emakumearen gaixotasuna deitzen zioten. Nire nebetako lau nirekin sartzen
hasi ziren, ea noiz harrapatuko nuen gaixotasun hura galdetzen. Askotan neska zara eta*

ez duzu ezertarako balio eta holakoak entzun behar izaten nituen. Babesten ninduen bakarra nire neba zaharrena zen, Hugh. Non egongo ote da orain?

Nire nebak beti esaten zidan bizitza honetan urrun helduko nintzela eta etorkizunean zerbait garrantzitsua egingo nuela. Eta arrazoi zuen, momentu honetan zerbait garrantzitsua egiten ari naiz. Nik sinisten dudan borroka batengatik nago kartzelan eta ez naiz bat ere damutzen.

Azkenean ama eta amona biak hil ziren. Eta bakarrik geratu nintzen, etxeko emakume bakarra. Sei urterekin hauek egiten zituzten lanak egiten ikasi behar izan nuen, emakumearen lana deitzen ziotena: etxea garbitu, etxeko gizonak elikatu... Ez zitzaidan bat ere ondo ematen, ezta gustatzen. Aita beti haserretzen zen eta inork ez zidan laguntzen, Hughek besterik ez.

Lau urte beranduago Aitak momentu ona zela pentsatu zuen, orain arte gordetzen ibili ziren dirua inbertitzeko bere seme nagusiaren onerako. Ikasketa batzuk izango zituen. Abokatu izateko ikasiko zuen, hiriburuan.

Berri onak ziren eta pozik nengoen nire nebagatik baina tristura sentitzen nuen barnean. Bakarrik utziko ninduen gizon harroputzekin. Abandonatua sentitu nintzen hurrengo bost asteetan.

Hugh Londresera joan baino hiru egun arinago ,gutxi gora behera, aitari ni berarekin eramatea proposatu zion. Londresen fabrika batean egingo nuen lan, eta dirua etxekoentzat izango zen. Diruarena ez zitzaidan ideia ona irudit, nik ere beharko bainuen baina etxe hartatik ihes egiteko edozer. Aitonari ideia ona irudit zitzaien, aitari berriz, ez. Hau konbentzitzea zailagoa izan zen. Azkenean aitona eta Hughen artean lortu zuten.

Hiru egun beranduago Londreserako bidean ginen. Eta bi egun beranduago Londresen ginen.

Aitaren lagun batek batu gintuen tren geltokian. Bere etxean geratuko ginen, ni norbaitekin ezkondu arte eta nire neba ikasketak amaitu arte. Aitaren lagunak eta bere emazteak oihaltzen fabrika batean egiten zuten lan. Eta niretzat ere lan bat lortu zuten fabrikari bertan. Ez zen munduko lanik onena, soldata eskas baten truke, egoera oso txarra batean egin behar nuen lan, ordu oso luzeak. Gainera fabrikako nagusia tipo oso txarra zen eta esaten ohi zen langile emakumeetatik abusatzen zuela.

Hamar urteko nekazal neskato bat Londresko hiriburu handian, fabrika txatxu batean lanean. Ematen duen bezala, ez zen oso bizitza zirrargarria. Nekazaritza lanetik, etxeko beharretara, etxeko beharretik oihalak tolesten fabrika batera. Lan monotonoa zen bezala, eguneroko bizitza hala zen. Esmatu, lanera eta oheratu. Egunekeo janaria ogia, zopa eta indabak. Nire neba gero eta gutxiago ikusten nuen; goizez klaseetara joaten zen, arratsaldean etxe aurreko dendan egiten zuen lan eta gauetan ikasten ibiltzen zen. Egunerok berdin.

Hamabost urte nituen lehen aldiz bortxatu ninduenean fabrikako nagusiak. Ez dut inoiz ahaztuko, lan postutik atera ninduen eta bere bulegora eraman ninduen. Desirarekin begiratzen zidan, nik aldiz, nazkaz. Pederasta halakoa. Txerri zikina. Soinekoa altxatu zidan, bere esku zikinek nire azala ukitu zuten, kuleroak kendu zizkidan. Ezin dut azaldu nolako narda daukadan gizon honekiko. Egunero beren aurpegi eragozgarria ikusi behar lanean. Eta txarrena ez nintzela lehenengoa izan ezta azkena. Laster galdu zuen interesa nigan, urtetxo batzuk beranduago zaharregia nintzen berarentzat. Beste neskato gazte batengana jo zuen.

Honetaz pentsatzeak ez dakizu zelako amorrua ematen didan. Dirudienez, ez zaio nahikoa iruditzen haiek baino gutxiago garela moduan tratatzea baizik eta gutaz abusatu eta jostailu bezala erabili behar gaituzte. Gainera, mundu honetan ez daukagu ez ahots ez botorik, ezin dugu bizitza politikoan parte hartu. Ez dugu ia eskubiderik. Gizakiak ez bagina bezala tratatzen gaituzte eta egunero pairatu behar ditugu gure aurkako txiste txarrak, mehatxuak, barreak...

Laster hori aldatua izango da. 1903an Emakumeen Sindikatu Sozial eta Politikoa sortu zuen emakume talde batek, Emmeline Pankhurst lider bezala.

Hemeretzi urte nituenean nire nebak ezkonarazi egin ninduan, bere klase kide baten nebarekin, William Abbot. Nire onerako zela esan zidan. Ez zitzaidan ideia gustatzen baina nire neba ezagututa banekien behar den moduko mutila izango zela nire ezkongai.

Nire aitaren menpe izatetik, nire nebaren menpe; nire nebaren mendetik William honen menpe izatera iritsi naiz. Emakumeok ez dugu aske izateko aukera.

Ezkondutako baino lehen ezagutzeko aukera izan nuen. Itxura oneko mutila zen, ni baino urte bat zaharragoa. Bere gurasoen tabernan egiten zuen lan eta bi arreba gazteago zituen. Gizon umila, langilea, eta begirunetsua.

1907ko uztailaren 29an ezkondu ginen.

Esan liteke bizitzako momenturik onenak izan zirela. Baina zerbait zegoen faltan. Oraindik eragotzi egiten ninduen emakumeok aske izateko aukera ez izateak eta are gehiago boto eskubiderik ez izateak. Emakumeen Sindikatu Sozial eta Politikora batu nintzen. Hasieran propaganda soila egiten zuten. Hiru lau kartel kaleetan zehar. Jendea ohartarazteko eta gure borrokara batzeko. Baina gobernuak arin isildu zuen mugimendua. Baina ez genuen amore eman. Ni batu nintzenerako jada beste fase batean zeuden. Manifestazioak egiten hasi ginen eta gure egunkari propio bat fundatu genuen, Botoa Emakumeentzat. Auzitegira ere joan ginen, gure eskubideak aldarrikatzera. Ez ziguten kasu handirik egin. Gobernuak edozer egiten zuen “mehatxua” isiltzeko.

Orduan hasi zen kontua. Nazkatuta geunden isiltzearekin. Zarata gehiago egiten hasiko ginen gizonek ulertuko zuten hizkuntza batean, biolentzia. Hasieran atentatu txikiekin hasi ginen, dendetako leihoak apurtzen. Polizia esku hartzen hasi zen eta emakumeak kartzelatuak ziren. Jada ezin ginen batzartu Pankhursten etxean. Pankhurst bera ezkutatu egin behar izan zuen. Ezkutupean batzartzen hasi ginen nire senarraren tabernan gauetan. Gure hurrengo mugimenduak planeatzen genituen eta kartzelan

geundela nola deitu atentzioa pentsatu genuen. Gose greba. Kartzelatuak baginen, gose greba egingo zela adostu genuen, kartzelariei ez zaie interesatzen sufragista bat euren eskuetan hiltzea eta.

Gose grebaren ondorioz kartzelariak atxilotuak indar-elikatzen hasi ziren. Ez dirudi hain bortitza hala esanda baina tortura mota bat da. Aulki edo ohe batera lotzen zaituzte eta hodiak sartzen dizkizute sudurretik eta ahotik triparaino. Ez da bat ere atsegina. Oihu egiten duzu eta, baina ez dago inor zu salbatzeko.

Tortura honen berri izatean sufragistok herritarren sinpatia irabaziz joan ginen.

Baina duela gutxi, egoera honi aurre egiteko gobernuak lege barri bat aplikatu du. Orain norbaitek gose greba egiten badu, gose-grebak bere osasunari eragin bezain laster, preso askatzeko baimena daukate. Presoa bere onean dagoenean berriz, beratxilotua izango da zigorraren epea amaitzeko.

Eta hala nago ni. Gose greban.

Nik dagoeneko ia urte osoa daramat kartzelan. Urte osotik erdia edo gose greban. Legea nahiko berria denez, izan ditut nire indar-elikatzeko saioak.

Oraindik sentitzen dut sudur eta aho-hodietan tubo madarikatu hori.

Gau argia zen, ilargi betea eta izarrez josita. Kalea isilik zegoen. Gau lasaia.

Senarraren tabernan batzartuta geunden, Pankhursten aginte berriak genituen. Manifestazio bat prestatzen ari ginen, polizia atetik ostiko batez sartu zenean. Arrastaka sartu gintuzten kamionetan. Oraindik ez dakit zer gertatu zitzaion Williameri. Baina mesedez eskatzen dut jaungoikoari bera babesteko, ez baitu ezer txarrik egin.

Kartzelara iristerakoan, biluztu eta mangerazo batekin duxatu gintuzten. Ondoren kartzelako uniformeak eman ziguten. Gela isolatu batzuetan sartu gintuzten eta banan banan itaundu ziguten. Pankhursten aurkintza bila zebiltzan eta oraindik dabilta.

Honela gaur arte heldu gara.

Batek daki zer gertatuko den ondoren. Baina esperantza daukat egunen batean emakumeok gizonekiko berdintasuna lortuko dugula. Eta hala izan arte borroka ez da amaituko.

Ni Elidith Abbot naiz eta hau nire istorioa da.”

1918an Britainia Handian boto eskubidea lortu zuten.
Berdintasunerako bidean pauso handi bat.



Jon Santa Maria (testua)

Amurrio Fernandez (irudiak)

BATX 1. maila

“Zer bilakatu ote ziren nire desira zaharrak”

IHESA

Marcorinhan, Narbonako bizkonderria, Okzitania, 1210. urtea.

Donat de Névian infanzoi zaldunak bertan dauzka etxea eta lurak. Alaba bi, Flors eta Auda, berarekin bizi dira. Emaztea, Anhes de Bram, hil zen orain urte bi eta harrezkero koinata Margarida etorri da etxeko lanak gobernatzera. Donaten aita militarra izan zen eta haren bidez lortu zuen behe nobleziako infanzoi titulua. Eta prestakuntza militarra, diziplina eta izaera zurrana. Katoliko elizkoia, Inozentzio III. paparen jarraitzaile sutsua da.

Iaz, bere jaun Aimeric III. bizkondeak deituta, papak bultzatzen zuen kataroen kontrako gurutzadan borrokatzera joan zen. Zaldia eta ezkutaria eroan zituen. Besièrs-eko sarraskian parte hartu zuen. Herriko elizetan zegoen jendea errefuxiatu. “Akabatu denak!. Jainkoak jakingo du bereizten nortzuk diren bere aldekoak eta nortzuk herejeak” agindu zuen paparen delegatuak, soldaduak elizetan sartu eta ume edo zahar, gizon edo emakume, kataro izan edo ez, denak hil zituzten. Hamabost mila bizilagun baino gehiago, Besièrs-eko populazio erdia, hil zuten.



Carcasona. Kataroen kontrako jazarpena

Aurten ere, Simon de Montforten armadan sartu da kataroen kontrako jazarpenarekin segitzeko, Menèrba herrian.

Pasa den urtean Estève semeak alde egin zuen etxetik. Haren desagerpenak oinazea eta etsipena eragin dizkio Donati. Izaera mingostu zaio. Estèvek infantzoi titulua oinordetzan jasoko zuela zen Donaten amets ederrena. Bere jainkoak ez zien otoitzei jaramonik egin Anhes emaztearen gaixoaldian eta orain ere Estève agertzeko erreguari ez dio erantzuten.

Gerran ez dagoenean ez da lurrez arduratzen. Zerealen eta mahatsaren aurtengo uzta galduko denaren beldur da koinata Margarida.

Flors etxeko atarian dago, ilunabarrari begira. Ekaineko amaiera da eta Marcorinhanen jada kandelan eta beheko suen argiek non bizi den herriko jendea seinalatzen dute. Ama Anhes du gogoan. Bera ere egongo zen orain kandelak pizten, afaldu ondoko mahai gainekoa batzen eta logelen egoera berrikusten. Bizitza osoa eman zuen familiaren zaintzan. Hamazazpi urtez eduki zuen lehenengo alaba, Magali. Eta gero beste lau seme-alabak. Etxea, Marcorinhanen ingurua eta seme-alabak izan zen Anhesen horizonte bakarra. Pasa den urteko neguan pneumoniaz hil zen, hogeita hemezortzi urtez. “Ez zuen seme kutunaren desagerpena ezagutu, behintzat” pentsatu zuen Florsek.

Estève nebak merkataria izan nahi zuen. Ehunen salerosketan ogibidea bilatu guran, ama hil ondoren eta aita gerran zegoela aprobetxatuz, enbarkatu zen Marselharantz. Ontzia eta eskifaiarekin galdu zen itsasoan. Hemezortzi urtez. “Militar izatea errefusatzeko zuen. Ezin zuen aitaren presioa jasan prestakuntza militarra egiteko”. Ilargia ekialdetik goratzen zen zeruan. Florsek hasperen egin zuen hari begira. “Estèvek gorrotoa zien armei. Zapalkuntza, sufrimendua eta heriotza zekartzatela esaten zuen. Benetako ausarta izan zen, gaixoa”. “Flors, sartzeko etxean dio izeko Margaridak” oihukatzen dio Audak, ahizpa txikiak, etxeko atetik. “Ni ez naiz nire ahizpen modukoa izango. Catarina nire adinean moja sartu zen Prolhako komentuan eta Magali, hogeita bi urtez eta jada hiru seme-alaba ditu. Andereen patua. Ni ez naiz aita aukeratu duen gizonarekin ezkonduko. Ez dut maite. Beste bizimodu bat, askeago, zoriontsuago, bilatuko dut”. “Flors!, etortzeko baina!. Badakizu zer agindu zuen aita, iluntzean etxe barruan egoteko. Haserretzen hasia da izeko”. Azkenik, gogoz kontra sartzen da etxean Flors.

Ohean etzanda, ahoz gora, sabaian begiak finko, Estève nebaren tragediak astintzen dio oroimena Florsi. Aita Besièrsen zegoen bitartean joan zen etxetik. “Orain Menèrban dago, gerra madarikatu horretan kataro gehiago hiltzen segitzeko..., eta nik alde egingo dut Estèvek legez”. Ohetik jauzi egin eta aurretik ondo hausnartutako plana balitz bezala, bizkor eta seguru, arropa zaharra eta ibiltzeko botak janzten ditu eta zakuto batean, beste arropa batzuen barruan, azken urteetan bildutako dirua: zilarrezko deneir batzuk eta zenbait marko katalan. Eta defentsarako aizto bat.”Hegoaldera joango naiz, Aragoiko erreinura”. Isilka-misilka, gau epelaren babesean murgiltzen da.



Ipuinaren toponimoen kokagunea

Egun bi geroago itzuli zen aita etxera. Betilun eta goibel harrera egin zioten Margaridak eta Audak, Florsen desagertzea kontatuz. Astirik galdu barik, zaldia berriro hartu eta arrapaladan Florsentzat aukeratua zeukan Pèire de Cuxac senargaiarengana abiatu zen. Hura ere infanzoi eta Menèrbatik etorri berria. Laster zer egin adostu zuten. Aloi izeneko Pèireren zerbitzaria bidaliko zuten Florsen bila.

Gazte aparta zen Aloi, altu eta sendo, indartsu eta trebea landetxeko lanabesekin, baita ezpatarekin ere. Bere izaera lasaia islatzen zitzaion urdin iluneko begietan eta aurpegian. Konfiantzako zerbitzaria, pertsona egokia zirudien. Flors ekarriz gero diru galanta promestu zioten, bera eta bere familia eroso bizitzeko adina.

Aloik, birritan pentsatu gabe, onartu zuen eta Flors zelakoa zen Donatek azaldu ondoren, presaka, mando-gurdi batean abiatu zen bila.

Aloi ez zihoan noraezean, Menèrban eraso amaituta, oraindik gatazka barik Pèirapertusa eta Querbús gotorlekuak, Aragoiko mugatik hurbil, kataroentzat seguruak ziren. Bestalde, ezagutzen zen Aragoiko Pedro II. erregeak babes ematen ziela iheska heltzen ziren kataroei. Flors seguruaren hegoalderantz joango zela erabaki zuen Aloik.

Lehenengo gauean ibiliz denbora gehiena pasa zuen Florsek, etxe ingurutik albait arinen urruntzeko. Gero, ahiturik, bide ondoko belar-meta batean egin zuen lo. Hurrengo egunean Menèrbatik ihesiz zihoan talde batekin topo egin zuen. Pèirapertusa aldera joateko asmoa zuten. Laster integratu zen taldean.

Inor ez zen gai Menèrban bizitakoaz ezer esateko. Baten bat zerbait kontatzen hasi eta izuak isilarazten zuen, aurpegia eskuen artean estalita sarraskiaren irudiak oroimenetik ezabatzen saiatuz. Soilik bi neskak, negarrez, zelan soldadu batzuek ezpatekin kolpatzen zuten jendea kontatu zioten. Oinazea muinetaraino sartuta baina ez zuten gorrotorik adierazten. Bizipen ankerren aurrean barneko sendotasuna azaltzen zuten. Aitak hilketan parte hartu izanak amorru itzela eragiten zion Florsi eta etxetik alde egiteko erabakia indartzen zuen.

Gaixo zeudenek, zaharrek eta umeek gehienbat bidaiatzen zuten gurdien gainean. Janaria eskasa baina guztientzat partekatzen zen. “Nik ere zer edo zer ekarriko

dut”, pentsatu zuen Florsek eta hurbileko herrixkaren inguruan zegoen bentan sartu zen taldeko mutiko batekin, karabanak aurrera jarraitzen zuela.

Kobrezko marko batzuk nahikoa izan zen hiru ardi gazta, lau ogi biribil eta saski bete mahats erosteko. Pagatu eta gero, mahai batean jesarri zen Flors mutikoarekin, bentariak eskaera prestatzen zuen bitartean. Beste mahai batean zeuden gizonezkoek Flors agertu zenetik ez zioten begirik kentzen. Orduan, praken hautsa astintzen sartu zen gazte altu bat. “Egun on denoi!”. Aloi zen. Eta inork ezer erantzun barik, gizonezko batek Aloiri zuzenduta: “Agian honek jakingo du. Aizu mutil, egia al da Menèrba inguruan ikaragarritzko kiratsa zabaldu dela ehun eta berrogei kataro bizirik erre dituztelako?”. Barre algarak. Eta beste batek: “Ba mesedea egin diete, orain pozik egongo dira espiritu hutsa bihurturik”. Algara ozenagoak.



**Montsegur. Camp dels cremats
Bertan 210 kataro erre zuten**

Mutikoa negarrez bentatik korrika irten zen. Flors haren atzetik, “jendaila doilor!, bihozgabe!” oihukatuz. Aloi, harri eta zur egina, bentako barraren ondoan geldirik zegoen. Florsen eskaerarekin azaldu zen bentaria. “Baina non dago andrea?”. Harriduratik esnatu hasia, Aloik erantzun zion: “Joan egin da. Neuk eroango diot dena”.

Janaria jaso eta kanpora abiatzen zela: “Ikusi duzue zenbat janari!, kataro jatun horiek ez dira zerura joango, ez”, farfuilatu zuen gizon taldeko potoloenak.

Janaria bere gurdian kargatuta, Florsen eta mutikoaren bila bideratu zen. Atzeman orduko, taldekideek inguratutik negarrez segitzen zuen mutikoak eta Flors azaltzen ari zitzaien jazotakoa. Tentsioa apur bat baretuta, Flors hurreratu zitzaion. “Mila esker janaria ekartzeagatik, baina orain ez da giro oparirik egiteko”. “Aloi da nire izena eta hegoalderantz zuzentzen naiz”. “Gure taldean daudenak ere bai. Batzuk kataroak, beste batzuk ez, baina guztiak gerratik ihesiz goaz. Itxaron momentu bat, Aloï”. Flors joan zen karabanakoekin berba egiten. “Gura baduzu gurekin etor zaitezkeela diote. Pèirapertusa edo Querbús gazteluetara heltzeko zortzi edo bederatzi legoa falta dira, bizpahiru egun daroagun martxan”. Aloik adi-adi begiratzen zion: “Donatek deskribatu zidan neskaren antza dauka, itxura, berba egiteko modua, doinua eta begi eder horiek,...”. “Ah, Maria naiz. Laster eguneko azken otordua egiteko geldituko gara. Gure janari urria nahi baduzu partekatu ongi etorria izango zara”.

Hasi berriaren udako arratsalde epela zen. Nagusiek isilean afaltzen zuten. Soilik umeen barreak han-hemenka entzuten ziren. Afalostean Flors ume batzuekin hasi zen

jostatzen, korrika, lurretik itzulipurdika. “Hau Flors da, Donaten alaba, dena dator bat”. Eta Aloiren buruan ehiztariaren ohiko galderak piztu zitzaizkion: noiz, non, nola...

Goiz hasi zen berotzen Mediterraneoan sortutako eguzkia. Egun sargoria igartzen zen eta karabanak bizkor bideari ekin zion. “Maria, etorri nirekin mesedez, horrela ez naiz arrotz sentituko taldean”. Flors bere zakutoa hartu eta Aloiren gurdira igo zen, alaiki.

“Pèirapertusa peko herri batean ditudan senideak bisitatzera noa eta, bide batez, euren altzari batzuk ekarriko ditut itzuleran. Eta zuk Maria, zer asmo duzu?”. “Nik Querbúsera segituko dut eta gero Aragoi sartuko naiz. Familiako bat, ehun merkataria dena han bizi da. Aspaldi ez dut ikusten”. Florsek nebaren ametsa ekarri zuen gogora. Aloik bazerabilen buruan zer egin zehazten.

Pirinioetako gainak zeruertzean marrazten ziren, ez urrun. Bero galanta eguzkitan. Iheslarien taldea motel higitzen zen. Florsek gurdia gelditzeko eskatu zion Aloiri, egarri zela eta freskatzera joan nahi zuela inguruko erreka batean. Karabanak segitu zuen aurrera. Aloik, gurditik jaitsita, Flors urruntzen ikusi zuen begien bistatik galdu arte. Orduan, ezustean, bide bazterretatik irtendako hiru gizon, makilak eskuetan, arineketan etorri eta Aloik inguratu zuten, zeukan guztia emateko exijituz. Bidelapur eskarmentatu eta gihartsuak ziren. Aloik ez zeukala ezer erantzun zien, eta berehala haietako gazteenak gainera jausi zitzaizkion makilaka. Kolpe batzuk saihestu zituen, baina eraso ezin zen ekidin. Ozta-ozta, bat heldu eta lotuta, saiatu zen ezkutu moduan erabiltzen bestearen kolpeetatik babesteko. Hirugarren gizona begira zegoen. Handikote eta lodia, oihuka aginduak ematen zizkien gazteei. Orduan: “Aloi!. Aloi!”. Flors zen, errekatik korrika zetorrela. Baina hurbildu zenean bidelapurren buruzagia zirudienak zartada latza eman zion eta Flors lurretik jaurti zuen.”Utikan andre zikina!”, eta arreta kideen oldarrari bideratu zion. Egundoko akatsa. Florsek, atzetik etorri eta eskuineko ukabilean zeraman harriarekin haren lokian jo zuen gogor. Zerraldo erori zen. Eta soin ondoan gordeta zeukan aiztoa hartu eta beso altxatuan erakutsiz lapur gazteengana abiatu zen oihuka: “Madarikatuak!, askatu nire laguna!”. Erasotzaileen nahasmena aprobetxatu zuen Aloik eta gurdian ezkutaturik eroaten zuen ezpata laburra eskuratuz, haietako bati besoa zeharkatu zion.

Lapur biek ihesari eman zioten, zaurituaren min garrasien artean. Aloik gurdia kontra bermatu zen. Florsek beregana joan eta besarkatu zuen. “Maria, zugatik ez balitz orain hilik nengoke”. “Honetatik salbatu gara Aloik, baina goazen hemendik lurrean jausita dagoenaren bila itzuliko direlako”.

Bazkaltzen zeudela bidaideekin elkartu ziren. Gertaera ezagututa, denek lehenbailehen handik alde egitea erabaki zuten.

Aloik suspertuta zirudien. Baina burumakur gidatzen zuen gurdia. “Zergatik egiten duzu ihes, Maria?”. Flors biratu zen eta begirada sarkor eta luzea zuzendu zion. Segituan, euren aurrean arin mugitzen zen karabanari begira: “Hemezortzi urte bete ditut, zenbat gehiago iraungo dut, beste horrenbeste agian?. Badakit zelakoa den emakumeen bizitza: umeak erditzen eta hazten nahitaez, senarrari eta familiari lotuta eta beste ezer ezagutzeko beldurrez. Nik beste zerbait ezberdina bizi nahi dut”. Aloik, pentsakor eta kezkatu: “Baina horixe da jainkoak eratu duen ordena naturala, Maria”. “Zuk zelan dakizu hori? Jainkoa ezagutzen duzu, Aloik? Inoiz ezer agindu dizu Papak

eta abadeek sinetsi behar dugula diotena da jainkoaz dakidan gauza bakarra. Eta zu, Aloi, katolikoa zara? Inozentzio III.ak dio bera dela jainkoaren delegatu bakarra lurrean. Eman dizu inoiz horren frogarik?. Eta ama birjinarena edo Jesukristo gizon-jainkoa, seme eta aita jainkoa bera edo gure sufrimendu eta gaitz guztiak gure bekatu originalagatik direla sinesten duzu, Aloi? Hobe duzu baietz esaten, bestela kataroena gerta dakizuke, papak badu behar besteko hiltzaile armada sinestarazteko.”. “Kataroa al zara, Maria?”. ”Ez, kataro gaixoe, espiritu perfektua jainko onak egin dela eta gure gorputza eta materia guztiak baztergarriak direla, deabruak eginak direla sinesten dute. Ez, ni mundutarra naiz, Aloi. Nire gorputza maite dut, nire amak eta haren aurreko ama guztiek eman didatena. Nire espiritua egunero sortu eta hobetu egiten dut bizipen berriekin ezagutza handituz. Inperfektua, akastuna naiz, baina nire indar apalekin neure bizitza eraiki eta gozatu nahi dut iraungo dudana denbora eskasean”.




Inozentzio III.a, papa

Aloi hitzik gabe zegoen, ez zekien zer esan. Zenbat galdera estali eta ezabatzen zuen sinesmenak. Begiak aurreko gurdian iltzatuta, ez zuen zirkinik egiten. “Neska argia benetan, adierazpen kementsukoa,...eta borrokatzeko ausarta”. “Entzun duzu, Aloi?, bide ondoan zeudenek katalanez egin dute.”. “Bai, Maria, Rossellòra hurreratzen ari gara. Karabanak pausoa bizkortu du eta bihar goizean seguruen Pèirapertusara ailegatuko gara”.

Ilundu aurreko azken argiak ziren. Flors ume batzuekin kukuka jolasten ari zen, umeen artean ume. Aloi hari begira, txori eder baten aurrean ehiztariaren kontraesanez eta sentipenek barrua astintzen. “Ez dut sekula ere honen antzeko aukerarik izango neu eta nire familia pobreziatik ateratzeko. Baina bahitu eta entregatuko dut bizia salbatu didana? Horren bezain zitala izango naiz?”. Aldizka, Pèire de Cuxac-en ortu eta soroetan gogor lanean familia etortzen zitzaion irudimenera, bestetan Flors, lotuta eta ahoa estalita gurdian eramanez edo haren begirada aitari edo Pèireri entregatzeko unean.

Lo egin ezinik pasatu zuen gaua, itsasotik zetorren ilargiaren bidaia noizbait kontenplatzen, batzuetan dardarka, ezinegon larrian sartua. “Florsek erabaki du zelan bizi. Nik ez dut lipar batean ere pentsatu zer nolako bizitza nahi dudana”.



Pèirapertusa gaztelua

Biharamunean Flors pozik igo zen gurdira. Aloi, betazpiak puztuta lo faltagatik, kopetilun zegoen. “Animo Aloi, abentura laster amaituko dela”. Handik gutxira Pèirapertusa hasi zen horizontean ikusten. “Karabanako batzuek ikaragarritzko gotorlekua dela esan didate, erasoezina”. “Bai, hala da, harkaitz multzo baten gainean dago eta behetik ikusita itzelezko botere-inpresioa sortarazten dizu”. Aloi konturatu zen bart gaueko amesgaiztoa lausotzen zela Florsen presentzian. Haren ahotsa, haren aurpegiaren espresio fidakor, garbia,...eta begirada hura, esperantzaz betea. “Bizia salbatu dit, ezin dut moztu eta hondatu Florsen bizi gogoa”. Eta gero bere buruari: “Ez naiz traidore koldarra bilakatuko”.



Querbús gaztelua

Pèirapertusa gaztelupean, karabana zatitu zen. Batzuk bertan geldituko ziren, besteek Querbús aldera segituko zuten eta hauetako batzuekin berbetan zegoen Flors. “Birritan zure laguntza erabakigarri izan dut, Flors, bidelapurrekin eta gaur zu joaten uztean”, egiten zuen gogoeta Aloi. Florsekin egoteko azken uneak zirela kontzientzian, Aloi neskaren jende arteko mugimenduei sutsuki begiratzen zien, azken irudiak barnean gordetzeko nahian.

Halako batean, Flors korrika etorri zitzaion. “Agur Aloi, badoaz nire lagunak”. Elkar besarkatu zuten. “Agur neska. Zorte on, merezi duzu”. Flors arin hasi zen lagunengana joaten. Eta orduan: “Agur Flors!. Zoriontsu izan!” oihukatu zion Aloi. Flors tupustean geratu zen. Eta atzera begiratu zuen, aurpegian ustekabea irri goxo batekin nahasia: “Zuk ere Aloi, aurkituko duzu zure bidea!. Agur adiskide!”. Eta jendearen artean galdu zen Aragoiko erreinurantz.



Amaia Iruskieta Bilbao
BATX 1.maila

“Oinak zertarako, hegoak baldin baditut hegan egiteko”

SAREAN

Urteak eta urteak eman ditut, hemendik goitik, jendeari begira. Haien pentsamenduak irakurtzen, haien mugimenduak aztertzen baina batez ere haien arteko loturez ohartzen. Ulergaitza badirudi ere, ia guztiak daude lotura nabarmen edo hutsal baten bidez lotuta, eta gehiengoak ez dakite albokoa nor den ezta zer harreman motak elkar lotzen dituen ere.

Baina hemendik gauzak argiago ikus ditzaket. Pertsonen buru eta bihotzetan sartzeko gaitasuna dut, eta gaitasun hori urteetan zehar trebatuz joan naiz, eta ondorio horretara eraman naute: lotura txiki eta ikusezinenak garrantzitsuenak direla. Nire teoria froga dezaket, baina lehenengo aurkeztu egingo naiz.

Ez nago oso ziur, baina uste dut 1501 eta 1504 urteen artean jaio nintzela, Errenazimenduan, cinquecentoan, beraz jada 513 urte inguru izango ditut. Azal zuri zuria dut, marmolezkoa izango balitz bezala, eta ile kizkurra. Oso oso garaiera handikoa naiz nire ingurukoekin alderatuta, bost metro ditut. Gorpuzkera eta aurpegi ederrak ditudala esan didate urte hauetan guztietan zehar, beti gustatu izan zaidan lausengu bat da. Harrigarria badirudi ere, urte hauetan guztietan zehar inolako arroparik gabe egon naiz, egia esan jaio nintzen momentutik biluzik pasatu ditut egunak eta gauak, eta benetan gustatuko litzaidake norbaiti tapaki bat eskatzea, jendeak ni horrela ikustear nazkatuta nago eta. Nire gurasoen inguruan ezer gutxi dakit. Ama ez dut inoiz ezagutu eta aitarekin denbora gutxi igaro nuen, lau urte bete nituenean alde egin baitzuen. Jada hilda dago, baina bere izenak urteetan zehar bizirik jarraitu du, Michelangelo Buonarroti zuen izena, eta gogoratzen naiz ni utzi ondoren seme alaba gehiago izan zituela, adibidez: Moises, Roman bizi dena, Hilzorian dagoen morroia, Parisko Louvre auzoan bizi dena, edo Adan, Vaticanoko kaperan bizi dena. Ez dut inoiz nire seniderik ezagutzeko aukerarik izan eta izugarri atsekabetzen nau, jakinda guztiak bizirik dirautela. Ni neu Florentzian bizi naiz. Oso toki ederra da eta artez betea dago. Urte guzti hauetan zehar hiri adierazgarri honen eboluzioa ikusteko aukera izan dut, txundigarria izan da. Nire etxeak Florentziako Akademiaren Galeria du izena. Baditut nire tankerako lagun gehiago etxean, adibidez Venus eta Cupido. Izaera aldetik jatorra naizela uste dut, lasaia eta bihotz onekoa. Nire ametsa nire neba arrebak ezagutzea da, eta espero dut noizbait amets hori lortzea. Nire izena David da.

Egunero egunero goizeko hamarrak aldera, gure etxeko ateak zabaltzen dituzte eta milaka eta milaka pertsona etortzen dira gu ikustera. Ez dakit nire kontua den ala ez, baina badirudi ni naizela famatuena, guztiek ematen baitute denbora gehien niri begira. Itxura desberdineko ikusleak izan ohi ditugu: azal zurikoak, ilunekoak, ile kizkurdunak, burusoilak, altuak, argalak, lodiak, itsusiak, ederrak, zaharrak eta gazteak. Antzina ni ikustera etortzen zirenean soilik begira geratu edo nire silueta margotzen zuten, baina orain tramankulu txiki batzuekin datoz guztiak, niri begira jartzen dute eta bat-batean argi bortitz eta labur batek nire begiak hartzen ditu. Ez dakit zer den tramankulu hori, baina ez dut batere gustuko.

Nire teoria azalduko dizuet orain. Azken urtean ohartu naiz baditudala ikusle zehatz batzuk egun zehatz batzuetan datozenak. Lau pertsonen arteko harremana lotzea lortu dut, hauek dira nire saiakuntzako sagutxoak, nolabait esateko:

Mattin da zaharrena. Laurogei bat urte izango ditu, ez dakit ziur. Gizon baxua eta gorpuzkera zabalekoa da, ile guztiz urdindua kapela batekin estalita darama sarritan, azal iluna du, praka urdin ilun batzuk eta alkandora zuri bat bularraldean botoiak zabalduta eramaten ditu ia beti. Gizon jakintsua da, eskarmentuduna. Bere familiaren inguruan ez dakit ia ezer, baina lepotik eraztun bat darama kate baten zintzilikatuta. Erretiratuta egoteko adina duen arren, bere negozioarekin darrai buru belarri, lore denda txiki eta xume bat du Florentzian bertan. Bestalde badu zaletasun bat, idaztea du maite, eta bere denda ederra ixten duenean umezurztegira joaten da, hango txikienei istorio miragarriak kontatzen. Ostiral arratsaldeetan etortzen zait bisitan, nire aurrean dagoen aulkian esertzen da eta ordu bete inguru ematen du bere pentsamenduetan murgilduta. Uste dut hemen hartzen duela bere lanetarako behar duen inspirazio tanta.

Miren du izena hurrengoak. Neska gaztea da hau, hogeita zortzi urtekoa edo. Azal argiagoa du Mattinek baino. Ile marroia du, pixka bat kizkurtua eta luzea, gorpuzkera polita, argal xamarra, eta irribarre ederra ditu. Beti etortzen da soinekoekin, loredunak zein marradunak. Eta datorren guztietan liburuxka bat ateratzen du bere poltsatik eta idazten pasatzen ditu orduak. Miren baleteko irakaslea da, hemendik hurbil dagoen akademia batean. Orduak eta orduak ematen ditu lanean, ikasle ugari baititu, adin orokoak. Nigana etortzen denean nekatuta dagoela dirudi, baina bere kafeari azken zurrutada ematen dionean bere aurpegia lasaitasun eta bake bolada batek igarotzen duela dirudi. Orduan barre txiki eta jostari bat botatzen du, etxeko doinurik politena iruditzen zait. Mirenen bisita eguazten arratsaldeetan izaten dut.

Hirugarrenak Aitor du izena. Mutil gaztea dugu hau ere, hogeita hamar urte ditu. Mutil altua da, lepo zabalekoa, ile marroixka du eta bere besoan tatuai bat darama, marrazki Mahori bat dela esango nuke. Galtza bakeroak eta kamiseta zuri bat janzten ditu, eta trapu bat darama galtzetatik eskegita. Sukaldaria da Aitor, etxetik bi kale beherago dagoen jatetxeko sukaldaria da. Buru belarri jarduten du sukaldean, bere jakiak maitasun eta zehetasun osoz prestatuz. Nigana datorren bakoitzean sekulako gazta usaina sumatzen dut. Arraroa eta niretzako pixka bat etsigarria bada ere, Aitor datorren bakoitzean nire aurreko jarlekuan eseri, burua hormaren kontra jarri eta lokuluxkatxoa botatzen du mutilak. Ez dut uste bere loaldia ordu batera iristen denik ere, bat-batean tramankulu bat argia egiten eta soinu arraro bat egiten hasten da, orduan bortizki esnatzen da, aurpegi nekatua jartzen du, eta sukaldara bueltatzen da. Astelehen goizetan dator bisitan.

Azkena Katixa txikia da. Sei urteko neskatila dugu. Txikia da, masail lodiak ditu eta ilea bi txirikorda berdin-berdinetan darama batua. Soineko urdin bat janzten du beti, ez baitu besterik. Umezurtza da Katixa, eta igande goizetan dator nigana gainerako umezurtzekin. Baina bera desberdina da. Desberdina da, bere begirada ameslaria baita. Bere begirada ameslaria da, eta horrek mundu berezi eta izugarri baten bidaiatzeko aukera ematen dio. Eta mundu hori bere imajinazio eta ilusioetatik sortzen du. Katixa datorren bakoitzean, bihotza uzkuratzen zait, hunkitu egiten nau. Bere trapuzko panpina ederra eskuetatik askatu gabe nigana hurbiltzen da, eta hitz egiten dit. Beti gauza bera esateko, gogorra dela eta ez duela inoiz etsiko. Katixa da nire sagutxorik gustukoena, inolako dudarik gabe.

Lau hauek eguneroko bizitzan elkar topatzen dira, nahiz eta haiek ez diren ohartzen. Batak egiten duenak bestearengan zeresana du, nahiz eta ez diren ohartzen. Eta honek lotzen ditu nire sagutxoak: Mattin goizean goiz jaikitzen da lora dendara joateko, eta bere lehen enkargua prestatzeari ekiten dio, balet akademiarako hamabi arrosa zuri eta arrosa gorrien hamabi lore sorta prestatzen ditu. Mandatua furgonetan sartu eta akademiaraino eramaten ditu, iristean Mattinek berak kokatzen ditu leiho bazterretan eta barruko mahai gainetan. Martxan daude klaseak, eta emakume bat ikus dezake ume guztien artean, baina inoiz ez du haren aurpegi ederra ikusi. Dirua hartu eta eskaileretan behera egiten du. Miren da emakume eder hori.

Bazkal ordua iristean, Mattin bere dendatik hurbil dagoen jatetxera hurreratzen da, zerbitzariak agurtzen ditu alaitasunez eta gustukoen duen mahaia hautatzen du. Betikoa eskatu, sosegu handiz jan eta kafe huts bat edaten du. Sukaldeko atea zabalik dagoela ohartzen da, eta mutil gazte bat ikus dezake sukalde erdian aginduak emanaz irribarretsu eta gogotsu, baina ez du bere aurpegia ondo bereizten. Bazkaria ordaindu, atezainarekin solasean aritu eta dendara itzultzen da poliki-poliki. Sukaldari hori Aitor da.

Jangela hutsik geratzen denean, Aitorrek soberan geratu diren jakiekin bazkari xume bat prestatu eta handik bost minutura dagoen umezurztegira eramaten du. Hara iristean umeek ezin pozago ematen diote ongi etorria, ume horien artean neskaxa bat dago panpina batekin besoen artean. Ume eta moja guztiek ematen dizkiote esker onak Aitorri eta hurrengo egunerarte agurtzen dute elkar. Panpina daraman umea Katixa da.

Umezurztegitik alde egin, jatetxera bueltatu eta guzti guztia garbitzen du bere lankideekin batera. Eta guztia batzen dutenean berriro hasten dira afal ordurako dena prestatzen. Jo eta ke jarraitzen du azkeneko bezeroek jatetxea utzi arte, eta orduan ziztu bizian sukaldea batu eta autobus geltokira abiatzen da. Beti iristen da justu-justu. Autobusera sartu eta leihoaren ondoan esertzen da. Bere ilaran beti dagoen neska dagoela ikusten du, eta bihotza agudotu egiten zaio. Jatetxetik geltokira korrika bizian joateak merezi duela uste dut, neska ederra ikusten duelako. Badirudi neska ez dela Aitorrez ohartzen, baina bat-batean burua biratu eta irribarre txiki bat eskaintzen dio. Berriro ere bere burua esku artean daraman koadernora zuzentzen du, eta idazteari ekiten dio. Autobusean ezagutu duen mutilaz ari da idazten, klaseak ematen ez dabilen guztietan koaderno hartu eta bere sentimenduak askatasun eta erraztasun osoz idazten ditu paper gainean. Neska hori Miren da. Mirenek eta Aitorrek ez dute inoiz elkarrekin hitzik partekatu. Biak ohartu dira gustuko dutela autobuseko bidai hori partekatzea, isiltasunean eta aldenduta bada ere. Bat-batean Mirenek Aitorri begiratzen dio, eta barre

egiten du. Aitor kikilduta dago, baina ezin du jasan berarekin hitz egin gabe jarraitzea. Zutitu, bere ondoan eseri eta beraien arteko istorioari hasiera ematea erabakitzen du.

Gaua erortzear dagoenean Mattin umezurztegira doa, bere azken lana betetzera. Itxaroten ditu ume guztiak. Liburua atera eta kontu kontari hasten da umeen arretaren aurrean. Bere ipuin kontalari lana amaitzean etxerako bidea hartzen du, neskatila batek ateraino lagundu eta masailean musu txiki eta xamur bat ematen dio. Neska hori Katixa da.

Hau da nire sagutxoekin egin dudana saiakera, hauek dira haien artean aurkitu ditudan loturak, eta ohartu naiz patuari edo kasualitateari esker haiek ere zehetasun txiki hauetaz ohartu direla. Ederra da ikustea nola gauden lotuta, eta are ederragoa da hortaz ohartzea. Ezagutzen dugun mundu hau, bere handitasunean, zapi txiki bat besterik ez da, eta guztiok gaude zapi horretan preso, baina libre. Libre bizitzeko, ausartzeko, porrot egiteko eta jaikitzeke, guk geuk sortutako sareetan.



Imanol Ziluaga Esteban
BATX. 2. maila

“Usteltzen hasia dago eta laster eroriko da”

GAUAK ZIRAUEN ARTEAN

Berlinen, 1973ko irailaren 22an

Trastelekuan nire gaztetako argazkien bila nenbilela, kaxa txiki bati so egin nion. Ausartegi eman nituen pausoak, zer zetorkidan gainera inola ere ondorioztatu gabe. Belauniko jarri eta karraska bat entzunez zabaldu nuen kaxa. Bertan, soilik paper eta dokumentuak ikus zitezkeela zirudien, baina aho bete hortz geratu nintzen, *Kennkarte (III. Reich*-ean erabiltzen zuten nortasun agiria) bat ikusi ostean. Hau zabaldu nuenean, argazki bat erori zen barrutik.

Geure aita izan zenak, uniforme eta bota beltzak zeramatzan argazkian. Uniformea tinko mantentzeko, gerriko bat zeraman, eta gerrikoaren belarrian *Meine Ehre Heißt Treue* (Nire ohorea, nire fideltasuna da) irakur zitekeen. Paparrean intsignia bat edo beste zuen atxikita eta buru gainean berriz, arrano eta gazezurdun txano bat zeraman jantzita. Baina guztietan deigarriena, ezker besoan zeraman gamma-gurutzedun edo svastikadun besokoa zen. Irmo, kamerari begira ageri zen 1936. urtean ateratako erretratu hartan.

“*Beraz, gizon hau omen zen gure aita*” esan nion neure buruari, honen aurrean nola erantzun jakin gabe. Betidanik izan da gai tabua ama eta neba-arrebon artean, baina egia esan, jakin-minak gitxi-gutxika barrena jaten zidan. Ni neu nintzen neba-arreba guztion artean gazteena, baita aita inoiz ikusi ez zuen bakarra ere. Ni nintzen eremu horretan sar ez zitekeena eta ez itsuarena egitea aukera hobetzat jotzen nuelako, nirekin hari buruzko ezer konpartitzeko asmorik ez zutelako baizik. Gomutan nuen, geure amari aitarengatik galdetzen ausartu nintzen lehen eta azken eguna. Ez nuen erantzunik izan. Neba-arrebek ere begiko buztantxotik botatako begirada batez erantzuten zioten nire galderei.

Gomutan nituen, igandero osaba-izeben etxean izaten genituen bazkariak. Hauek bukatu ostean, gaztetxoena egongelarantz zuzentzen ginen, gainontzekoak berriz, luzaz solasean zebiltzan bazkalondoan. Izen hori entzun izana iruditzen zitzaidan guztietan gerturatzeko nintzen egongela eta sukaldea banatzen zituen atera. Informazio pittin bat eskuratzeko asmoa nuen batean, zera entzun nuen:

-*"Ez zen bertatik itzuli"*.

Gomutan nituen ere, familian eginiko egun berezietako afarien bukaerak. Liskar mordoak izaten zuten gure aitonak eta gure amak. Kasu hauetan ez zegoen belarria ate ondoan jarri beharrik, baina gazteena ez zen tiroen norabideaz kargutzen. Maiz galdetzen nion amari ika-mika haien zergatiaz, baina berak nire galdera sortaren erantzunak ekiditeko *"Zahartzaroak edonor erretxindu dezake"* esanez erantzuten zidan. Laster utzi genion gainontzekoekin egun bereziak ospatzeari.

30 urte koxkor nituen eta oraino amaren etxean sartuta nengoen. Gainera, azken hileotan pixka bat nazkatzen hasia zen nitaz, nekatuta heltzen bainintzen etxera tabako-fabrika lan egitekin baita etxean laguntzeko gogo gutxiarekin ere. Ez zen nire bizitzako une zapoetsuena eta hori gutxi balitz, nire jaiotzatik ezkutaturiko argazkia aurkitu berri nuen ustekabea.

Ene burua baretzeko asmoz oheratu nintzen, sabela hutsik eta burua nahasmenez beteta nuelarik. Loak hartuz gero, burua bere tokian jarriko zitzaidala uste nuen. Nahasmena, ordea, ezinegon bilakatu zen eta hasierako axolagabetasuna, berriz, osteko frustrazio.

Larritzen hasia nintzen jada. Izerditan blai salto egin nuen ohetik eta biziki hasperenka hurreratu nintzen ispilura. Begirada, aurrean nuen subjektuaren espresioan iltzatu zen. Zaindu gabeko bizar eta ile hori-horia gogor oratu zituen haren esku izerditsuez, taupaden erritmoa arintzen zihoan heinean.

Jantzi bezain laster hanka egin nuen etxetik, lau paretek bertan ehortziko ninduten bestela. Aitaren argazkia poltsikoan nuelarik jaitsi nintzen eskaileretatik. Noranahi baldin bazen ere, alden du beharra nuen, finean lasai kiribildu nintekeen nonbaitera iritsi gura banuen.

Narras nindoan aurrera. Urrunean hiria gurutzatzen zuen harresia ikus zitekeen. Kale hartatik igarotzen nintzen bakoitzean, harresiaren beste aldean zegoen *Gestapo*arena izandako egoitza zentrala zetorkidan burura. Erraiek buelta eman zidaten. Itsu-itsuan zeharkatzen nituen kaleak, asko eta asko inoiz erreparatu gabekoak. Kale argiak burumakur, kaleak estuago eta ni bizitzan kale egin nuenaren ustetan nengoen.

Enegarren kalea igaro ostean eta gero eta arrotzago sentitzen hasi nintzen hiriko bazter haietan. Auzoak gero eta xumeagoak eta kaleak, berriz, gero eta estuagoak ziren. Eztabaidaren bat edo beste entzun zitekeen etxeren batean, baita azken tabernako mozkorren batek esaten zituen txorakeriak ere. Gutxitzen zihoan gaueko orduotan kaleetatik ziharduten jende kopurua. Ez nion garrantzi asko eman, ez bainuen buruan argazkia besterik.

Hirugarren urtarok hartu berria zuen Berlin eta kaleko orbelak ziren honen adierazgarri, baita nire bisai nekatu eta zurbila ere. Tripa orroka nuela konturatu nintzen eta ostean nabaritutako *bratwurst* saltxitxa beroaren usainak tripa-zorria areagotu zidan. Nondik zetorren ikusten hasi nintzen alde batera eta bestera, baina ez zen kalean saltzailerik ageri.

- *Tori*. -esan zidan.

Hasiera batean ez nuen igarri ahotsa nondik zetorren eta antzeman nezan “*zeugandik bi pausotara*” bota zidan. Aurpegi ilun xamarra zuen, bizar zaindu gabea eta inoiz ikusi nuen begirada umilena. Keinua eskertu baina ezin nuela onartu esan nion. “*Gose denaren aurpegia arras antzemangarria da*” esan zidan. Txunditurik begiratu nion eta eskaintzen zebilkidan otarrekoaren zati txiki bat hartu nion gizon zaharrari. Berriz eskertu eta jarraian haren magalean eseri nintzen.

Hark, ni horren goibel kiribiltzearen arrazoiak galdetu zidan. Nik poltsikotik argazkia atera eta gainean zuen mantaren gainean utzi nuen.

Argazkiko gizona eta ni, argazkiko gizona eta ni... Burua biratzen zuen biok konparatu gurean. Azalpenari hasiera emateko, “*nire aita omen zen*” esan nion eta hark zentzuz eta zuhurtziaz azalpenaren hasieratzat jo zuen eta belarriak prestatu zituen zetorkiona entzuteko. Guztiz hustu nintzen.

- *Eguneroko irribarre dosia hartzeari utzi diozu antza denez eta nabaritzen zaizu. Egunerokotasunean traba gehiegi dituzula diozu, galduta sentitzen zarela... Plazer txikienak ere estimatzetik hasi beharra dago. Asko duzu oraindik eskuratzeke, ikasteke edota konpartitzeke. Zinez alda daiteke zure guztiarekiko ikuspegia. Ah! Tori zure argazkia -bi atzamarrez obatu nuen hau-. Azken batean, guretzat oinarritzkoak beharko luketen baina ez ditugun gauzek hutsa sortzen dute guregan, eta honek asegabe sentiarazten gaitu. Sarri entzun izan dudak bezala, “ez diren gauzak ere badira, bizitza, ez diren gauzez ere osatzen delako”.*

Gizon xamur eta xaloaren magalean geratuko nintzen gauak zirauen artean.



Naia Ellis Luzarraga
BATX. 2. maila

“Ezinezkoa lortzeko borrokan, inoiz izan duguna galtzearen beldur”

GERRAKO HIZKUNTZAN

Iritsi da eguna. Nire idazmahaiaren aurrean nago eserita, helburutzat agurra idaztea dudala, edo baliteke laster arte bat izatea, nork jakin.

Azken begirada bota diot logelari. Ezkerraldean apalategi handi xamar bat dago, kutsu politiko eta sozialeko liburuz josia. Gehienak, frantsesez idatzita daudenak (bertoko hizkuntza ofizialean), nire “maman Valerie”-k oparitutakoak dira, emakume jantzia eta gai politikoetan jakituna izateaz gain, lehenengo emakume sufragisten parte izan omen baitzen. Besteak, berriz, gaztelaniaz idatzita daude eta berri usaina nabari zaie oraindik, nik neuk erositakoak baitira; hauek, ideologi marxistaren linea jarraitzen dute batik bat, baina badaude Bakuninen ideietara gehiago hurbiltzen diren beste batzuk ere. Logelaren beste magalean berriz, “papa Antoine”-k, nire logelan sartuta ordu luzeak igaro eta oraindik lagunik egin ez nituela ikusita, nire hamargarren urtebetetzean oparitutako egurrezko zaldia ikus dezaket. Honen ondoan, atetik ez oso urrun, gaur bertan ekin beharko diodan bidaiari lagun izango ditudan maletak daude nire zain.

Dena dago prest, ezin dezaket atzera egin. Hartu dut bolaluma, agurra idazteko prest. Ez da senideei malkoz beteriko tintaz idatzitako eskutitza, ezta aspaldiko maitale bati egin beharreko muxu zaporeko aitormena ere; nire betiko amesgaiztoari zuzendutako agurra baizik, edo probokazioa hobeto esanda. Jada ez diodala beldurrik adieraziz, bidaiaren helmugan aurkituko dudanari aurre egiteko prest nagoenaren ikur izango den probokazioa.

Inoiz ahaztu ezingo dudan zazpi hitzez osaturiko esaldi bakarreko agurra izanagatik, latza egiten zait idaztea, mingarria akaso. Nik neuk ume xaloe nintzela oihukaturiko zazpi hitz, besterik ez. Ez dira inoiz oihukatu ditudan hitz gogorrenak edo arriskutsuenak, ezta hurrik eman ere. Izan ere, esandakoa arbuiaztetik urrun, harro sentiarazten nauen esaldia da; hainbestetan adorea zein amorrua pizteko erabili izan dena. Orduan, zergatik dira nire amesgaiztoaren parte? Leku eta une okerrenean esan nituelako, nire bizitza eta gehien maite nituenena hankaz gora utziz.

1940ko apirilaren egun beroegi batean hasi zen nire amesgaiztoa. Sei urte bete berri nituen eta urtebete lehenago iritsi ginen Galizia hego-ekialdeko Laza izeneko herri txiki hartara. Lazako herrian izua, mesfidantza eta saldukeria zen nagusi. Gainera, azkeneko hilabeteen ahopeko txutxu-mutxu nahiz akusazioak areagotu egin ziren: orduan legez kanpo zegoen Espainiako Alderdi Komunistako informatzaile nagusienetako bat herrian bertan edo inguruetan ezkutatuta zebilen.

Hura ikusita, Lazako herritarrak egunero bizpahiru aldiz elizara joateaz eta eskolan edo lanean frankismoarekiko gorazarre sutsua egiteaz zein bando errepublikarrari irain gogorren bat botatzeaz ziurtatzen ziren, Guardia Zibilek are eta sarriago ematen zituzten arrazoirik gabeko jipoiak saihestu nahian.

Dena den, nire familia eta ni herrira Gerra Zibila amaitu ondoren iritsitakoak izan arren, poliziek familia otzan eta urguritza hartu izanaren “ohorea” genuen nonbait, eta ahalik eta arreta gutxien erakartzeaz arduratzen ziren nire gurasoak.

Berez, nire jaioterria Mieres izeneko Asturiaseko udalerrri nahiko handia zen, errepublikarren gune nagusienetako izanagatik ezaguna. Izan, gerra aldian Asturiasko Printzerria armada matxinatuaren aurrean erresistentzia sendo eta kementsua aurkezteaz gain, asturiar askok militarki parte-hartze aktiboa agertu zuten. Horregatik, familia dezentek (bai errepublikar, neutral zein frankistak izan) Espainiatik ihes egitea edo fronte nazionalak oztoporik gabe hartutako lurraldeetara (Galizia, esaterako) joatea erabaki zuen.

Halaber, Galiziako herri txiki hartan gehiengoa iritsi berria zenez, Lazan jaiotako bakar horiek (nire lehengusu Pedro, besteak beste), Guardia Zibilaren oniritzi eta uste ona zuten. Tuberkulosiak, 13 urterekin umezurtz utzitako gazte apal eta atsegina zen Pedro, bizitako egoera latzak gazte sumari eta zuhurra bihurtu zuena. Horrenbestez, Gerra Zibilak eztanda egin zuenean oraindik adingabeko umezurtza zen, hots, jarrera politikoari dagokionez gerratik itzultzeko aukera izan zuen.

Egia esan, garai hartan, nik ez nuen ezer ulertzen. Bi bando zeuden antza: errepublikarrak eta nazionalak. Baina ezingo nuke esan nortzuk ziren onak eta nortzuk txarrak, nori galdetu kontraesan asko zeuden eta nahastu egiten nintzen. Baina tira, bost axola, hori helduen arazoa zela zioen amak. Oraingoan, maisuak zioena errepikatzea eta esandakoarekin beti ados agertzea zen nire betebeharra.

Asteazkenero bezala, egun hartan ere goiz-goizean esnatu nintzen. Nire belaun txakilak estaltzen zituzten praka zabal batzuk eta amak artaz garbitzen zuen alkandora di-da batean jantzitakoan, katilukada bat esne arrapaladan edan eta pasaden asteko ogi puska hartu nuen eskolako bidean jateko asmoz.

- *Ez ezazu ahaztu saski hau Concepción andreari eramatea* -gogoratu zidan amak eskatzean sartu eta arropa garbiz beteriko saskia nire besoetan jarritz-.

- *Ama ez dut astirik, berandu iritsi naiteke eskolara* - erran nion mainak eginez -. *Gainera, lehenengo orduan maisu Jesús jaunarekin dut klasea* - jarraitu nuen, astebetean kopeta zaplazteko batez markaturik eraman behar izan nuela gogoratuz-.

- *Ez zaitez arduratu* – erantzun zidan amak samurtasunez eta bekokian muxu emanaz –. *Nire izekoa oso larri dagoenez, aita eta biok Baldriz-era joan behar genuela esan genion atzo Jesús jaunari, badaezpada; eta beraz, berandu iritsi zintezkeela.*

Zertxobait lasaiago, baina oraindik kezkatuta, amari eskuarekin agur esan eta ziztu bizian irten nintzen etxetik, saskia gogor oratuz.

Biziki gorroto nuen Lazako eskola. Hala ere banekien eskolara joatea eta maisuaren esana betetzea zela nire lana; ezin nien gurasoei huts egin. Aitzitik, Jesús maisuarekin klasea nuen bakoitzean ondoezik sentitzen nintzen. Maisua frankista amorratua zen, apaiza izandakoa, eta ikasleen espiritu nazionala sustatzea zen bere eginkizuna, Franco idealizatuz eta honen aurka zeudenei biraoak botaz; gizon gupidagabea benetan. Hau gutxi izango balitz ere, azkeneko hilabetean zabaldutako zurrumurru hura zela medio, Jesús jaunak bere klaseetan itaunketa onartezinak egiten hasi zen, ikasleei euren familiei buruz galdera mutiriak eginez. Oraindik hitz askoren esanahia ezezagun eta gerraren zergatia ulergaitza egiten zitzairen umeen lañotasuna zen bere iskilu: lehenago edo beranduago, noizbait gurasoek seme-alaben aurrean politikari buruz esan behar ez zuten zerbait errepika baitzezakeen ikasleren batek, bere gurasoak salatzen zebilela jakin gabe.

Izan ere, Jesús jaunak ordurako bere itaunketak “arrakasta” izatea lortua zuen. Hiru aste lehenago gertatu zen. Alberto jauna atxilotuta eraman zuen poliziak; bere semeak salatu zuen.

Seme hura, “Boldro” ezinez ezaguna, gelakide izan nuen. Oso ume lotsatia zen, irakasleek begitan hartuta zutena. Anaia komunista izateagatik kartzelaratu zuten urte hartako otsailaren 8an eta ama gaixotasun ezezagun batez hil zen egun batzuk geroago.

Baina poliziak emandako bertsioa ez zetorren bat egiarekin, jakina beste askotan bezala maisu Jesús-ek, klase aurrealdean belauniko eta liburu astun batzuk eskuen gainean eustera zigortu zuen “Boldro”. Baina oraingoan, bere aitari buruz galderak eginez, etengabe, honi azpiak jaten zion bitartean. Gelakideek, aldiz, “Gorria!, Zapo!, Traidorea!” oihukatzen zioten. Azkenean, “Baldro” negarretan blai, Jesús-en galdera guztiei baiezkotzen erantzuna eman eta egun batean bere aitak “norbaitek faxistak isilaraziko balitu...” esan zuela aitortu zuen; eta hori nahikoa zen, bere aita kondenatu berri zuen.

“Boldro” eskolatik kanporatua izan zen, baita etxetik ere. Elizaren aurreko etxe baten kanpoaldean egiten zuen lo, norbaitek gaueko iluntasunaren gerizpean utzitako artilezko burusi lodi batean babesean. Hezurretan, gaixorik eta umeek jaurtitako harriek egindako zauriz beterik zegoen, Ángel Guardia Zibil jaunak tiro batez hil zuenean (hura ironia). “Arratoi satsu eta erikor batekin nahastu zuelako” bere esanetan; “Andre bati janaria ostu eta polizia-agente bati eraso egiteagatik” poliziako informarean arabera.

- *Egun on, maisu Jesús jauna* - esan nion arnasestuka, klaseari hasiera ematen zion kanpai hotsarekin batera gelara sartuz. Maisuak betaurrekoen gainetik begiratu zidan mespretxuz, baina zorionez ez zuen ezer esan-.

Egunero legez, “*Cara al sol*” ereserkia abestu genuen. Ondoren, maisuak ahozko azterketa bat egingo genuela esan zigun. Gaia: “Gure nazioaren izen ona

berreskuratu duen horri esaldi laudagarri bat edo traidore ziztrin eta gaixoei beste esaldi iraingarri bat eskaintzea”. Ilaran jarri eta banan-banan geure gurasoei entzuniko esaldiren bat bota genuen. Nahikoa iruditzen ez zitzaizkion esaldiak esandakoek, egurrezko erregelaren kolpea jasotzen zuten atzamarretan eta azterketan “gutxi” atera zutenaren mehatxua; isilik geratzen zirenek edo zer ikusirik ez zuen astakeriaren bat jaurtitzen zutenek ostera, kokotean liburuaren zanpateko galanta eta ikasgaia suspenditu zutenaren berria.

Nire txanda iritsi zen. Bota nuen. Ez nekien zer esan nahi zuen, baina hitz gogorrak ziruditen. Aitari entzuniko esaldia zen, zazpi hitzeko esaldia; irratia entzuten zuen bitartean esandakoa. Amak errieta egin zion, hainbestetan errepikatu behar izan zuen esaldia botaz: “herri honetako etxeetako hormek belarriak dituzte”. Gainera, ni aurrean nengoenez, etxetik kanpo horrelako esaldirik ez esateko eskatu zidan, helduen hitzak baitziren. Baina, zer arraio, ni ez nintzen ume mokoa jada eta nire lagunek txarragoak esaten zituzten.

Jesús jaunak keinu ulergaitza egin zuen. Haserretura eta aldi berean harrituta iruditu zitzaidan hasiera batean. Alabaina, irribarre lukia zuzendu zidan, asebeteta.

Eskolako ordua amaitu eta berehala etxera itzuli nintzen. Egun gogorra izan zen hura. Etxea hutsik zegoen oraindik, amak afaltzeko ordurako bueltatuko zirela erran baitzidan. Nire logelan pilota zahar batekin jolasten nengoen, lehengusu Pedro iritsi zenean, begiak negartsu eta gorrituak zituela.

- *Alde egin behar dugu. Bizkor!* – esan zidan hatsanka – *dena dut prest* – jarraitu zuen, eskuetan nuen pilota nire poltsikoan gorde eta nire besoa helduz-.
- *Zer geratu da? Ama eta aita ere gurekin al datoz? Eta har dezaket ganbaran dudana...*
- *Ez* – ihardetsi zidan, serio – *ez dugu denbora galtzeko astirik. Bidean azalduko dizut dena.*

Korrika irten ginen etxetik. Ez nekien zer gertatzen zen. Zerbait gertatu al zitzaien aita eta amari? Ez. Ez nuen horretan pentsatu ere egin nahi. Salbu zeuden, seguru. Nire zeregina orain ahalik eta azkarren korrika egitea zen korrika, korrika eta korrika; ezer ez gehiago.

Ibaiaren beste ertzera igaro ginen. Etxe zahar abandonatu bat ikus zitekeen bertatik, eta honen atzean automobil bat, oztin kolorekoa eta nahiko berria zirudiena. Ez nekien Pedrok autoa zuenik, baina giltzak atera eta barrura sartzeko eskatu zidan. Aurrean eseri nintzen, Pedroren alboan, atzeko jesarlekuak janari eta arropaz beteriko kutxa handiek okupatzen zituzten-eta. Eskularru-kaxa ireki zuen, non boneta handiegi bat, dokumentazioa eta diru-zorroa ikusi nitzakeen. Pedrok ilea estali eta begiak itzalpetzen zituen boneta jarri zuen, autoa martxan jartzen zuen bitartean.

Ekialderantz jo genuen, Zamorarako bidean. Isilean egin genuen bidea. Ni oso izututa nengoen, nahastuta, hitzik gabe; ez nekien zer galdetu. Pedro, aldi berean, akrituta zegoen; ez zuen gertatutakoa azaltzeko hitzik aurkitzen, ez ninduen mindu nahi.

Bat-batean, Lazako herria atzean utzi bezain pronto, autoak hots zakar batez abiadura gutxitu zuen. Pedrok burua makurtzeko eskatu zidan. Ezin nuen ezer ikusi. Hala ere, beste motor baten burrunba bortitza entzun nezakeen. Norbaitekin gurutzatzen

genbiltzan. Neure bihotzaren taupadak ere entzuten nituen, gogorregi. Bum-bum, bum-bum.

Burrunba urruntzen entzun nuenean, burua altxatu eta leihotik begiratu nuen: Blindatu eskerga zen. Orlegi kolorekoa eta atzean gorri eta beilegi bandera marraduna zeraman, erdian San Juaneko arranoaren armariarekin.

- *Hor barruan doaz zure gurasoak, Eliseo* –esan zidan Pedrok mintzoa erlats-.

Gaur egun 41 urte ditut. Data: 1975. urteko abenduaren 30a. Francisco Franco hilda dago; baita Francok bere ondorengo izateko asmotzat Espainiako Gobernuko presidente izendatutako Luis Carrero Blanco ere. 1940. urtean Frantzian erbesteratu nintzen, lehengusu Pedrokekin batera. Brou izeneko herri txiki honetara heldu eta lau urtera, Pedrok Galiziara itzultzea erabaki zuen, herriminez. Ez dut gehiago bere berririk jaso; ezta nire familiaren berririk ere, Argüelles familia.

Nire aulkitik altxatu naiz eta hartu ditut maletak, idazmahaian esaldi bakarreko agurra utziz. Zazpi hitz: “*Armak herriari, fatxa madarikatuak ez dira pasako*”.



Ainara Olea Urionabarrenetxea

BATX 2. maila

“Bizitzaren artea, bizitza artelan bihurtzea da”

AMETSIK GABEKO BIZIA

Denbora, erloju geldiezin, orduak hainbeste minuturekin, minutuak hainbeste segundorekin ... eta ez dago denbora nahikorik. Ametsek izan ezik, gizaki orok ditu ilusioak, gogoak, ametsak eta hil baino lehen bizi nahi dituzten momentuak. Hau ordea, korapilo pairaezin batean harrapaturik dago, soka ligorrak bere azala urratzen duelarik. Jaio izan zen unetik, bere bizitzak izarrik gabeko gaua zirudien.

Mundu ulertezin honetako argia ikusi zuen egunean bertan, laino ilun eta sendo batek inguratu zuen gela hura. Familia hartako azken argia itzali baitzen, bere bizitza itxaropen eta argi hutsez beterik zuen hogeita hiru urteko emakume gaztearekin batera. Bere seme jaio berria amona Doloresen besoetan utzi zuena, bakar-bakarrik. Bera zen umearen ama, aita eta era berean, amona. Aita gaixoa auto istripu batean hil baitzen lanetik bidean zetorrela. Eta gela ilun hartako sehaskan, amak betidanik amestu izan zuena, Amets.

Haurtzaroa, bizitzaren lehen aroa, udaberria urtearena den bezala. Bizitzak duen urtarorik alaiena, gozoena eta lasaiena den arren, Ametsek ez zuen aldi koloretsu eta baketsu honetaz batere gozatu. Bere haurtzaroa negu gorria bezain hotza eta iluna baitzen. Haurtzaroa da pertsona bakoitzari bere bidea zabaltzen dion atea. Ametsen bidea berriz, guztiz kontrakoa zen, zamarrez beteriko ate ilun bat baino ez baitzuen ikusten. Giltzez gogor itxita zegoen zorigaitzoko ditzosozko atea.

Inguruko neska-mutikoen aurpegietara begiratzea besterik ez zegoen beraien masailetan margoturiko irribarre liluragarriak antzemateko. Neba-arreba, guraso, izeko-osaba, lehengusu-lehengusina, lagun eta familiako beste kideekin batera barre algaraka, bizitzaz gozatuz, beraien bideak jarraituz, ... Hormaren beste aldean zegoen Amets, erloju geldiezinari begiratuz. Honekin batera, bere azken euskarri bakarra, amona

Dolores. Gernikako bonbardaketa bizi eta jasan zuena hamabi urte besterik ez zituela. Dozena bat urte, bai. Orain ordea, garai haiek guztiz atzean geratu dira eta tik - tak, tik - tak... erlojuaren orratzak aurrera doaz etengabe, laurogeita hamabi urteko begi goibel eta nekatuek erreparatzen dituztelarik. Dolores, bizitzan esku eta oinekin zenbatzeko ez beste halabehar eta gorabehera izandako bi hildako alaben ama alarguna, andre indartsua, bere alaba zenaren ilusio guztien iturria. Bizi izandako urte mordoa lepoan harturik, biloba txikiaren kargu zena.

Garai gogorrak haiek, beraien bizitzako beste guztien antzera. Bere alaba maitea, gazteena, etxeko azken lore koloretsua galdu eta bizitako guztiaz hausnartuz lasai egon eta une bakoitzaz gozatzeko unea iritsitakoan, zer eta beste bizitza baten kargu egin behar. Ez dago bere biloba koitaduari begi ilunetara begiratzeak baino erruki gehiago ematen dion ezer. Maitasun falta eta bakardadeaz at, eskolako kideekin arazoak besterik ez dituen mutiko bakarti eta erreboltaria, bere bizitzaren jabe egiteko gai ez dena.

Orratzak aurrera eta aurrera... Hamabi urte bete ditu jada amonaren mutiko txikiak, etorkizun gabeak. Askotan galdetzen dio bere buruari zergatik demontre jarri ote zioten “Amets” izena, familia hartako amets bat bera ere ez baitzen bizi. Nerabezaroan jasandako aldaketa fisiko eta psikologikoei Ametsen mundu txikiaren ikuspegia okertu dute. Nahiz eta adinean aurrera joan, inurri bat unibertsoan bezain txikia sentitzen baita. Ez baitaki nerabezaro zoriontsu batez gozaten, ezta zer den nerabe izatea ere, bakardadez eta malkoz inguratutik baitago. Guztiz abaildurik, etorkizuneko ate guztiak itxita ikusten ditu, irtenbiderik gabe.

Gaurkoan ere gainontzeko egunen antzean, eguzki izpiek ez dute Ametsen logela argitu. Ezta ezer arrarorik. Zortzi ordu eskolan eman ondoren, zapuzturik bueltatu da etxera. Egongelara sartu bezain laster nabaritu du amona ez dela etxean. Kezkatzekoa, beti egoten baitzen egunkaria irakurritz bilobaren zain, besaulkian eserita. Minutu batzuk besterik ez dira igaro, segundo mordoarekin. Jarraian, etxeko telefonoa jo eta jo hasi da. Mutikoa guztiz beldurturik, bere baitan pentsatzen jarri da lipar batez. Badaki amonari zerbait gertatu zaiola, sekula ez baitzuen inork telefono hartara deitzen.

Malko baten presentzia nabari du masailean, beste askoren lehena. Denbora geldiezin, tragiko, krudel eta injustuak bizitza honetan maite zuen pertsona bakarra eramane dio. Amonaren ia ehun urteko gorpu hila aurrean duela dago Amets. Bere lagunak onenak, amak, aitak, neba-arrebak, amonak ... ihes egin du bere albotik, bakarrik geratu da. Bakar-bakarrik.

Bizi nazkagarri honetan zerbaitez damutu behar banaiz, nigatik dena eman duen amona Doloresi maite nuela sekula esan ez izana da. Baina beranduegi da jada. Beranduegi, gauza materialak hutsaren hurrengo balio dutela konturatzeko eta benetan garrantzitsuena dena esateko: Maite zaitut amona.

Non dago bakea? Non dago poztasuna? Non nire ametsak?

Orain hementxe nago, 19 urte bete berri, 19 negu, 19 udaberri ... guztiak sufrimenduzko mundu batean igaroak. Erruduna ni neu naizela uste dut. Uste dut hau guztia ez dudala merezi izan. Baina amonak beti esaten zidan bezala: “Usteak erdi ustel!” Bizitzaren zatirik ederrena eta handiena alferrik galdu dut. Baina orain, erloju geldiezinari aurre hartzeko momentua heldu da, inguratzen nauten iluntasun eta pena

guztiak baztertu eta behingoz, neure ametsak bizitzeko! Argia ikusi nahi dut! Benetako eguzkia sentitu! Berotasuna! Haizea masailetatik igarotzen dagoela antzeman! Libre sentitu! Bizitza biziz!

2027ko abuztuaren 17a:

Gogoratzeko idazten dizut. Nire ametsak eta bizipenak gogoratzeko. Iraganeko kapituluak atzean utzi eta atal berri bat idazten hasteko ordua da. Sufrimendu, min eta malkoak ahaztu eta haien artean irribarreak aurkituz, alaitasunez bizitzaren etapa berri bat hasteko. Maite nautenen alboan. Orain, bizitzako “stop” guztiak semaforo berde bihurtu ditut. Izan ere, bizi dugun orainaldi honetan egin dezakegun bakarra geure iraganari so egitea da. Bada garaia ordulariari begira denbora galtzen utzi beharrean honi aurre hartzeko segundoak, minutuak, orduak eta egunak nola igarotzen diren ikusteari utzi eta hauek segundoro bizitzeko! Ikasi dut, maite nautenak maitatzen, eta halaxe maite ditut Usue, neure emaztea eta Maite eta Jon, seme-alabak. Ikasi dut, aurrera egiten, izarririk gabeko gaua zen bizitzari argia ematen. Amak beti esan omen zuenez: ikasi dut, amesten!



Naia Gerekiz Uriarte
BATX 2. Maila
“Eman kolorea mundu grisari”

BIZITZA

AMA

Gaurkoan ere ez dakit nola eskertu
inoiz baztertu ez izana.
Loreak zurekin zorretan daude
eman baitiezu usain eta kolore.

Krabelin zuria
tulipa arrosa
errugabea,
ona eta samurra.

Etxeko ortzadarra,
eztabaiden bakea.
Zurekin eraman al duzu
neguko elurraren zuria?

Hodeiak triste daude
beltz, negarrez.
Nork arinduko du ba
amak utzitako mina?

Enarek ez dute abesten,
loreek ez dute usaintzen.
Haizeak ez nau laztantzen,
ezta suak berotzen.

Gaueko izarrak itzali dira
bakardadearen seinale.
Eguzki izpiek itsutzen naute
minaren seinale.

Nork besarkatuko nau hotz naizenean?
Nork laztanduko nau triste nagoenean?
Zeinek babestuko nau beldur naizenean?
Zeinek zuzenduko nau oker nagoenean?

Agur malkoak lehortzen zizkidanari,
agur aholkulari onenari.
Agur gaueroko muxu goxoei,
agur amaren berotasunari.

GU DA

Zenbat lagunen gorpu
zenbat maitale ahaztu,
zenbat harreman galdu
eta zenbat famili suntsitu.

Udazkeneko hostoei bezala,
ezagunei agur egin.
Neguko hotzari bezala,
tristurari ere ongi etorri.

Inoiz konturatuko al da,
bakea ez dena borrokaren emaitza?
Ulertuko al du munduak,
malko guztien erruduna dena?

Etengabeko auhena beltza,
etxekoen zigorra.
Nork kontrolatzen du ba,
nire sufrimendua?

Etxekoen auhena beltzak,
negartien begi gorriak.
Errugabeak errudun bihurtzea,
gudaren ondorio bakarra.

Ingurukoen malkoetan itotzen naiz,
sufirimenduak inguratu nau.
Errudunak errudun,
errugabe zigortuak.

Familietan amorrua sortzea, zuen helburua.
Bihotzetan sua piztea.
Etxekoak eskergabe?
Zuek nazkagarri.

ZU ZEU, NI NEU

Neska izatea zaila da antza,
mutila izatea konplikatua dela.
Modu bakarrean ebatzi daiteke buruketa,
zu zeu izatea da errazena.

Nortasuna ezkutatzea,
kritikak saihesteko modu erraza.
Etxetik ez irtetea,
begirada txarrak ez jasateko modua.

Besteen epaiketen beldur,
ondokoaren onarpenaren zain.
Zeinek onartu behar nau,
eta zertarako?

Ni ez naiz hura
ezta hura ni.
Ez dut lurrera begiratu behar,
ni neu izango naiz oraingoan.



Markel Monge Mintegia

BATX 2. maila

“Ez dugu sekula ahaztu behar nor garen eta nondik gatozen”

SUDAN MAITEA

- Ama zer dira kaxa hauek?
- Ez dakit alaba, ireki itzazu.
- Liburu zahar bat eta koadro bat besterik ez daude. Margolana oso arraroa da... Itsasoa irudikatuta dagoela dirudi, baina, kolore ilunez beterik dago. Beno, zerua ere beltz dago, eguzkitik zenbait izpi gorri eta distiratsu irteten diren arren...
- Ea utzidazu ikusten; oso polita da bai. Begira! Nire amonaren egunerokoa da; irakur dezagun zatitxoren bat.

.....

Beste urte bat joan da. Haizeak bezala, eskuetatik ihes egin dit; argiak bezain bizkor alde egin du. Pentsatuz gero, 80 udaberri luze eta misteriotsu hauetan gozatu ez dudanaren irudipena daukat, Jaungoikoak emandako aukera zaborretara bota dudanaren sentimendua. Urteak pasatu ahala, denboraren eraginez gero eta ahulago sentitzen naiz, lorea bainintzan zimeltzen hasia nago. Nire amaiera gertu dago. Gurasoekin elkartzeko garaia da, beraiekin bizi ezin izan ditudan une alaiak pasatzeko momentua. Nolakoa izango ote da zerua? Ipuinek azaltzen duten legez leku miresgarria, polita, liraina, ederra, liluragarria, zirrargarria... ala Lurra deritzon planeta honetan sortu ditugun bekatuak ordaintzeko balio izango duen mundu latz baten antzekoa? Galdera beldurgarriaren erantzuna ez dut inoiz aurkituko ordua iritsi arte. Itaun honek hainbat buruhauste sortu dizkit bizi guztian zehar. Barruak irabiatzen zaizkit ikuzgailua bailitzan. Gaiarekiko dudak ez jakintasunak nire gorputzean urduritasuna jaiotzea dakar. Egonezina. Irtenbide gabeko buruhauste madarikatua. Azken udaberrietan zaharren egoitzan igaro dudak denbora guztian igarkizunarekiko pentsamenduak besterik ez ditut izan. Gainerako arazo guztiak zurrupatu dizkit, Ines eta Borja baztertzerraino iritsi arte.

Biak asko arduratu dira nitaz. Egunero bisitatzen naute, nirekin hitz egin eta iloben gorabeherak kontatzen dizkidate. Beleak bere kumeak alde batera uzten dituen bezala jokatuko balute, ez dakit nola jarraituko nukeen aurrerantz. Argi gabeko lorea bihurtuko nintzateke. Jaungoikoari eskerrak horrela ez dela.

Gaur familia guztia etorriko denaren esperoan nago. Badira bi aste Ander eta Janire ikusi ez ditudala. Badakit neurekin egon beharrean beraien lagunekin jolasean ibiltzea nahiago dutela, baina, astean behin gutxienez amona ikusten etortzeak, ez die txarrik egingo.

Azkeneko aldian, Janireren aurpegiak zerbaitekin arduratuta zebilela adierazi zidan. Kosta zitzaidan gertatzen zitzaionaz ohartzea, nire trebeziak, ordea, ez zuen hutsik egin. Minduta zegoen, ikastolan bere azaleko koloreagatik barre egiten diotelako. Antza denez, Janire baino nagusiagoak dira. Iloba ez da indartsu sentitzen mutiko hauei aurre egiteko. Ez du Halima herenamonaren ausardia oinordetu.

Nire amonak bazuen bai adorea. Halima bizitako garaian, emakumeen eta beltzen egoera ez zen oso justua. Emakume beltzen egoera are gogorragoa zen. Bidegabekeria honen aurka adoretzu borrokatu zuen. Behin, hilabete iraun zuen gose greba eginez. Herriko putzuaren ondoan kokatu, eta 31 gau eman zituen bertatik urrundu gabe. Jendea bertara hurbiltzen zitzaion kementa ematera. Ni neu ere, egunero nindoan aitarekin. Nire begiek ez dute inoiz ahaztuko emakumearen sufrimendua. Baina, benetako indarra, ordea, bere alabak eman zion, nire amak.

Ama hori guztia gertatu baino 4 hilabete lehenago hil zitzaigun. SIDAk eraman zuen beste mundura, 1936. urteko abenduaren 11n. Gure ondotik aldentu zen. Nola liteke gaur egun ere, gaixotasun honek hainbat jenderen heriotza sorraraztea? Ikaragarria da. SIDAren eguna ospatzen denean beti dut ama gogoan. Ama bisitako sei urteetan birritan besterik ikusi nion aurpegia, edo horren oroitzapena dut. Burka zeraman. Begi marroiak zituen, sudur txikitxo eta ile luze eta distiratsua. Ederra baino ederragoa zen. Ez ditut bere laztanak inoiz ahaztuko. Poliki-poliki ukitzen zidan kopeta kuttunki, irribarre eginez. Maitekiro jantzi, minik hartu ez nezan. Nigan konfiantza sorrarazten zuen. Hil ondoren, aita izan zen etxea aurrera eraman zuena. Amaren ohiturak jarraituz, gauero ipuin misterioitsu bat kontatzen zigun bioi, Mohamedi eta niri. Ez zituen ama bezain ondo kontatzen, baina, ahalegin handiak egiten zituen, bai horixe. Kontu kontari kaskarra zen. Igandero, Halimaren alabak prestatzen zuelako pastel gozoa egin, eta amonaren etxerantz abiatzen ginen. Pastela etxe dotore hartan jaten genuen, familia guztia elkaturik; osaba-izeba, lehengusu-lehengusina... Jan ostean, soka saltoan jolasten genuen Naglaa eta Wafaarekin. Mohamed Ahmedekin zihoan arrantzan egitera. Ohitura hauek, aldiz, galtzen joan ziren gerra hasi ahala.

1955. urtean hasi zen. Hurrengo urtean, 1956. urteko urtarrilaren 1ean Sudanek independentzia lortu zuen, bertako iparraren eta hegoaren artean liskarra eraginez. Iparrean bizi ginenok musulmanak ginen, eta besteak kristauak edo bertako erlijioetakoak. Musulmanek gobernua beraien esku zutela, islama eta legeria herrialde osoan txertatu nahi zuten, gainerakoen asaldadura sorraraziz. Hamazazpi urte luze horietan pobrezia nagusitu zen Sudan osoan; bainuontzian itotzen ari zen herrialdea zen. Gerra 25 urte nituenean bukatu zen, 1972an. Milioi erdi pertsona hil ziren, eta beste hainbat jenderen alde egitea ekarri zuen. Gu izan ginen horietako batzuk; aita,

amona, Mohamed eta ni. Aitak Sudanetik Italiara itsasontziz bidaiatzeko lau txartel eskuratu zituen. Herrialdetik joateko nahia aspaldidanik zuen, diru ezak, aldiz, desioa zapuztu zion. Bi urte eman zituen gogor lan eginez. Aita Jartum hiriko jostuna zen. Agintari garrantzitsuei eta soldaduei janzkiak josten ematen zuen gau osoa. Egunaren gainerako orduetan, postari lanak egiten zituen hiriko punta batetik bestera gutunak banatuz. Beti eskertu izan diot guregatik eginikoa. Horrela izan ez balitz, Sudanen hilko ginatekeen lehergailuren batek jota.

Gure bidaiak Marokon zuen hasiera. Toki hartako portura iritsi arte ordu mordo eman genituen autobusean. Ibilbide guztia Italiako bizimodua zer nolakoa izango zen imajinatzen eman genuen. Gure etxe berria ikusteko irrikitan geunden.

Marokoko portura iristean, itsasoa lehenengo aldiz ikusi nuen. Honen usaina barru-barrura arte sartu zitzaidan, birikak erabat zabalduz. Haizeak ilea nahaspilatzen zidan. Olatuak itsas murruan apurtzen ziren hots burrunbatsua sortuz. Nik uste baino politagoa zen. Hegan zebiltzan kaioz beterik zegoen, Italiara zihoazen jendez gainezka.

Itsasontzia eguerdiko hamabietan abiatu zen Veneziarantz. Mohamedek bidaia guztia eman zuen botaka. Gizagaixoa. Amona itsasontziaren popan zihoan eserita liburuak irakurtzen. Aita eta neu, ordea, itsasora begira ahozabalik. Honen indarra miresgarria zen.

Etxe berrira iristean, gure herrialdearen egoera zer nolako penagarria den konturatu ginen. Sudan petrolioan eta lurraren emankortasunean oso lurralde aberatsa izanik, munduko tokietatik txiroenetakoa da. Bere 27 milioi biztanleak bizirik irauteko gai ez dira, eta denok bezala laguntza merezi dute.

Veneziako egunerokotasunera bikain egokitu ginen. Mohamed eta aita goizero lanean abiatzen ziren; bata etxe ondoko tabernara eta bestea; okindegira. Bi gizon hauen irabaziekin ordaindu ahal izan nituen oso onuragarriak diren nire ikasketak. Kosta zitzaidan bizitoki berriko hizkuntza ikastea, baina, azkenean lortu nuen.

.....

Jada Italian hamaika urte egonda, Sudanetik gutun bat iritsi zitzaigun. Naglaak bidali zuen. Oso urduri geunden, okerrenera espero baikenuen. Aita irakurtzen zegoen heinean, bere aurpegiko adierazpena aldatzen zihoan. Irribarre egin zuen. Hiru hilabete beranduago ospatuko zen Naglaaren ezkontzarako gonbidapena zen. Berri oso pozgarria denontzat.

Aitak egin zituen ospakizuneko arropak. Ez zuen denbora eta diru askorik xahutu, bi jantzi besterik prestatu behar izan zirelako; Mohamedena eta berea. Ni azterketa garaian nengoen, etorkizuna jokoan nuen; gainera, amona ahul zegoenez, ezin izango zuen bidaia jasan eta norbaiten laguntza behar zuen etxeko lanak betetzeko. Ez zion grazia izpirik egin bera gabe Sudanera joateak, bere bizitzako herrialde kuttunera; baina, nire ustez, min handiagoa eman zion ohartzeak jada ez zela gai aurrera jarraitzeko, azkena laster iritsiko zela.

Festa baino bi aste lehenago abiatu ziren etxeko bi gizonak Afrikarantz,

Jartumen familiarekin denbora pixka bat igarotzeko asmotan, bidaia luze hura ez baitzen egunero egiten. Ez zituzten egun lasaiak pasatu, ordea. 1983. urteko martxoko egun horietan bigarren gerra zibila hasi zen eta. Lehenengoaren arrazoi berdinek eragin zuten gerraren sorrera; hala ere, bigarrena jasangaitzagoa izan zen. Denboraren eraginez, armek aurrerakada handia eman zuten, beraz, hilketa gehiago gertatu ziren. Goseteek ere, ez zuten hutsik egin. Europak eta Estatu Batuek beraien laguntza eskaini zuten herrialde zapaldura janaria eta arropak eramanez, baina, ez zioten Sudan guztiari eskua eman, iparraldeko lurraldeei besterik baizik.

Neba eta aita ere jausi ziren. Ez ziren gerratik bizirik atera. Jartumen jaio eta Jartumen hil. Denok dakigu non jaioko garen, baina, inork ez daki, ordea, zer lekutan izango duen bukaera. Horixe da gakoa. Nork jakin Sudanera bueltatzean gerrak hasiera izango zuela berriro? Ihes egin zuten batetik eta beste gerra batek hil zituen. Tristea da, baina, horrela gertatu zen.

Amonak eta biok aurrera jarraitu genuen elkarrekin, kostata, baina, jarraitu genuen. Goizetan, ni unibertsitatean ikasten nengoen bitartean, amonak janaria prestatzen zidan. Arratsaldeetan, aldiz, karta jokoan joaten zen auzokoarekin eta lagun berriekin. Egunerokotasun honek, ordea, ez zion denbora askorik iraun. Bi urte geroago Halima hil zen, zahartzaroak jota. Bakarrik geratu nintzen, beno, ia bakarrik; Paolo nuen.

Paolo nire mutil laguna zen. Mutiko oso umila eta apala zen. Inoiz ez zuen norbait joko. Begi bistan zegoen. Zerua bezalako begi urdin-urdinak zituen; eguzkia bezalako ile hori eta distiratsua; marrubiak bezalako ezpain gorriak; zura bezalako gorputz gogorra eta indartsua... Benetako gizona zen. Bere aitaren itsasontzian egiten zuen lan patroiz gisa. Rosina eta ni portuan paseatzen genbiltzala ezagutu genuen elkar. Nire lagunak bazekien nor zen, eta aurkeztu egin gintuen. Astebete geroago, Paolarekin tupust egin nuen kalean erosketak egiten nengoen bitartean, eta etxera lagundu zidan erositako guztia antolatzerako. Egun hartatik aurrera elkar ikusten hasi ginen. Cupidok horrela batu gintuen.

Behin, ezusteko ikaragarria eman zidan. Gaueko hamabietan agertu zitzaidan etxean, berri pozgarri bat emateko asmotan. Veneziatik alde egiteko aukera zuen, lanpostu hobeago bat eskaintzen ziotelako Ondarroan. Ez genuen birritan pentsatu. Euskal Herrira gentozen bizitzera.

Hiru negu beranduago, Paolok ere ihes egin zuen. Lau hilabete ematen zituen normalean itsasoan beharrean; azkeneko aldian, ordea, jada urtebete igarota ez zen inoiz iritsi. Egunero nindoan Ines eta Borjarekin portura noizbait etorriko zenaren zain, guk ere, amore eman genuen.

.....

Heldu dira. Izugarrizko iskanbila darabilte korridorean. Beti legez zalapartaka. Ez dira inoiz aldatuko. Ez dit enbarazurik egiten, haurren zaratek bizitasuna ematen diotelako egoitza triste honi. Nire urtebetetzeko oparia dakarte eskuetan ilobek irrifartsu. Oparia zer den ez dakit, baina, bai ordea zer gustatuko zitzaidakeen izatea; Sudanera joateko bidaia txartela. Nire azkeneko desio hau betetzea nahiko nuke, nire jaioterrira itzultzeko gogo handia dut. Ebarak bezala, etxera bueltatu nahi dut.

Sudaneke airea arnastu, lurzorua zapaldu, lehengusu-lehengusinak azkeneko aldiz ikusi, berotasuna sentitu... Galdutako denbora guztia berreskuratu behar dut, jada berandu da, ordea. Nire amaiera gertu dago.

.....

- Ama horrelakoa izan al zen bere bizia?
- Bai, hala dirudi. Orain ulertuko duzu margolanaren esanahia ezta?
- Umm... Zerbait susma dezaket; baina, ez dut guztiz ulertzen.
- Begira, kolore beltzak bizi osoan zehar pairatutako guztia adierazten du; gerrak, maite dituen pertsonen heriotza... Horrez gain, beldurra ere azpimarratzen du; kasu honetan, hil ondoren gertatuko zaionarekiko ikara. Kolore gorria Paolorekiko maitasuna adierazteko erabiltzen du; eta izpien zergatia, noizbait mutilarekin elkartzeko esperantza inoiz galduko ez duela errepresentatzeko izan daiteke. Tira, goazen koadro eta liburua egongelan kokatzera, gure familiako istorio eta nondik norakoak zeintzuk diren beti gogoan eduki behar dira eta.
- Arrazoi duzu, sekula santan ez da ahaztu behar zer garen.



Aitor Goenaga Lasa

HHI/EPA

“Ametsik gabeko bizia, izarrik gabeko gaua”

GURE BIXENTE

Bixente, Urrestilla herriko Elosiaga auzoan jaio zen. Oso azkarra eta argia zen, baita langilea. Bixente hamasei urterekin, morroi joan zen Beizamako Anitxo baserrira lanean, baina handik lasterrera, hamazortzi urterekin, soldaduskara bidali zuten Afrikara. Han, bi urtez gorriak pasatu zituen...

Baina infernu hura ere bukatu zen, eta Bixente berriz etorri zen Anitxora. Han emakume lirain eta eder bat ezagutu zuen, Klotilde izenekoa. Klotilde luzera handikoa zen eta ile mataza ilun eta luzea zuen; gorputz ederrekoa zen neskatoa, eta ez hori bakarrik, alaia eta zuhurra, aldi berean. Edonori begia betetzeko modukoa zen garai hartan, eta berak ere bazekien hori! Hortaz, ulertzekoa zen Bixentek begirik ez kentzea; egunero bost aldiz gutxienez harrapatzen zuten neskari begira.

Halako batean, eta luzaroan bere Klotilde maitea burutik kendu gabe, zera esan zion ausardia ikaragarriarekin:

- Klotilde zurekin ezkondu nahi dut, eta bizitza osoa zure ondoan egon; baiezkoa bada zure erantzuna, munduko mutilik zoriontsuena izango naiz. Klotildek ere zazpi begiz ikusten zuen, eta di-da batean erantzun zion:

- Nik ere zurekin ezkondu nahi dut Bixente. Zu zara nire maite kutuna, zalantzarik gabe.



Arbe baserria

Hogeita hiru urterekin ezkondu ziren Urrestillako elizan eta, Arbe izeneko baserrira joan bizitzen. Arbe baserria, entzute handikoa zena inguru hartako auzo guztietan, berrogei pezetatan erosi zuten. Sasoi hartarako dirutza zen hura, baina hortik eta hemendik, lortu zuten behar zutena bizimodua aurrera ateratzeko.

Zoriontsuak izan zirela kontatzen dute Urrestillan, eta hamasei seme-alaba erditu zituela Klotildek guztira. Klotilde izar-argitan bizi da, baina Bixente orain dela hiru urte itzali zen.

Goian bego gure aitona Bixente!



Klotilde, Bixente eta semealabak



Kerman Alvarez Azueta

HHI/EPA


“Maite ditut maite gure bazterrak”

KAIARRIXA UHARTEA

Kaiarrixa uhartea Ea herriko kostaldean ainguratuta dago. Kosta honetan arrantzaleak sarri itsasoratzen ziren arrantza ugari zegoelako; leku aberatsa arrantzarako, hain aberatsa zen zeren herritarrek bizi maila ona zuten arraina erruz zegoelako.

Ondoko herrietako jendea hau ikusita, eta beraien herrietako kostetan halako lekurik ez zeukatenez, Eako kostetara hurbildu zen bertako arrantzaleek holako arrantza ederrak non egiten zituzten ikusteko. Behin arrantzalekua lekutu eta egun gutxira hasi ziren inguruetako arrantzaleak Ean arrantzan. Denentzako beste arrain harrapatzen zutenez arazorik ez zen egon aldi batean; baina denbora aurrera joan ahala kostako herri gehiago ohartu ziren oparotasun hartaz.

Urte bete pasa ondoren egoera txarrerantz zihoan; arrainak urritu ziren eta gero eta arrantza eder gutxiago egiten zuten. Eatarrak berotuta haserre bizian honen aurrean, beraien jatekoa arriskuan ikusita, inguruko mendietara gerturatzea erabaki zuten arazoa zelan konpondu, irtenbide bat bilatzeko.




Eako portua

Eako jendea goserik zebilen, guztia beharrean, eta amorruren amorruekin kanpoko arrantzaleei harriak jaurti zizkieten. Egunero harriak bota eta bota, handiak, txikiak, borobilak, luzeak, ilunak, gorriak, arinak, astunak...jaurti eta jaurti; urte bete inguru ekin zuten, esaten dutenez zeregin horretan etsi gabe, euren lortu arte. Harri-jaurtitze hauen ondorioz irla bat sortu zen, gaur egun Kaiarrixa izenarekin ezagutzen dena.

Kalatxori aldrak bildu ziren bertan habiak egiten, eta kostalde aberats hartako janaria gozatzeko. Txori hauek Eatarrek jasandako kontu berdinekin gorriak ikusi zituzten; horregatik herriaren alde egin zuten. Hegaztiak herriko txalupak eta kanpokoak bereizten hasi ziren. Txakada batean arrantza oso zaila bihurtu zen kanpotarrentzako, eta uhartera hurreratzea ia ezinezkoa, txorien erasoak zirela eta.

Ika-mika hauen ostean bertoko arrantza orekatu zen, Eatarren eta txorien onerako; aurrerantzean arrantzarako inguruak sortu ziren. Arrantzaleek bakoitzaren herriko kostetan arrantza egiten zuten besteen lekuei lotsa izanez, eta etxera eramandako arrain kopuruarekin konformatuz.

Eako esaera zahar batek dino: behar duzun baino arrain gehiago harrapatzen baduzu Kaiarrixa inguruetan, harri bihurtzen zara betirako.



Kaiarrixa uhartea Ean

BABESLEAK:

